



EUSKADIKO GAZTEAK 2004

#gazteplana#
— 2002-2005 —



Euskadiko gazteak 2004

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

KULTURA SAILA

*Gazteria eta Gizarte Ekintza
Zuzendaritza*

PRESIDENCIA

Gabinete de Prospección Sociológica

DEPARTAMENTO DE CULTURA

*Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria*

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

Euskadiko gazteak 2004 / [koordinazioa, Francisco Javier Gutiérrez Páramo]. – 1. argit. – Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2004
or. ; cm. – (Gazte Plana ; 13)
ISBN 84-457-2197-6

1. Gazteria-Euskadi-Gizarte egoera. I. Gutiérrez Páramo, Francisco Javier. II. Euskadi. Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. III. Euskadi. Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza. IV. Bilduma
308-053.81(460.15)

Argitaratutako tituluak:

1. EAEko gazte plana 1999-2001
2. Plan Joven de la CAPV 1999-2001
3. Euskadiko bekak, dirulaguntzak eta sariak 2000
4. Becas, subvenciones y premios de Euskadi 2000
5. Euskadiko gazteak 2000
6. Juventud vasca 2000
7. EAEko II. gazte plana 2002-2005
8. II Plan Joven de la CAPV 2002-2005
9. EAEko gazte-elkargintzaren liburu zuria 2003
10. Libro blanco del asociacionismo juvenil 2003
11. Gazte planak eta programak programatzeko eta balioztatzeko eskuliburua
12. Manual de programación y evaluación de planes y programas de juventud
13. Euskadiko gazteak 2004
14. Juventud vasca 2004

Argitaraldia: 1.a, 2004 urria

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Koordinazioa: Francisco Javier Gutiérrez Páramo

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 – 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-2197-6

L.G.: VI-474/04

AURKEZPENA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzaren menpeko Gazteriaren Euskal Behatokiari dagokio, besteak beste, gazteen munduaren egoeraren berri eman dezakeen informazioa eta dokumentazioa jaso eta zabaltzea. Helburu hori kontuan, hainbat argitalpen sortu ziren 2000 urtean eta horietako baten bigarren zenbakia da, hain zuzen ere, orain eskuen artean daukazuna. Euskadiko Gazteak, hortaz, gazteen kolektiboari buruzko ikerketa da, beren portaera, sinesmen eta jarreraren azterketa, beren argazkia, protagonista nagusi gure gazteak dituen erretratua. Izan ere, lan hau informazio-biltze sakon baten emaitza da eta, prozesu horretan, gazteek zuzenean hartu dute parte.

Honen aurrekari den *Euskadiko Gazteak 2000* argitalpenak bezala, ikerketa soziologiko honek dimentsio asko ditu eta gazteen kolektiboaren ikuspegi zabala ematen du, izan ere, eguneroko bizitzaren alderdi guztiak aztertzen ditu: lan-egoera, lan baldintzak eta autoenpleguarekiko jarrera; familia, emantzipatzeko adina; aisia kudeatzeko erak; jarrera politikoak; erlijioaren aurreko jarrera; balio sozialak, ohiturak, tolerantzia eta etorkinen aurrean duten jarrera; euskara: ezagutza eta erabilera; eta, azkenik, sexualitatearen esparrua, horren garrantzia eta sexu-identitatea.

Ikerketa soziologiko hauetako bigarrenak, EUSKADIKO GAZTEAK 2004 honek, euskal gazteriaren argazki erreala eskaintzen digu gizartearen sektore honekin lan egiten dugun pertsona eta gizarte-eragileei, ahaztu gabe ikerketa honen emaitzak *Euskadiko Gazteak 2000* izenekoaren ondorioekin erkatzeak duen balioa. Gure gazteak nolakoak diren, zer pentsatzen duten eta beren jarreretan nola eboluzionatzen duten jakitea nahitaezkoa eta ezinbestekoa da guretzat, euskal gazteen benetako behar, nahi, kezka eta arazoei erantzuteko politika publikoak diseinatu, egokitu eta burutzeko ardura dugunontzat. Horixe da gure erronka.

Gazteriaren Euskal Behatokiari Euskadiko Gazte Planaren tresna den aldetik esleitu-tako funtzioak betetzeko, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak beharrezko ikusten du EUSKADIKO GAZTEAK 2004 ikerketaren emaitzen berri ematea euskal gizarteari, daukaten balio zientifiko eta sozial ukaezinagatik.

MIREN AZKARATE VILLAR
Kultura sailburua

AURKIBIDEA

0. Sarrera orokorra	17
1. Lan mundua	21
1.1. Sarrera	23
1.2. Gazteriaren lan egoera	24
1.3. Lan baldintzak	26
1.3.1. Egonkortasuna	27
1.3.2. Lanaldia	30
1.3.3. Lanaren ezaugarriak	31
1.4. Auto-enpleguarekiko jarrerak	33
1.5. Lan-mugikortasunerako prestutasuna	35
Ondorioak	37
2. Familia	39
2.1. Sarrera	41
2.2. Familia-egoera	42
2.3. Emantzipazioa	42
2.3.1. Emantzipazio adina	42
2.3.2. Emantzipatzeko zailtasunak	44
2.3.3. Independentzia ekonomikoa	46
2.4. Familiarekiko jarrerak	49
2.4.1. Familiarekiko poztasuna maila	49
2.4.2. Seme-alaben kopurua	50
2.4.3. Etxeko lanen banaketa	51
Ondorioak	52
3. Aisialdia	53
3.1. Sarrera	55
3.2. Aisialdirako denbora edukitzea	55
3.3. Aisialdiko jarduerak	57
3.4. Elkarkidetza motak	64
3.5. Internet: esperientzia eta erabilera	67
Ondorioak	71

4. Egoeraren balorazioa	73
4.1. Sarrera	75
4.2. Gazteek egoera nola ikusten duten	76
4.2.1. Egoera pertsonala	76
4.2.2. EAEko gazteriaren egoera	77
4.2.3. Euskal Herriaren egoera	78
4.3. Kezka pertsonalak	79
4.4. EAE-ko hezkuntza-sistemaren balorazioa	82
4.5. Euskal erakundeek gazteriaren gaian egiten duten lanaren balorazioa	85
Ondorioak	86
5. Jarrera politikoak	87
5.1. Sarrera	89
5.2. Parte-hartze politikoa	89
5.3. Jarrera ideologikoa	91
5.3.1. Ezker-eskuin ardatza	92
5.3.2. Euskal herritar-espainiar ardatza	93
5.3.3. Gertueneko alderdi politikoa	94
5.3.4. Europar nortasun sentimendua	96
Ondorioak	98
6. Erljioaren garrantzia	99
6.1. Sarrera	101
6.2. Gazteen erlijiozkotasuna	102
6.3. Erljio praktika	104
Ondorioak	106
7. Gizarte balioak	107
7.1. Sarrera	109
7.2. Gizarte arloa	110
7.2.1. Oinarrizko gizarte-balioak	110
7.2.2. Gizarte-portaerak	112
7.2.2.1. Garraibide ezberdinen erabilera	112
7.2.2.2. Jarrera gaitzesgarriak justifikatzea	114
7.2.3. Osasunerako ohitura kaltegarriak	117
7.2.3.1. Hauen hedapenari buruzko iritziak	117
7.2.3.2. Osasungarriak edo gizabidezkoak ez diren portaerak izatea	119
7.3. Besteen arloa	120
7.3.1. Auzokideekiko tolerantzia	120
7.3.2. Tolerantzia ideologikoa	123
7.3.3. Inmigrazioarekiko jarrerak	125
7.3.4. Gauz kalera ateratzeko beldurra	129
Ondorioak	131
8. Euskara	133
8.1. Sarrera	135
8.2. Euskararen ezagutza	136

8.3. Euskararen erabilera	138
8.4. Herri administrazioek euskara sustatzeari buruzko iritzia	141
Ondorioak	143
9. Sexualitatea	145
9.1. Sarrera	147
9.2. Sexualitatearen garrantzia	148
9.3. Sexualitatea zerekin identifikatzen duten	149
9.4. Sexualitateari buruzko komunikazioa familian, lagun artean eta irakasleekin	150
Ondorioak	155
10. Ondorioak	157
11. Metodologia	163
11.1. Lagina	165
11.2. Landa lana	165
11.2.1. Landa-lana	165
11.2.2. Landa-lanaren kontrola	165
11.3. Landa-lanaren kontrola	166
11.3.1. Adierazle soziologikoak	166
11.3.2. Segmentazio-faktoreak	168
11.3.3. Galderak birkodetzea	168
ERANSKINA: erabilitako inkesta	171
Bibliografia	181

TAULEN AURKIBIDEA

1. Lan mundua

1.1 taula: Langabezia tasa (%), 2001 urtea	23
1.2 taula: Gazteriaren lan egoera	24
1.3 taula: Lehenago lanik egin duzu?	25
1.4 taula: Nola lortu zenuen zure lehenengo lana?	26
1.5 taula: Lan egonkortasuna (I): lan ordainduen kopurua	27
1.6 taula: Lan egonkortasuna (II): antzintasuna	28
1.7 taula: Lan egonkortasuna (III): kontratu mota	29
1.8 taula: Lanik egi(te)n duten gazteen lanaldia	30
1.9 taula: Euskal gazteriaren lanaren ezaugarriak	31
1.10 taula: Oraingo lanarekiko poztasuna	33
1.11 taula: Auto-enpleguarekiko jarrerak: inoiz pentsatu duzu zure lanpostua sortzea?	33
1.12 taula: Lan arrazoiengatik bizimodua aldatzeko prestutasuna	36

2. Familia

2.1 taula: Familia-egoera	42
2.2 taula: Hauetako zein egoera da zurearen antzerakoena?	43
2.3 taula: Euskal gazteriaren emantzipatzeko adina	44
2.4 taula: Emantzipatzeko zailtasunak	44
2.5 taula: Non bizitzea nahiago zenuke?	46
2.6 taula: Independentzia ekonomikoa	47
2.7 taula: Independentzia ekonomikoa lortu den adina	48
2.8 taula: Zenbat diru izaten duzu hilero, batez beste?	49
2.9 taula: Zenbateraino zaude pozik gaur egun duzun familia bizitzarekin?	49
2.10 taula: Zenbat seme-alaba dituzu?	50
2.11 taula: Zenbateraino banatzen dituzu etxean egin beharreko lanak zure senar/emazte edo bikotekidearekin?	51

3. Aisialdia

3.1 taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan? (I)	56
3.2 taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan? (II)	56
3.3 taula: Aisialdiko jarduerak desberdinen maiztasuna	58
3.4 taula: "Bakarkako jarduerak", sexua eta adinaren arabera	59
3.5 taula: "Harreman-jarduerak", sexua eta adinaren arabera	60
3.6 taula: "Teknologia berriekin lotutako jarduerak", sexua eta adinaren arabera	61
3.7 taula: "Kirol jarduerak", sexua eta adinaren arabera	62

3.8 taula: “Kontsumoarekin lotutako jarduerak”, sexua eta adinaren arabera	63
3.9 taula: “Elkartze jarduerak”, sexua eta adinaren arabera	64
3.10 taula: Gazteen eta elkarten arteko harremana	65
3.11 taula: Gazteen eta elkarte moten arteko harremana	65
3.12 taula: Gaur egun elkarteren bateko kide diren gazteak, sexua eta adinaren arabera .	66
3.13 taula: Zenbat denbora daramazu Internet erabiltzen?	68
3.14 taula: Oro har, astean zenbat ordu ematen duzu Internet erabiltzen? (I)	69
3.15 taula: Oro har, astean zenbat ordu ematen duzu Internet erabiltzen? (II)	69
3.16 taula: Erabil dezakezun ordenagailurik baduzu etxean?	70
3.17 taula: Interneterako konexiorik baduzu etxean?	70
4. Egoeraren balorazioa	
4.1 taula: Gazte zaren aldetik, nola ikusten duzu zure egoera pertsonala gaur egun? . . .	76
4.2 taula: Orokorrean, nolakoa da zure ustez gaur egungo gazteen egoera? (I)	77
4.3 taula: Orokorrean, nolakoa da zure ustez gaur egungo gazteen egoera? (II)	78
4.4 taula: Nola ikusten duzu Euskal Herriaren egoera, orokorrean?	79
4.5 taula: Zeintzuk dira gazte bezala gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?	81
4.6 taula: Zer nolako ikasketak bukatu dituzu?	83
4.7 taula: Zure ikasketa zentroan jaso duzu informazio eta orientabiderik zure lan etorki- zunerako aukera desberdinei buruz?	83
4.8 taula: Zer iritzi duzu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemari buruz?	84
4.9 taula: Hainbat erakundek gaztediaren gaietan egindako lanaren balorazioa	85
5. Jarrera politikoak	
5.1 taula: Gustatuko litzaizuke asunto publikoetan gehiago parte hartzea?	90
5.2 taula: Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabaki ahal izateko kontsulta bat egi- tearen alde egongo zinateke?	91
5.3 taula: Eskuineko eta ezkerreko izatearen artean, nola definitzen duzu zure burua? ..	92
5.4 taula: Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zure burua?	93
5.5 taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen? (I)	94
5.6 taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen? (II)	95
5.7 taula: Zenbateraino sentitzen duzu zeure burua europar?	97
6. Erljioaren garrantzia	
6.1 taula: Erljioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?	103
6.2 taula: Erljioaren aurrean hartutako jarrera. (EAEko 2000 * eta 2004 urteetako datuen konparazioa eta Espainiako Estatuko 2001 eta 2003 urteetako datuen konpara- zioa)	104
6.3 taula: Zein maiztasunez joaten zara elizara edo gurtza-zentrora?	105
7. Gizarte balioak	
7.1 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (I)	111
7.2 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (II)	112
7.3 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (2000 eta 2004 urteetako datuen konparazioa)	112
7.4 taula: Garraioak eta gazteak	113
7.5 taula: Portaera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?	115
7.6 taula: Honako portaera bortitzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?	116
7.7 taula: Portaera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	117
7.8 taula: Honako portaera bortitzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	117

7.9 taula: Zure ustez, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo portaerak? . . .	119
7.10 taula: Ondorengo jardueretatik, egin al duzu baten bat azken hamabi hilabetetan? .	120
7.11 taula: Axola al dizu honelako pertsonaren bat auzokide izatea?	121
7.12 taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara?	123
7.13 taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara? (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	123
7.14 taula: Politikaz hitz egiteko aske sentitzen al zara?	124
7.15 taula: Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia	126
7.16 taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke?	128
7.17 taula: Gauzez herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten al zaitu?	129
8. Euskara	
8.1 taula: Zein da zure ezagutza-maila euskarari dagokionez?	138
8.2 taula: Zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean etxean?	139
8.3 taula: Zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean lagunekin hitz egiteko?	139
8.4 taula: Zenbat irakurtzen duzu euskaraz eta zenbat gaztelaniaz?	141
8.5 taula: Zure ustez, euskal administrazioek orain baino gehiago, gutxiago edo berdin gastatu behar lukete euskararen sustapenean? (I)	142
8.6 taula: Zure ustez, euskal administrazioek orain baino gehiago, gutxiago edo berdin gastatu behar lukete euskararen sustapenean? (II)	142
9. Sexualitatea	
9.1 taula: Gaur egun zer da sexualitatea zuretzat?	148
9.2 taula: Sexualitatea zerekin identifikatzen duten	150
9.3 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure gurasoekin honako gai hauetaz?	151
9.4 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure lagunekin honako gai hauetaz?	152
9.5 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure irakasleekin honako gai hauetaz?	153

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. Lan mundua

1.1 grafikoa: Gazteen lan egoera (Datu konparatiboak: EAE - Estatu)	25
1.2 grafikoa: Lan egonkortasuna: kontratu motak (Datu konparatiboak: 2000 – 2004) . . .	29
1.3 grafikoa: Auto-enpleguarekiko jarrerak. Inoiz pentsatu duzu zure lanpostua sortzea? (Datu konparatiboak: 2000 – 2004)	34
1.4 grafikoa: Auto-enpleguarekiko jarrera generoa, adin taldeak eta lan egoeraren arabera	35
1.5 grafikoa: Lan arrazoiengatik bizilekua aldatzeko prestutasuna. (Datu konparatiboak: 2000 – 2004)	36

2. Familia

2.1 grafikoa: Hauetako zein egoera da zurearen antzerakoena? (Datu konparatiboak: EAE - Estatu)	43
2.2 grafikoa: Emantzipatzeko zailtasunak (Datu konparatiboak: 2000 –2004)	45
2.3 grafikoa: Independentzia ekonomikoa (Datu konparatiboak: EAE - Estatu)	48

3. Aisialdia

3.1 grafikoa: EAeko gazteek aisialdirako duten denbora, lanbide nagusiaren arabera	57
3.2 grafikoa: Interneten erabilpena	67
3.3 grafikoa: Interneten erabilzaileak, sexua, adina eta lurraldearen arabera (Datu konpa- ratiboak: 2000 –2004)	68

4. Egoeraren balorazioa

4.1 grafikoa: Egoera pertsonalarekiko poztasuna klase sozialaren arabera	76
4.2 grafikoa: Egoera pertsonalarekiko poztasuna lanbide nagusiaren arabera	77
4.3 grafikoa: Zeintzuk dira, gazte bezala, gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?	80
4.4 grafikoa: Zer nolako ikasketak bukatu dituzu?	82
4.5 grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa bukatutako ikasketen arabera	84
4.6 grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa lanbide nagusiaren arabera	85

5. Jarrera politikoak

5.1 grafikoa: Ezker-eskuin ardatza (guztira)	92
5.2 grafikoa: Euskal herritar-espainiar ardatza (guztira)	93

5.3 grafikoa: Batez ere nongo herritarra sentitzen zara? (Datua Espainia Estatu osokoak dira. CIS 2001)	94
6. Erlijioaren garrantzia	
6.1 grafikoa: Erlijioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?	102
6.2 grafikoa: EAEko gazteen erlijiozkotasuna, gizarte-mailaren eta ezker/eskuin ardatzean hartutako jarrera politikoaren arabera	103
6.3 grafikoa: Mezatara joaten diren EAEko gazteak elizara edo gurtza-zentrora zein maiztasunez joaten diren, gizarte-mailaren eta ezker/eskuin ardatzean hartutako jarrera politikoaren arabera	105
7. Gizarte balioak	
7.1 grafikoa: Zure ustez gazteen artean zabaldua dauden azturak (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	118
7.2 grafikoa: Auzokideekiko tolerantzia (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa) ...	122
7.3 grafikoa: Zerekin lotzen dituzu Euskadin bizi diren etorkin atzerritarrak? (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	125
7.4 grafikoa: Euskadin bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	127
7.5 grafikoa: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke? (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	128
7.6 grafikoa: Gaez herritik edo auzotik ibiltzeko beldurra (2000 – 2004 urteetako datuen konparazioa)	130
8. Euskara	
8.1 grafikoa: Zein da zure ezagutza-maila euskarari dagokionez?	137
8.2 grafikoa: Euskarazko hizkuntza-gaitasunak (2000 eta 2004 urteetako datuen konparazioa)	137
8.3 grafikoa: Normalean zein hizkuntza erabiltzen duzu etxean? Eta lagunekin?	140
9. Sexualitatea	
9.1 grafikoa: Sexualitatea zerekin identifikatzen duten (Datu konparatiboak: 2000 – 2004)	149
9.2 grafikoa: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure gurasoekin, lagunekin edo irakasleekin honako gai hauetaz?	154



0

Sarrera
orokorra

SARRERA OROKORRA

1986an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak gazteen kolektiboa ikertzen hasi zen. Ikerketa horiek 1990ean eta 1994an errepikatu ziren eta gobernu autonomoaren Prospekzio Soziologikorako Kabineteak euskal gazteriari buruz 1996an, 1997an eta 1999an egindako txostenekin osatu ziren. Analisi horiek baliagarri izan dira gazteriaren inguruko politika publikoak garatzeko.

EUSKADIKO GAZTEAK 2004 testuinguru horretan sortu zen, eta Kultura Saileko Gazteria eta Gizarte-Ekintza Zuzendaritzaren menpeko Gazteriaren Euskal Behatokiak bultzatutako soziologia-ikerketa honen lehenengo liburuak, *Euskadiko Gazteak 2000* lanak, ezarritako ikerketa-ildoari jarraitu nahi dio. Behatokiak Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikorako Kabinetearen laguntza izan du, hori arduratzen baita zuzendaritza teknikoaz eta, Gestiker enpresarekin batera, txostena egiteaz, lanaren azterketa orokor eta dimentsioanitzean oinarrituta. Landa-lana, berriz, Ikertalde enpresak egin du.

Gazteen eguneroko bizitzari estu-estu lotutako bederatzi arlok ematen diote Euskal Gazteak lanari izaera dimentsioanitza:

Ikerlan honen hamaika atalak eta euren edukiak, honako hauek dira:

- ▶ *Lan-mundua*: atal honetan euskal gazteriaren lan egoera orokorraren moduko gaiak aztertuko dira: noizbait lanean izandako gazteen lan baldintzak (bizitza laborean zenbat kontratu izan dituzten, kontratu horien iraupena, kontratu motak, zer-nolako bidetatik lortu zituzten enpleguak, enpleguen ezaugarriak eta horiekiko poztasuna), baita lana lortzeko bideak izan ohi diren auto-enplegurako jarrera edo bizilekuz aldatzeko prestutasuna ere.
- ▶ *Familia*: atal honetan gazteriaren familia-egoera aztertuko da: bizikidetzara mota, emantzipazioa gurasoen etxetik, emantzipazio horretarako zailtasunak, gurasoengandiko independentzia ekonomikoa, diru-sarrerak, seme-alabarik izatea, etxeko lanen banaketa, baita familia-egoera propioarekiko poztasun maila orokorra ere.
- ▶ *Aisialdia*: atal honetan EAEko gazteen aisialdirako aukera landuko da, baita normalean edo noizbehinka nola betetzen duten aisialdi hori ere. Halaber,

gazteek elkarrekin nolako harremanak dituzten eta Internet gazteriak zenbat erabiltzen duen aztertuko dira.

- ▶ *Egoeraren balorazioa*: atal honetan gazteen poztasunari helduko diogu, bai beren egoera pertsonalarekin, bai gazteriarengan hautemandako egoerarekin, baita Euskal Herrikoarekin ere. Bestalde, gazteak gehien kezkatzen dituzten arazoak, gazteria arloan euskal administrazioak eginiko lanaren balorazioa eta, zehatzago, euskal hezkuntza-sistemaren balorazioa ere jasoko dira hemen, azken arlo hori gizatalde honi loturikoenetako bat dela eta.
- ▶ *Jarrerak politikoak*: atal honetan aztertuko diren gazteen jarrera politikoak hauexek dira: ezker-eskuin ardatzaren araberrako kokapena, euskal herritar-espainiar ardatzaren araberrako nortasun-kokapena, euskal alderdietatik zein sentitzen duten gertuen, europar nortasun-sentimendu maila, gai publikoetan gehiago parte hartzeko gogoia edo gogorik eza, eta Euskal Herriaren etorkizun politikoari buruzko kontsulta egitearen aldekoak ote diren gazteak.
- ▶ *Erljioa*: kasu honetan gazteen beraien definizio erlijiosoaz aztertuko da, baita ospakizun erlijiosoetan parte hartze maila ere.
- ▶ *Gizarte-balioak*: atal hau luzeena da eta bertan, alde batetik, gizarte-arloa jorratuko da, hau da, oinarritzko gizarte-balioak, gizarte-portaeren edo ohituren justifikazioak, askotan gaitzesten diren gizarte-portaeren edo osasunerako kaltegarriak diren ohituren hedapena. Bestetik, “besteen arloa” dago eta horretan auzokideekiko tolerantzia, tolerantzia ideologikoa, inmigrazioarekiko jarrerak edo gauez kalera ateratzeko beldurra aztertuko dira.
- ▶ *Euskara*: atal honetan euskararen ezagutza eta arlo ezberdinetako erabilera mailak jasoko dira, baita herri-administrazioak euskara sustatzeari buruzko iritzia ere.
- ▶ *Sexualitatea*: atal honen mamia gazteentzat sexualitateak duen esanahian eta garrantzian datza, baita sexualitateari buruzko gaiez gurasoekin, lagunekin eta irakasleekin dagoen komunikazioan ere.
- ▶ *Ondorioak*: atal honek aurreko ataletako ondorioak garrantzitsuenak laburbilduko ditu, modu orokorrean.
- ▶ *Metodologia*: azken atal honetan inkesta egitean eta ikerketaren datuen tratamenduan kontuan izandako zehaztasun teknikoak azaltzen saiatuko gara.

Azkenik, ikerketaren emaitza orokorrak eta inkestan erabilitako metodologia eskaintzen dira, horren alderdi teknikoak eta jasotako datuei emandako tratamendua azalduta. Halaber, eranskin bat sartu da, erabilitako galdetegia eta txostena egiteko kontsultatutako bibliografia azaltzen dituen.



1

Lan-mundua

1.1. SARRERA

Gazteek lan-munduarekin duten harremana egoera konplexu eta arazotsu bihurtu da urte batzuetatik hona: lehenengo lana lortzeko borroka, lana edo lanak (kontratu pre-karioak, aldi baterakoak direla eta) bilatzea, ikasketak eta lana bateratzeko erabakia hartzea, e.a.. Horiek guztiak lan-jardueratik kanpo geratzen diren elementuak dira, baina gazteriaren eta lan-munduaren arteko elkarrekintzan eragin erabakigarria dute, halere.

Gaur egun bai garapen bidean dauden herrietako gobernuak bai industrializatueta-koek mahai gainean daukaten arazo larria da gazteen langabezia tasa altua. Hurrengo taulan ikus dezakegunez, langabezian dagoen pertsona heldu bakoitzagatik bi gazte daude lan barik. Oso ezagunak dira egoera horren ondorioak, gaur egun lan ordainduak jarraitzen baitu izaten gizarteratzeko eta auto-estimurako baliabide nagusietariko bat.

1.1 taula: Langabezia tasa (%), 2001 urtea.

	Guztira	< 24 urteko gazteak
Europa (15)	7,6	15,1
Espainia	13,1	24,9
EAE	11,2	23,9

Iturria: Eustat, *Euskal Urtekari Estatistikoa*, 2004.

Langabeziak langilearen lan-bizitzaren denbora-tartean duen eragina bere hasierako maila ekonomikoarekin, sexuarekin eta leku geografikoarekin erlazionatuta egoteaz gain,¹ langilea eskola sistematik lanera pasatzerakoan duen erraztasunari ere lotuta dago. Gainera, bide berriak urratuz, munduko leku askotan gazteen hezkuntzan inoiz ez bezalako inbertsioa egin den arren, neurri horrek adin-talde horretako lan-tasen igoerarik ez dakarrela ikustea² penagarria da.

¹ FERNÁNDEZ BLANCO, Miguel (2001): “¿Los y las jóvenes buscan trabajo? ¿El trabajo busca a los y las jóvenes?”, *Jóvenes del siglo XXI*, 124 zenbakia, “Documentación Social” aldizkaria, Madrid: Cáritas (uztaila-iraila), 119 orr.

² *Emplear a los jóvenes: promover un crecimiento intensivo en empleo* [Simposio Interregional sobre Estrategias para combatir el desempleo y la marginalización de los jóvenes (1999): Abenduko 13-14an. Ginebra].

Europako eremuan eginiko ikerketa batzuetako datuen arabera enplegua eta lan-mundua kezka handiko gaiak dira gazteriarentzat. Hartara, Europari buruzko gazteen iritziak ezagutzeko asmoz, Frantziako Gazteria eta Kirolerako Ministerioak (INJEPEk)³ egin-dako 2003ko kontsultak argi utzi zuen estatu horretako gazteen ustea: %77rentzat enplegua lehentasunezko gaia zen, Europar Batasuneko estatuek jarduera-eremu bereziztat jo beharrekoa.

Horrezkero, lehenengo atal honetan zehar euskal gazteek lan-mundura hurbiltzeko duten moduaren inguruko alde ezberdinak aztertuko ditugu. Zehatzago, gai hau aztertu ahal izateko oinarritzotzat jo ditugun ondoko lau ikuspuntu nagusiok hartu dira kontuan:

- ▶ Gazteriaren lan-egoera.
- ▶ Gazteen lan-baldintzak.
- ▶ Auto-enpleguarekiko jarrerak.
- ▶ Lan-mugikortasuna.

1.2. GAZTERIAREN LAN EGOERA

Ondoren EAEko gazteen lanbide eta zeregin nagusien azterketa zehatza adierazten da, hori egin eta gero lana duen gazteriak zein motatakoa duen sakon aztertzeko.

Ikerketa honetako datuek (1.2 taula) adierazten dute 30 urtetik beherako euskal gazteen %43k nagusiki ikasten dihardutela, beste %38k lanean nagusiki eta %14 ikasten eta lanean, bietan batera, dabilzala. Azpimarragarria da langabezian EAEko gazteen %4 daudela. Horrela, esan dezakegu gazte langabetuak gutxitu direla azken lau urteotan (2000an %7,2 ziren eta 2004an %4).

Adinak alde nabarmenak sortarazten ditu gazteen zereginetan. Horrela, 19 urte izan arte %85 ikasten dabilzta (bakarrik edo lanarekin batera). Zifra horrek beherantz egiten du adina igo ahala, 2000 urtean ere agertu zen joerari jarraituz. Beraz, gazteria heldutasunera hurbildu ahala lan-merkatu sartzan doa.

1.2 taula: Gazteriaren lan egoera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua
Ikasten	43	42	43	81	55	23	34	49	37	48	44	20
Lanean.....	38	37	38	14	32	47	44	35	38	34	35	56
Ikasten eta lanean.	14	15	14	4	10	20	14	12	17	12	9	8
Langabezian	4	4	3	0	2	6	4	2	5	5	9	10
Etxeko lanetan*	1	1	1	0	0	2	1	1	1	0	2	2
Beste egoeran	1	1	1	0	0	2	1	1	1	1	1	3
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	117	1.265	109

Iturria: Etxeko lanetan dihardutenen datuak ez dira komentatuko oso lagun gutxi jaso baitira laginean.


Lurraldeetako datuei erreparatuta, Bizkaian dago ikasten (esklusiboki edo lanarekin batera) dabilzan gazteen kopururik handiena (%61) eta Araban dago lanean dabilzanena (%58).

³ MINISTERE DE LA JEUNESSE ET DES SPORTS/INJEP: *La consultation Nationale des Jeunes Sur L'Europe*: 2000.

Beren burua klase sozial altuan edo erdikoan kokatzen dutenek klase sozial baxuko-ek baino gehiago luzatzen dituzte ikasketak. Azken horiek, aldiz, goizago sartzen dira lan-merkatura (%56 lanean daude nagusiki eta beste %8k aldi berean ikasi eta lan egiten dute).

Euskadiko eta Estatu osoko gazteen egoerak alderatuta (1.1 grafikoa), egiaztatzen dugu EAEn gazte kopuru handiagoa ari dela ikasten; horren ondorioz, lanean edo langabezian daudenen kopuruak txikiagoak dira EAEn Estatuan baino (*Sondeo sobre la juventud española, 2003 – CIS*).

1.1 grafikoa: Gazteriaren lan egoera
(Datu konparatiboak: EAE - Estatu)



Lanean ez dabilzan gazteei, hau da, nagusiki ikasten dabiltzanei, langabezian daudenei edo etxeko lanetan dihardutenei lehenago lan egin ote duten galdetuta (1.3 taula), %62k ez dutela lehenago lan egin erantzun dute eta %38k, berriz, baietz diote.

Nahiz eta orain lanik ez egin, lehenago lan egin dutela dioten taldean 25-29 urte arteko gazteak nabarmentzen dira. Gipuzkoan beste lurraldeetan baino zerbait gehiago dira ere.

1.3 taula: Lehenago lanik egin duzu? *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bai	38	37	39	15	50	77	34	36	43
Ez	62	62	61	85	50	23	66	64	56
Ed/Ee	0	1	0	1	0	0	0	0	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	809	394	415	370	307	130	107	450	253

* Galdera hau bakarrik orain lanean ez dabiltzanei galdetu zaie.

Enplegua lortzeko bide ezberdinak daude (1.4 taula). Ikerketa honetako datuek argi uzten dute euskal gazteek nahiago dutela zuzenean norberak bilatu lana (orain edo lehe-

nago lanean izandakoen %38k horrela egin dute) edo familiarteko, lagun edo ezagun baten bidez topatzea (%36), eta beste bideak gutxiago jarraitu direla: %9k beka edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz lortu dute lana, %8k aldi baterako lan enpresen bitartez (ABLEn bitartez), %3k lan-poltsen bidez, beste %3k INEMen bidez eta %2k LANGAlren bidez. Hau da, lana bilatzeko aproposak diren enpresak edo erakundeak lana lortzeko eraginkortasun gutxiko baliabideak dira.

Lana beraiek zuzenean gehien lortu dutenak emakumezkoak dira eta metodo hori 20 urtetik gorakoen artean ere gehiago jarraitzen da. Izatez, adinak alde handiak bereizten ditu lana bilatzeko moduan; aipatutakoaz gain, gazteenek gehiago jotzen dute familiartekoengana edo lagunengana (%45) edo ABLEetara (%11) lana bilatzeko; aipatzekoa da ere gazte helduenek besteek baino gehiago jotzen dutela lan-poltsetara (25-29 urte arteko gazteen %5 eta 25 urte baino beherakoek %2).

Aldiz, emaitzak lurraldearen arabera aztertzen badira, alde txikiak agertzen zaizkigu herrialdeen artean. ABLEetara gehiago jotzen dela Araban eta Bizkaian (hala eta guztiz, gutxi: %10 eta %9, hurrenez hurren) Gipuzkoan baino (%5) da aipatzeko bakarra.

1.4 taula: Nola lortu zenuen zure lehenengo lana? *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Zuzenean, neronek bilatuta	38	34	41	30	38	39	35	37	39
Familiarteko, lagun edo ezagun baten bidez	36	37	36	45	36	35	35	37	36
Beka baten edo ikasketetako praktikaldi baten ondorioz..	9	11	8	9	9	9	10	9	10
ABLE baten bidez.....	8	9	6	11	9	6	10	9	5
Lan poltsa baten bidez	3	3	4	2	2	5	2	3	5
INEMen bidez	3	4	3	0	4	3	3	3	3
LANGAlren bidez	2	1	2	1	2	1	1	1	2
Ed/Ee.....	1	1	1	1	1	1	2	1	0
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	988	502	497	97	432	470	144	519	335

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

1.3. LAN BALDINTZAK

Gazteriarri buruzko ikerketa batean interesgarri deritzogu gazteen lan baldintzak aztertzeari, beharrezkoa delako, ez beren lan egoera deskribatzea bakarrik, baizik eta baita ere sakontzea daukaten lanen mota eta kalitatean.

2000 urtean enplegua zeukaten gazteen lan baldintzak honelakoak ziren: egonkortasun eskasa, hainbatean kontratu mota partzialak eta baldintza ekonomiko kaskarrak. Horrela zalantzazko etorkizuna (are zalantzazkoagoa emakumeen eta Bizkaiko gazteen kasuan) sumatzen zen.

Kasu honetan gazteriarren enplegu baldintzak aztertzeko hiru elementu funtsezkoak hartu dira kontuan:

- ▶ Egonkortasuna (lan ordainduen kopurua, antzintasuna lanean eta kontratu mota).
- ▶ Lanaldia (osoa/partziala).
- ▶ Lanaren ezaugarriak.

1.3.1. Egonkortasuna

Enplegua duten euskal gazteen lan egonkortasuna aztertzean, oinarritzko hiru gai azpimarratuko dira. Alde batetik, bizitza osoan izandako lan ordainduen kopurua, bestalde, azken enpleguan daramaten edo zeramaten denbora eta, azkenik, kontratu baldintzak.

Orain edo noizbait lanean ari(tu) diren gazteei beren bizitzan zehar zenbat lan ordaindu izan dituzten galdetu zaie. %60k sei hilabete baino denbora gutxiagoko kontratuen bat izan dutela diote, %46k sei hilabete eta urtebete arteko epeko kontratu bat edo gehiago izan dituztela diote, eta %58k urtebete baino gehiagoko kontratua izan dutela baieztatu dute.

Sei hilabete baino denbora gutxiagoko kontratuak direla eta, lanean dabiltzan edo noizbait ibili diren gazteen %37k horrelako kontratu bat edo bi izan dituztela diote eta %23k horrelako bi baino gehiago izan dituztela. %40k, aldiz, ez du inoiz horrelako kontraturik izan. Aipatzekoa da noizbait lan egin duten 15-19 urte arteko gazteen %85k horrelako kontratuak izan dituztela diotela. Kontratu horien maiztasuna apur bat handiagoa da Araban (%66), Bizkaian edo Gipuzkoan baino (%59 lurralde bietan).

Sei hilabete eta urtebete arteko kontratuei dagokienez, noizbait lanean izandako gazteen %54k inoiz ez dutela horrelako kontraturik izan diote; %36k, berriz, bat edo bi izan dituztela diote eta %10ek bi baino gehiago. Adina igo ahala horrelako kontratuak izan dituztenak gehiago dira, horrela 15-19 urte arteko taldean %19k izan dute horrelako kontraturen bat eta 25-29 urte artekoan %55ek.

1.5 taula: Lan egonkortasuna (I): lan ordainduen kopurua*

		GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
			Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
URTEBETE BAINO GEHIAGOKO LAN ORDAINDUAK	Bat ere ez	43	42	43	81	55	23	34	49	37
	Bat edo bi	52	52	52	19	43	67	59	48	55
	Bi baino gehiago	6	6	5	0	3	10	7	4	8
SEI HILABETE ETA URTEBETE ARTEKO LAN ORDAINDUAK	Bat ere ez	54	53	55	80	58	45	48	56	53
	Bat edo bi	36	34	37	18	35	40	43	32	38
	Bi baino gehiago	10	13	8	1	8	15	9	12	9
SEI HILABETE BAINO GUTXIAGOKO LAN ORDAINDUAK	Bat ere ez	40	42	38	18	40	44	34	41	41
	Bat edo bi	37	37	38	66	37	31	42	35	38
	Bi baino gehiago	23	21	24	16	23	24	24	24	21

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

Azkenik, eta urtebete baino epe luzeagoko kontratuei dagokienez, noizbait lanean izandako gazteen %52k horrelako kontratu bat edo bi izan dituzte, %6k bi baino gehiago eta %43k ez du horrelako kontraturik izan. Berrito ere adinaren eragina ikusten da

hemen: zenbat eta zaharragoa izan orduan eta gehiago dira horrelako kontratuak izandakoak, 25-29 urte arteko taldean %77 izan arte. Bizkaitarrak dira kontratu horietaz gutxien gozatu duten gazteak.

Ondoriozta daiteke, beraz, lan-merkatura sartu berri diren 15-19 urteko gazteek helbideak direnek baino egonkortasun txikiagoa dutela beren lan-kontratuetan. Kasu honetan ez dago alde aipagarriarik sexuaren arabera.

Ondoren azken lanean emandako denbora aztertuko dugu (1.6 taula). Ikus dezakeguenez, noizbait lanean izandako gazteen erdiak baino gehiagok (%55ek) diote orain dela urtebete baino gutxiago lortu zutela lan hori edo urtebete baino gutxiago eman zutela azken lanean. Horrela argi ikusten da ezegonkortasuna nabarmen igo dela 2000 urtetik honela, orduan kontratu laburrak zeuzkatenak %40 baitziren. Urtebete baino denbora gehiagoko kontratuak, aldiz, gutxiago dira orain: 2000 urtean %60 baziren ere, orain bakarrik %43 dira (%27 urtebete era hiru urte bitartekoak eta %16 hiru urte baino gehiagokoak).

1.6 taula: Lan egonkortasuna (II): antzintasuna lanpostuan *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Urtebete baino gutxiago	55	54	55	85	65	39	53	60	47
Urtebete eta hiru urte bitartean	27	26	29	13	24	33	29	24	32
Hiru urte baino gehiago	16	18	15	0	9	26	17	14	19
Ed/Ee	2	2	1	2	1	2	1	2	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	999	502	497	97	431	470	144	519	336

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

Gaur egun ia ez dago alderik sexuaren arabera, 2000an ikusten baziren ere. Orain alde horiek parekatu dira baina txarrera, zoritxarrez: 2000 urtean noizbait lanean izandako gizonezkoen %36k urtebete baino gutxiago bazeramaten edo ibilia bazen lanpostu horretan, zifra hori %54ra igo da 2004an, ia emakumezkoen zifretara (%55) helduz.

Logikoa denez, adinak eragin handia dauka lanean emandako denboran, horrela gazte gehienek (%85ek) urtebete baino gutxiago daramate edo eman zuten azken lanean. Gainera, 25-29 urte arteko taldeari dagozkion datuak begiratuta, ikus dezakegu orain talde horretako %26k hiru urte baino gehiago daramatela edo eman zituztela azken lanpostuan, kopuru hau duela lau urte %34,4 zen bitartean. Horrela ikusten da enplegu ezegonkorrak eta kontratu laburrak gehitu egin direla, eta gehitze horrek lan-merkaturan sartuago egon beharreko adin talde horretan ere (25-29 urtekoa, hain zuzen ere) eragina izan duela.

Lurraldeen arabera, Gipuzkoan bizi diren gazteen lan egoera hobeagoa dela ikusten da, lurralde horretan azken lanpostuan urtebete baino gehiago emandakoen ehunekoa (%51) arabarrena (%46) edo bizkaitarrena (%38) baino altuagoa baita. Dena dela, 2000tik hona Gipuzkoan ere areagotu da ezegonkortasuna, orduan noizbait lana izandako gazte gipuzkoarren %27,2k hiru urte baino gehiagoko kontraturen bat izan bazuen, 2004an %19 dira horrelako kontraturen bat izandakoak. Kasu honetan ematen du Bizkaia dela lanak gutxien irauten duen lurraldea: noizbait lana izandako gazte bizkaitarren %60k urtebete

baino gutxiago daramate edo eman dute azken enpleguan eta bakarrik %14k mantentzen dute beren enplegua hiru urte baino gehiago.

Egonkortasun laboralarekin erlazionaturiko hirugarren gaia kontratu mota da (mugagabeko kontratua, aldi baterakoa, norberaren kontura lan egitea edo noizbehinkako lanak). Zentzu horretan (1.7 taula), noizbait lanean izandako gazteen erdiak baino gehiagok (%54k) aldi baterako kontratuaz lan egin dute eta %31k mugagabeko kontratuaz. Gainera, %5ek beren kontura egiten dute edo zuten lan (autonomoak) eta %7k bakarrik egiten dituzte edo zituzten noizbehinkako lanak.


1.7 taula: Lan egonkortasuna (III): kontratu mota *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Mugagabeko kontratuaz	31	33	28	6	26	40	30	31	30
Aldi baterako kontratuaz	54	54	55	67	60	47	56	55	52
Neure kontura egiten dut/nuen lan	5	6	4	2	3	7	5	2	8
Noizbehinka egiten dut/nuen lan	7	5	8	22	8	3	6	7	7
Ed/Ee	4	2	5	3	5	4	3	4	4
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	999	502	497	97	431	470	144	519	336

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

Interesgarria da datu hauek 2000 urtean jasotakoekin konparatzea (1.2 grafikoa). Mugagabeko kontratuak gutxitu dira, ia %35etik %31ra eta aldi baterako kontratuak ugariatu dira %46tik %54ra. Datu horiek indartzen dute azken lau urteotan gazteriarengan eragina duen ezegonkortasuna gehitu delako hipotesia.

1.2 grafikoa: Lan egonkortasuna: kontratu motak (Datu konparatiboak: 2000 – 2004)



Aldagai hau sexuaren arabera ere azter daiteke. Horrela eginda ikusten da emakumea dela, berriro ere, mugagabeko kontratu gutxien dituen (emakumezkoen %28k eta gizonezkoen %33), 2000 urtean gertatzen zen moduan. Dena dela, bost puntutako alde hori orain dela lau urtekoarenaren erdia da. Aldi berean ikus daiteke emakumezkoen eta gizonezkoen artean aldi baterako kontratuen ehunekoak parean daudela. Datuak ikusita ondorioztatu ahal da kontratuei dagokienez emakumezkoen egoerak arinki txarrera egin duela, baina gizonezkoengan ezegonkortasun horrek eragin handiagoa izan duela, beraz orain talde bien arteko aldeak txikiagoak dira.

Adinari dagokionez, gazteak heldutasunera hurbildu ahala beren lan-egonkortasuna handitzen doa, mugagabeko kontratuak areagotzen baitira (%40ra) eta aldi batekoak (nahiz eta oraindik gehiago izan) gutxitu %47ra (aldi batekoak %67ra heltzen dira nerabeen artean). 15-19 urteko gazteek gainontzekoek baino noizbehinkako lan gehiago dituzte (nerabeen %22k) eta mota horretako lanak desagertzen doaz adina igo ahala (%3k helduenen artean).

Kasu honetan ez dira alde handiak agertzen Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako gazte- en artean: herrialde guztietan aldi baterako kontratuak mugagabekoak baino ugariagoak dira eta mota bakoitzeko kontratuen ehunekoak ere antzekoak dira. Datu horiek orain dela lau urtekoekin konparatuz gero, orain hiru lurraldeetan mugagabeko kontratu gutxiago dagoela dakusagu. Alderik aipagarriena, bai lehen bai orain, hauxe da: Gipuzkoan gazte gehiago animatzen dela bere lanpostua sortzen; noizbait lanean izandako gazteen %8, hain zuzen ere (Arabako %5 eta Bizkaian bakarrik %2 izanik).

1.3.2. Lanaldia

Lanaldi mota, egun osokoa edo ordukakoa, da EAeko gazteek lanean izandako baldintzei buruzko irudia eman dezakeen bigarren elementua. Zentzu horretan (1.8 taula) orduka lan egiten dutenen edo egin izan dutenen ehuneko gehitu egin da 2000ko %26tik 2004ko %33ra. Azken datu hori %45era igotzen da emakumezkoen kasuan. Ordukako lanaldia duten gizonezkoak ere gehitu dira azken lau urteotan (orain %21 dira eta 2000an %17 ziren).

1.8 taula: Lanik egi(te)n duten euskal gazteen lanaldia *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Egun osokoa.....	65	78	53	39	65	72	73	65	62
Ordukakoa.....	33	21	45	60	35	26	25	34	36
Ed/Ee.....	1	1	1	2	0	2	1	1	2
Guztira ehunekotan..	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan..	999	502	497	97	431	470	144	519	336

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

Adin taldeen arabera aztertuta garrantzitsua da honakoa esatea: gazteak zenbat eta helduagoak izan orduan eta gehiago ordezkatzeko dira ordukako enpleguak apurka-apurka egun osoko enpleguengatik, horrela lanean ari diren edo ziren 25-29 urte bitarteko gazteen %72k egun osoko enpleguak dituzte eta, horien aurrean, bakarrik 15-19 urte bitartekoek %39k. Dena dela, orain dela lau urtetik hona ordukako enpleguak ugartu dira, batez ere, gazteenen kolektiboan, zeinetan 2000ko %46tik 2004ko %60ra pasatu baita.

Horrek ez du iragartzen adinean igo ahala ordukako kontratuak egun osoko kontratueta-tik pixkanaka ordezkatzeko orain arte izandakoen moduko aukera positiborik.

Lurraldeak direla eta, 2000rekin konparatuz alde garrantzitsua nabaritu da. Orain dela lau urte Gipuzkoak daturik positiboan bazituen ere, orain Araba da egun osoa lan egiten duten edo zuten gazte gehien duen lurraldea (%73k), Gipuzkoarekin hamaika puntutako aldea izanik (%62k).

1.3.3. Lanaren ezaugarriak

Azkenik, interesgarria da ahal den neurrian euskal gazteriaren lana definitzen duten ezaugarriak deskribatzea.

Oro har, lanean izandako euskal gazteek uste dute beren enplegua(k) honelakoak direla edo zirela: oso edo nahikoa interesgarriak (%60ren ustez), gaituak edo kualifikatuak (%58), egonkorak (%54), etorkizundunak (%52), eta ondo ordainduak (%51). Dena den, oso edo nahikoa errepikakorrek direla edo zirela ere badiote (%61k, hain zuzen ere). Bestalde, ikus daiteke euskal gazteriaren enpleguak batere edo bakarrik pixka bat estresagarriak direla (%62) eta batere edo pixka bat arriskutsuak (%84). Hala ere, ez du ematen oso lo-tuak direnik jasotako formazioarekin (lanean dabiltzanen edo lehen ibiliak direnen %56k uste dute beren lanek ez daukatela lotura handirik euren formazioarekin).

1.9 taula: Euskal gazteriaren lanaren ezaugarriak *

		GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
			Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
LAN KUALIFIKATUA	Oso	15	15	15	5	11	21	15	13	18
	Nahikoa	43	46	39	33	44	44	42	43	43
	Pixka bat	29	27	30	39	31	24	30	32	22
	Batere ez	11	10	13	18	13	9	10	10	15
	Ed/Ee	2	2	2	5	1	2	3	2	2
LAN INTERESGARRIA	Oso	16	16	16	13	15	18	11	13	23
	Nahikoa	44	46	42	45	41	47	48	44	42
	Pixka bat	28	28	28	26	33	25	30	31	23
	Batere ez	10	8	11	14	11	8	9	10	10
	Ed/Ee	2	1	2	3	1	2	2	2	1
LAN ERREPIKAKORRA	Oso	19	18	20	22	20	17	22	18	18
	Nahikoa	42	44	40	41	44	40	37	49	33
	Pixka bat	25	23	27	18	23	28	31	22	28
	Batere ez	12	13	11	15	11	13	8	9	20
	Ed/Ee	2	2	2	4	1	2	2	2	1
LAN ESTRESAGARRIA	Oso	12	9	15	13	10	13	16	10	13
	Nahikoa	25	26	24	19	23	28	22	28	21
	Pixka bat	41	41	40	47	43	38	46	41	38
	Batere ez	21	23	19	19	22	19	14	19	26
	Ed/Ee	2	1	2	3	1	2	2	2	1
LAN ARRISKUTSUA	Oso	3	5	2	3	3	3	3	3	4
	Nahikoa	12	18	6	7	10	15	14	12	11
	Pixka bat	37	35	38	43	38	34	43	36	34
	Batere ez	47	41	53	45	48	46	38	47	50
	Ed/Ee	2	1	2	3	1	2	1	2	1

1.9 taula: Euskal gazteriaren lanaren ezaugarriak * (jarraipena)

		GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
			Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
LAN ETORKIZUNDUNA	Oso	16	19	13	10	15	19	13	15	20
	Nahikoa	36	39	33	26	32	42	40	37	33
	Pixka bat	22	21	24	25	24	20	24	22	23
	Batere ez Ed/Ee	23 3	19 3	27 2	36 3	26 3	17 3	20 3	24 3	22 2
FORMAZIOAREKIN LOTUTAKO LANA	Oso	23	22	25	14	24	25	19	23	26
	Nahikoa	18	22	15	9	17	22	19	19	18
	Pixka bat	19	20	19	17	20	19	18	23	14
	Batere ez Ed/Ee	37 2	36 1	39 2	57 3	39 1	32 2	43 2	34 2	41 1
LAN EGONKORRA	Oso	17	19	14	9	14	21	16	14	20
	Nahikoa	37	41	33	23	38	40	39	37	36
	Pixka bat	25	23	27	30	26	22	24	27	22
	Batere ez Ed/Ee	19 2	16 2	23 3	35 3	21 1	15 3	18 3	20 2	20 2
LAN ONDO ORDAINDUA	Oso	10	11	9	12	9	11	9	9	13
	Nahikoa	41	47	36	39	43	41	43	39	44
	Pixka bat	35	31	38	33	36	34	38	37	29
	Batere ez Ed/Ee	12 2	9 2	15 2	12 4	11 1	13 2	9 1	13 2	12 1
Guztira ehunekotan		100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan		999	502	497	97	431	470	144	519	336

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei edo lehen izandakoei.

Gai honetan generoa faktore bereizgarritzat agertu zaigu (1.9 taula). Horrela, gizonezkoek emakumezkoek baino neurri handiagoan uste dute beren lana aditua dela (%61k eta %54k, hurrenez hurren), interesgarria dela (%62 eta %58), etorkizunduna (%58 eta %46), egonkorra (%60 eta %47) eta ondo ordaindua (%58 eta %45). Aipatzekoa da ere euskal emakume gazteen lanak gizonezkoenak baino arrisku txikiagoa duela, batzuk eta besteak diotenen arabera (gizonezkoen %23k beren lana arriskutsua dela diote eta bakarrik emakumezkoen %8k).

Adin taldeen emaitzak ikusita, ondorioztatu ahal dugu nerabeek dauzkatela gutxien lan adituak, etorkizundunak, egonkorrak eta formazioarekin lotuak, baita arriskutsuak eta estresagarriak ere. Heldutasunetik gertuen dagoen adin taldea lanik adituenetan, interesgarrienetan, etorkizundunetan, egonkorrenetan eta jasotako formazioarekin lotuenetan mugitzen da, baita estresagarrienetan eta arriskutsuenetan ere.

Lurraldea dela eta, Gipuzkoako gazte langileen lanak Arabakoena eta Bizkaikoena baino apur bat adituagoak eta interesagarriagoak dira, ez hain errepikakorrek, formazioarekin lotuagoak, zertxobait hobeto ordainduak eta ez hain estresagarriak. Bestalde, Bizkaiko gazteek egiten dituzte lanik errepikakorrenak.

Azkenik, EAeko gazteriaren lan mota deskribatzean, oraingo enpleguarekiko poztasuna hartu da kontuan. (1.10 taula).

Aipatzekoa da orain lana daukan euskal gazteriaren %50ek ahal balute lanez aldatuko luketela. Ehuneko hori %53ra igotzen da emakumezkoen kasuan eta %61era 15-19 urte bitarteko nerabeenean. Lurraldeka, Gipuzkoako gazteak ematen dute oraingo enpleguare-

kin pozen daudenak, bakarrik horien artean diote gehienek (%53k) bila zebiltzan lana dutela.

1.10 taula: Oraingo lanarekiko poztasuna *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Bila nembilen lana daukat	44	46	41	31	43	45	42	38	53
Ahal banu lanez aldatuko nuke	50	48	53	61	50	49	54	53	44
Ed/Ee	6	7	6	8	7	6	4	9	4
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	691	356	335	41	279	373	107	356	227

* Galdera hau bakarrik egin zaie orain lana daukatenei.

1.4. AUTO-ENPLEGUAREKIKO JARRERAK

Ikertean jasotako datuen arabera (1.11 taula) esan dezakegu, gaur egun, auto-enplegua ez dela aukera egingarria euskal gazteria lan-merkatutzeko, jarduera horri ekiteko gogoia ez baitago oso zabalduta.

1.11 taula: Auto-enpleguarekiko jarrerak. Inoiz pentsatu duzu zure lanpostua sortzea?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LAN EGOERA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanetan**
Ez dut inoiz pentsatu	65	65	65	74	65	59	72	59	63	71
Ez dut oraindik pentsatu baina etorkizunean pentsatu beharko dut agian	10	10	10	9	11	8	10	10	6	2
Benetan pentsatzen ari naiz	7	7	7	6	7	6	6	7	8	0
Pentsatu dut, baina ez egitea erabaki dut	14	14	14	8	14	19	9	17	21	21
Autonomia, profesional liberala edo enpresaria naiz jadanik	3	3	3	1	2	7	1	6	1	0
Ed/Ee	1	1	1	3	0	1	2	1	0	6
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	642	691	132	23

* "Lanean" kategorian lana eta ikasketak bateratzen dituztenak ere barne daude.

** Etxeko lanetan dihardutenen datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi jaso baitira.

Hasiera batean, gazte gehienek ez dute adierazten auto-enpleguarekiko oso jarrera prestua, %65ek baitiote ez dutela aukera horretaz pentsatu lan-merkatuan sartzeko bide baten moduan eta %14k, nahiz eta pentsatu duten, erabaki baitute ez egitea. Horien aurrean bakarrik %7 dabil benetan pentsatzen eta beste %3 bada autonomia, beste %10ek behar bada etorkizunean kontuan izango dutela diote.


Gai honetan generoak ez dakar alde esanguratsurik, gizonezkoek eta emakumezkoek pareko ehunekoak baitituzte auto-enpleguarekiko jarrera ezberdinetan.

Aukeratutako adin talde ezberdinen arabera, heldutasunetik gertuen daudenek neurri handiagoan eraman dute praktikara auto-enplegua. Horiek ere, nahiz eta uko egin, horretaz gehien pentsatu dutenak dira.

Langabezian dauden gazteen artean, zeinentzat hori enplegua lortzeko bidea izan litekeen, ez dago aukera horretarako gogo handirik: bakarrik horietako %8 ari da benetan aukera horretaz pentsatzen, %6k agian etorkizunean pentsatu beharreko gaia dela uste dute, baina gehienek, %63k, ez dute inoiz horretaz pentsatu eta %21ek, nahiz eta pentsatu, ez egitea erabaki dute.

2000 urteko datuekin konparatuta (1.3 grafikoa),⁴ ikus daiteke orain auto-enpleguak orain dela lau urte baino onespén txikiagoa duela.

1.3 grafikoa: Auto-enpleguarekiko jarrerak. Inoiz pentsatu duzu zure lanpostua sortzea?
(Datu konparatiboak: 2000 – 2004)




Laburbilduz (1.4 grafikoa),⁵ auto-enpleguak ez du onespén handirik gazteriaren artean, 25-29 urte bitartekoak eta lanean dabiltzanak direlarik norberaren lanpostua sortzearen aldeko jarrerarik positiboena agertzen dutenak.

⁴ Grafikoa erabili diren "positiboa", "zalantzakoa" eta "negatiboa" kategoriak galdesortako 14. galderaren erantzunak gehituta sortu dira eta horrela geratu dira: *Positiboa* "Benetan pentsatzen ari naiz", "Autonomia naiz jadanik", *Zalantzakoa* "Ez dut oraindik pentsatu baina etorkizunean pentsatu beharko dut agian", "Ed/Ee" eta *Negatiboa* "Pentsatu dut baina ez egitea erabaki dut", "Ez dut inoiz pentsatu".

⁵ Kategoriak aurreko grafikoarenak bezalakoak dira.

1.4 grafikoa: Auto-enpleguarekiko jarrera generoa, adin taldeak eta lan egoeraren arabera*



* "Lanean kategorian lana eta ikasketak bateratzen dituztenak ere barne daude. Bestalde, etxeko lanetan dihardutenen datuak ez dira komentatuko, oso lagun gutxi jaso baitira laginean.

1.5. LAN-MUGIKORTASUNERAKO PRESTUTASUNA

Azkenik, lan arrazoiengatik euskal gazteek beren bizilekua aldatuko ote luketen aztertuko dugu. Euskal gazteriaren %68k lan arrazoiengatik bizilekuaz aldatuko luketela diote, baina horretarako baldintza ezberdinak ezartzen dira (1.12 taula)⁶: %22 munduko edozein lekutara joango lirateke, %19 bakarrik Euskal Herriaren barruan jarraituko balute mugituko lirateke, apur bat gutxiago, %15, prest leudeke Espainiako Estatuan jarraituz gero, eta azkenik inguruko udalerriren batera joango liratekeenak (%7) eta Europar Batasuneko edozein lekutara joango liratekeenak (%5) daude.

Bestalde, %17 zalantzi agertu zaizkigu bizilekua aldatzeko eta %13k argi diote ezetz, ez luketela bizilekua aldatuko lan interesgarria eskaintzen badiete ere.

Lan-mugikortasunerako prestuen daudenak klase sozial altukoak eta langabezian daudenak dira (talde bietan %78). Erreparorik handienak jarriko lituzketenak 24 urtetik gorakoak eta orain lanean dabilzanak dira (%18 eta %17, hurrenez hurren, ez lirateke inola ere mugituko).

⁶ Galdesortako 15. galderaren erantzunak batu egin dira lau kategoriatan: *Bai* "munduko edozein lekutara", "Europar Batasuneko edozein lekutara", "Espainiako Estatuaren barruan izanez gero", "Euskal Herriaren barruan izanez gero", "inguruko udalerriren batera bada", *Nora izatearen arabera* "ez nago ziur", "segun eta", *Ez* "ez, inola ere ez", *Ed/Ze*.

1.12 taula: Lan arrazoiengatik bizilekua aldatzeko prestutasuna


	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA			LAN EGOERA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Erdikoa	Baxua	Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanetan**
Bai	68	68	70	68	71	66	78	67	68	69	66	78	50
Ez nago ziur	17	18	17	19	18	15	11	18	19	20	16	12	18
Ez	13	15	11	9	11	18	11	13	13	8	17	9	27
Ed/Ee	2	2	2	4	1	1	0	2	1	3	1	2	5
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109	642	692	133	22

* "Lanean" kategorian lana eta ikasketak bateratzen dituztenak ere barne daude.

** Etxeko lanetan dihardutenen datuak ez dira komentatuko oso lagun gutxi jaso baitira laginean.

1.5 grafikoa ikus daitekeenez, eskal gazteriak orain dela lau urte baino apur bat prestutasun txikiagoa adierazten du bere bizilekua aldatzeko.

1.5 grafikoa: Lan arrazoiengatik bizilekua aldatzeko prestutasuna
(Datu konparatiboak: 2000 – 2004)



ONDORIOAK

- Azken lau urteotan langabeziak beherantz egin du eta bere eragina zerbait handiagoa da 25-29 urte bitarteko gazteengan.
- Euskal gazteek nahiago dute zuzenean norberak lana bilatzea edo familiarterko edo lagunengan jotzea enplegua lortzeko. ABLEtara gutxik jotzen dute baina egiten dutenak batez ere 15-19 urte bitarteko gazteak dira.
- Lanik duten edo izan duten gazteen lan baldintzen ezaugarriak ezegonkortasunaga eta prekaritatea izaten jarraitzen dute: noizbait lanean izandakoen %60k sei hilabete baino gutxiagoko kontraturen bat izan dute (zifra hori %82ra igo-tzen da 20 urtetik beherakoen artean), dena den, %58k urtebete baino gehiagoko kontraturen bat izan dute; bestalde %55ek urtebete baino gutxiago daramate edo eman zuten azken enpleguan eta bakarrik %31k daukate edo zeukaten mugabeko kontratua.
- Prekaritatea 2000tik hona nabarmen igo da. Egoera honek eragin handiagoa du emakumeengan, dena den, aipatzekoa da emakumeak eta gizonak parekatzen doazela gai honetan. Parekotasun horrek ez dakar nesken egoeraren hobetzea baizik eta mutilenena txartzea.
- Gazteenen taldeak (15-19 urte bitartekoenak, hain zuzen ere) aldi baterako edo noizbehinkako lan gehiago dauzka eta, beraz, sei hilabete baino denbora gutxiagoko kontratu gehiago baita ordukako kontratu gehiago ere. Horren arrazoia izan daiteke bai lan-merkatuan eskastasun handiagoa dagoelako, bai ikasketak eta formazioa mantentzeko aukera ematen duten lanak (aldi batekoak, noiz-behinkakoak edo ordukakoak) hartzen dituztelako.
- Noizbait lanik egin duten gazteek, oro har, uste dute beren azken lanak interesgarriak, adituak eta etorkizundunak (izan) direla; dena den gehienek errepikakor-rrak edo euren formazioarekin ez oso lotuak direla ere uste dute. Gizonezkoek emakumezkoek baino neurri handiagoan diote lan kualifikatuak, etorkizundu-nak, interesgarriak, egonkorak eta ondo ordainduak dituztela edo zituztela. Bestalde, neskek ez daukate mutilek bezain lan arriskutsuak baina beren lanak ez daude mutilenak bezain lotuak jasotako formazioarekin. Dena dela, EAEko gazteriaren erdiak baino gehiagok aldatuko luke lanaz ahal izanez gero.
- Oro har, auto-enplegurako aukerak ez du arrakasta handirik gazteen artean, orain dela lau urte baino are gutxiago. Gai honetan jarrerarik positiboena dute-nak heldutasunetik gertuen dauden gazteak eta lanean dabiltzanak dira. Ez du ematen langabezian daudenek aukera horretan benetan pentsatzen ari direnik.
- Lan arrazoiengatik bizilekua aldatzeko prestutasuna zabaldua dago gazteen artean, dena den, bost gaztetatik bat bakarrik dago prest munduko edozein leku-tara joateko lan interesgarriaren truke. Bizilekua aldatzeko prestuen daudenak klase sozial altukoak eta langabezian daudenak dira. Erreparorik handienak jar-tzen dituztenak, aldiz, 24 urtetik gorakoak dira.



2

Familia

2.1. SARRERA

Gizartea aldatzen eta eraldatzen joan den neurrian horrela egin du ere familiak, bertan gune zentrala hartzen duenez honen barnean izaten diren aldaketa guztiek eragiten baitiote.

Gazteriari buruzko ikerketak familien funtzionamendu eredu batzuk agerian uzteko bideak dira. Gaur egun gure inguruan gero eta gehiago luzatzen da gazteen egonaldia gurasoen etxean; hori, neurri handi batean, familiarekiko menpekotasun ekonomikotik dator, gazteak oso berandu sartzen baitira lan-merkatuan, lana lortzen dutenean oso egonkortasun gutxi baitute eta etxebizitzak garesti baitaude, besteak beste. Gauzak horrela, 2002an EUSTATEk egindako Inkesta Demografikoan nabaritzen zen 1996-2000 bitartean familiaren etxea uzteko batezbesteko adina 29 urtetakoa zela; hogeï urte lehenago adin hori 24 urtetakoa izanik.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAEn) jaiotza-tasak Estatukoak eta Europakoak baino baxuagoak dira. Hain zuzen ere, belaunaldien ordezkapenerako ugalkortasun tasak emakume bakoitzagatik 2,1 seme-alabakoa behar du izan; Euskadin 80 hamarkadaren erditik hona, gutxi gorabehera, tasa hori baxuagoa da eta (15-49 urteko) emakume ugalkor bakoitzagatik seme-alaba batera ez da iristen, datu ofizialen arabera. Tasa hori ez bada aldatzen 25 urte barru EAeko populazio gaztea (0-20 urtetakoa) biztanleria osoaren %17a baino ez da izango (1991n %25a inguru zenean).¹

Etxeko lanen banaketa ere oso gai esanguratsua da, emakumeak lan-merkatuan sartu diren ahala familiak antolaketa berria eskatzen baitu, familia eta lan-mundua bateratu ahal izateko.

Atal honetan euskal gazteriaren egoera familiarra aztertuko da, zehatzago familiari dagozkion ondoko alderdi azpimagarriak:

- ▶ Familia-egoera.
- ▶ Emantzipazioa.
- ▶ Familiarekiko jarrerak.

¹ OLABE, Antxon. "Demografía y Medio Ambiente. El envejecimiento de las ideas", en *Revista Nueva Época*, aldizkaria, 3. zenbakia, 2003ko uztaila-iraila.

2.2. FAMILIA-EGOERA

2.1 taulan ikus daitekeenez, EAeko 30 urtetik beherakoen %90 ezkongabe daude, batez ere gizonezkoak. Hori mutilak neskak baino apur bat zaharrago ezkondu edo bikotekidearekin bizitzen hasten omen direlako azal daiteke.

Ikerketako laginean arreta jarrita, ikus daiteke nola gazteak batez ere 25 urteak bete ondoren hasten diren ezkontzen eta bikotekideekin bizitzen. Dena dela, 25-29 urte bitartean %70ek baino gehiagok oraindik ezkongabe jarraitzen dute. Bukatzeko, aipatzekoa da 24 urtetik gorakoen artean %1 banandua edo dibortziatua dagoela.

Klase sozialari begiratuta, hori segmentazio faktore interesgarria dela agertzen zaigu. Horrela, klase sozial altuko euskal gazteria denbora luzeagoan mantentzen da ezkongabe, eta klase baxukoak dira lehenago ezkontzen direnak eta, batez ere, bikotekideekin bizitzera doazenak.

Nahiz eta datu hauen arabera euskal gazteek bikotekideekin elkarbizitza (ezkontuta zein ez) atzeratzen dutela pentsa daitekeen, garrantzitsua da esatea ezkongabeen ehunekoa 2000 urtean izan zen baino bost puntu baxuagoa dela orain, ezkonduak bi puntu gehitu direla eta elkarrekin bizi diren bikoteak 3,3 puntu.

2.1 taula: Familia-egoera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Erdikoa	Baxua
Ezkongabea	90	93	86	99	96	73	96	90	79
Ezkondua	5	3	7	0	2	13	3	5	8
Bikotekidearekin bizitzen.	5	4	7	1	2	13	2	5	12
Banandua, dibortziatua	0	0	0	0	0	1	0	0	1
Alarguna	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109

2.3. EMANTZIPAZIOA

2.3.1. Emantzipazioa adina

Ikerketaren emaitzen arabera (2.2 taula) inkestatutako gazte gehienak (%84) familia-rekin bizi dira (ehuneko hori %88ra igotzen da gizonezkoen kasuan). Horrela, emakume gazteak gizonak baino lehenago emantzipatzen direla ondorioztatu ahal da.

Bestalde, argi ikusten da, logikoa denez, adina oinarriko faktorea dela euskal gazte-riaren emantzipazioa aztertzean. Horrela, argi dago gazteenak gehiago bizi direla beren familiekin (%98) eta adina igo ahala badoazela gurasoengandik independizatzen, 25-29 urte bitartean familiarekin bizi direnen ehunekoa %65era jaitsiz.

2.2 taula: Hauetako zein egoera da zurearen antzerakoena?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Erdikoa	Baxua
Nire familiarekin bizi naiz (gurasoak, neba-arrebak,...)	84	88	81	98	90	65	88	85	70
Nire familiaren etxea ez den beste batean bizi naiz	14	11	17	1	7	32	8	13	28
Astegunetan erresidentzia batean edo familiarena ez den beste etxe batean bizi naiz, asteburuetan eta oporretan familiarekin.....	1	1	1	0	2	1	0	1	0
Beste egoera bat	1	1	1	0	1	2	4	1	1
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109


Klase soziala ere kontuan izateko aldagaia da: ikerketan nabaritzen da klase sozial altuko gazteak denbora luzeagoa bizi direla familiarekin (%88) klase sozial baxukoak baino, azken horien artean %28 familiaren etxea ez den beste batean bizi dira.

Horrela baieztatu daiteke emantzipatutako euskal gazteak batez ere hauexek direla: emakumezkoak, helduarotik gertuen daudenak (25-29 urte artekoak) eta klase sozial baxukoak.

Euskal gazteriaren egoera Estatuko gainontzeko gazteenarekin alderatzen badugu (*Sondeo sobre la juventud española, 2003 – CIS*) Euskadin gurasoen etxean bizi diren gazte gehiago daudela ondorioztatzen da (2.1 grafikoa).

2.1 grafikoa: Hauetako zein egoera da zurearen antzerakoena?

(Datu konparatiboak: EAE – Estatua)



Familiaren etxean bizi ez direnei zenbat urterekin independizatu ziren galdetu zaie. Horrela 2.3 taulan ikus daiteke emantzipatutako gazteen %24 15-19 urte bitartean irten

zirela familiaren etxetik, %35 20-24 urte bitartean eta %41ek 24ak pasatu arte itxaron zutela.

2.3 taula: Euskal gazteriaren emantzipatzeko adina *

	GUZTIRA	SEXUA		KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Altua	Erdikoa	Baxua
15 - 19 urte	24	24	24	16	23	30
20 - 24 urte	35	25	41	34	35	37
25 - 29 urte	41	51	35	50	42	33
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	207	80	127	117	1.265	109

* Galdera hau bakarrik familiaren etxea ez den beste batean bizi direla diotenei galdetu zaie.

Sexuaren arabera agertutako aldeak ere garrantzitsuak dira. Gizonezkoak beranduago burujabetzen dira, horien artean %51 25-29 urte bitartean irten baitziren gurasoen etxetik, emakumezkoen kasuan, ordea, %35 bakarrik joan ziren urte horiekin. Emakumezkoak batez ere 20-24 urte bitartean emantzipatu dira (%41).

Klase sozialaren araberrako datuak ere bitxiak dira. Ikerketaren emaitzek esaten digute burujabetutako klase altuko euskal gazteen %50 25-29 urte bitartean irten zirela gurasoen etxetik, eta klase baxuko kasuan ehuneko hori %33ra jaisten da. Horrela ondorioztatatu ahal da klase altukoak beranduago burujabetzen direla eta klase baxukoak lehenago.

2.3.2. Emantzipatzeko zailtasunak

Orain arte aztertutako emaitzen arabera euskal gazte gehienak familiarekin bizi direla eta emantzipatuz gero berandu egiten dutela ondorioztatatu ahal da. Jokaleku horren aurrean beharrezkoa da aztertzea familiaren etxetik irteteko zeintzuk diren zailtasunik garrantzitsuenak.

2.4 taula: Emantzipatzeko zailtasunak *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua
Etxebizitza erostea edo alokatzea garestia dela	89	90	88	78	96	90	92	89	86	82	89	90
Diru-sarrera propioak izateko zailtasunak .	71	68	74	72	80	60	72	77	72	60	73	69
Erosoago bizi dela familiarekin	36	40	32	50	36	25	32	33	43	38	36	32
Familia aurka egotea	7	6	8	16	5	1	5	7	7	4	7	6
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	117	1.265	109

* Galderak banan-banan egin dira. Agertutako ehunekoak bakoitzarekiko baiezko erantzunei dagozkie.

Gazteen erantzunak aztertuta (2.4 taula) egiaztatzen da arrazoi ekonomikoak direla nagusienak, orain dela lau urte gertatzen zen moduan. Horrela, EAeko gazteen %89k

etxebizitza erostea edo alokatzea garestia dela diote. Etxebizitzaren prezioa dela eta arazo gehien dituztenak arabarrak dira, horien %92k aipatzen baitute, eta 20-24 urtetako gazteria; klase sozial altukoak dira, ordea, gutxien aipatu dutenak (%82).


Bigarren arrazoirik garrantzitsuena diru-sarrera propioak izateko zailtasuna da, hori %71k aipatu baitute. Kasu honetan sexua, adina eta lurraldea faktore esanguratsuak dira, zailtasun hori emakumezkoek, erdiko adin taldekoek (20-24 urtekoek) eta Bizkaiko gazteek aipatu dute gehien.

Bestalde, euskal gazteen %36k familiarekin erosoago bizitzea ere burujabetzeko zailtasun handia dela diote. Erosotasun sentimendu hori gehiago nabaritzen da gizonezkoen artean (%40), gazteenen artean (%50) eta gipuzkoarren artean (%43). Alderantziz, iritzi hori gero eta gutxiago aipatzen da gazteak heldu ahala eta burujabetzeko errealitateari aurre egiten zaionean. Horrela, 25-29 urte bitarteko gazteen artean bakarrik lautik batek uler-tzen du familiarekin bizitzearen erosotasuna burujabetzeko zailtasun moduan, nerabeen erdien aurrean.

Bukatzeko, oro har euskal gazteriak ez du burujabetzeko oztopo handirik izaten familiaren aurkakotasunean. Izatez, bakarrik %7k diote horrela dela, baina 15-19 urtetako-koen kasuan aipamenak %16ra heltzen dira.

Datu horiek orain dela lau urtekoekin konparatuz gero, ondorioztatu ahal da orain EAEko gazte gehiagok komentatzen dutela gurasoen etxetik irteteko arazorik handiena diru-sarrera propioak izateko zailtasuna dela. Horrek ez du esan nahi etxebizitzaren garestitasuna bigarren lekuan geratu denik, oraindik lehenengoan baitago. Konparazioarekin jarraituz, gurasoen etxean bizitzearen erosotasuna pisua galtzen doa eta familiaren aurkakotasuna lehen izandako maila berean mantentzen da (2.2 grafikoa).

2.2 grafikoa: Emantzipatzeko zailtasunak
(Datu konparatiboak: 2000 – 2004)



Datu horiek Europako Batzordeak (Hezkuntza eta Kulturaren Direktorio Orokorra, Gazteria Saila) eginiko *Young Europeans in 2001: Results of a European opinion poll* izeneko 151. Eurobarometro berezian izandakoekin ere konpara daitezke. Kasu honetan euskal gazteen eta Europako gazteen iritziak nahikoa antzerakoak dira, Europako %37k erosotasuna aipatzen baitute familiaren etxean denbora luzeagoan bizi izateko eta %67k uste baitute arrazoi ekonomikoak direla burujabetzeko zailtasunik handienak.

Emantzipazioaren gaiarekin jarraituz, euskal gazteriari aukeratu ahal izanez gero non nahiago lukeen bizi galdetu zaio (2.5 taula). Lehen aipatu den bezala, gazte gehienak euren familiarekin bizi dira eta gurasoengandiko independentzia berandu gertatzen da, horretarako zailtasunak garrantzitsuak izanik. Baina ematen du EAEko gazteriaren benetako gogoia familiaren etxetik irtetea dela eta horrela diote %70ek; horien aurrean %21 bakarrik geratuko litzateke gurasoen etxean aukeratu ahal izanez gero.

Datuek diotenaren arabera, gazteenak dira gurasoen etxean neurri handiagoan geratuko lirakeenak (%40), nahiz eta euren artean ere gehiago izan familiaren etxetik irten nahi dutenak (%47). Helduarora hurbildu ahala independentzia nahia handitu egiten da eta 25-29 urtekoen artean %85era igotzen da ehuneko.

Klase soziala, berriro, aldagai interesgarri agertu zaigu. Horrela, ikus daiteke klase baxuko gazteek neurri handiagoan nahiago dutela emantzipatu (%74) eta klase altukoek, berriz, gurasoen kabitik irteteko gogo gutxiago adierazten dutela (%68).

2.5 taula: Non bizi zena nahiago zenuke?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua
Familiarekin (gurasoak, neba-arrebak,...)	21	22	20	40	19	8	21	21	21	21	21	20
Familiarengandik aparteko etxe batean	70	70	71	47	75	85	72	71	68	68	71	74
Astegunetan erresidentzia batean edo familiarengandik aparteko etxe batean eta asteburuetan eta oporretan familiarekin	5	5	5	9	4	4	4	4	8	8	5	1
Beste leku batean	1	1	1	1	1	1	2	1	1	1	1	1
Ed/Ee	2	1	3	3	1	2	1	3	1	2	2	4
Guztira ehunekotan ..	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan...	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	117	1.265	109

2.3.3. Independentzia ekonomikoa

Atal honetan zehar argi geratu da euskal gazteriaren nahia, oro har, emantzipazioa lortzea dela, nahiz eta dauden zailtasunek (batez ere etxebizitzaren garestitasuna eta diru-sarrera propioak izateko zailtasunak) asko luzatzen duten gurasoen etxetik irtetzea. Ildo horretan garrantzitsua da aipatzea bakarrik euskal gazteen %26 bizi direla nagusiki edo erabat beren diru-sarrera propioetatik, beren bikotekideenetatik edo bikotekidearekin banatuta, eta gainontzekoak (%73) familiaren dirutik o familiarekin partekatuta bizi direla (2.6 taula).

Diru-sarreraren arteko aldeak oso argi agertzen dira adinaren arabera datuak aztertzen baditugu. Horrela, 15-19 arteko adin taldean %90 bakarrik familiaren diru-sarreretatik bizi dira, eta ehuneko hori %14ra jaisten da 24 urte gainditu dituztenen artean. Azken adin talde horretan (24 urte baino gehiagokoena) %53 beren diru-sarrera propioetatik edo/eta bikotekidearenetatik bizi dira (2.6 taula).

2.6 taula: Independentzia ekonomikoa

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EGOERA FAMILIARRA			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkongabea	Ezkondua	Bikotekidearekin	Altua	Erdikoa	Baxua
Nire familiaren diru-sarreretatik bizi naiz nagusiki edo erabat.....	48	47	50	90	48	14	54	1	1	53	50	25
Neure eta nire familiaren diru-sarreretatik erdibana bizi naiz.....	25	25	24	6	31	32	27	0	1	24	24	29
Nire diru-sarreretatik bizi naiz nagusiki edo erabat	17	22	12	2	17	31	17	14	20	16	16	28
Neure eta nire bikotekidearen diru-sarreretatik erdibana bizi naiz.....	7	4	10	0	3	17	1	56	59	4	7	11
Nire bikotekidearen diru-sarreretatik bizi naiz nagusiki edo erabat	2	1	4	1	1	5	0	23	18	2	2	4
Beste egoera batean.....	0	0	0	1	0	0	0	0	1	1	0	2
Ed/Ee	0	0	1	0	0	1	0	5	0	0	0	1
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	1.500	750	750	412	588	500	1.343	73	80	117	1.265	109

Sexuaren arabera alde handiak antzematen dira: emakumezkoak gizonezkoak baino neurri handiagoan bizi dira familiaren eta bikotekideen diru-sarreretatik edo azken honekin erdibana banatuta; gizonezkoak, berriz, neskak baino neurri handiagoan bizi dira beren diru-sarrera propioetatik (gizonezkoen %22 eta emakumezkoen %12).


Egoera familiarra kontuan hartuz, ikus dezakegu gazte ezkongabe gehienek (%54k) nagusiki familiaren diru-sarreretatik bizi direla diotela eta, alderantziz, ezkonduen artean edo bikotekidearekin bizi direnen artean gehienek (%56k eta %59k, hurrenez hurren) beren diru-sarreretatik eta bikotekidearenetatik erdibana bizi direla diote.

Klase soziala berriro agertzen zaigu gazteria bereizteko faktore argitzat. Klase baxuko gazteen %43k independentzia ekonomikoa lortu dute eta beren diru-sarrera propioetatik eta/edo bikotekidearenetatik bizi dira. Kasu berean dauden klase altuko gazteak, berriz, %22 dira bakarrik.

Euskal gazteriaren egoera eta Estatukoarena konparatzen baditugu (*Sondeo sobre la juventud española, 2003* – CIS) (2.3 grafikoa), Estatuko gazteek independentzia ekonomiko handiagoa dutela ikus daiteke, %48k nagusiki edo erabat beren diru-sarreretatik, beren bikotekidearenetatik edo bikotekidearekin erdibana izanik bizi direla baitiote. EAEn ehuneko hori %26koa da.

Independentzia ekonomikoa duten gazteei zein adinetan hasi ziren nagusiki beren diru-sarreretatik eta/edo beren bikotekidearenetatik bizitzen galdetu zaie aurrerago (2.7 taula). Datuak ikusita ondorioztatu ahal da talde horren ia erdiak (%48k) 20-24 urte bitartean lortu zuela independentzia ekonomikoa, eta ehuneko hori %52ra igotzen da nesken kasuan. Independentzia ekonomikoa lortutako mutilak emakumezkoak baino lehenago hasi ziren beraien edo beren bikotekidearen diru-sarreretatik bizitzen (%36 eta %24, hurrenez hurren, 15-19 urte bitartean).

2.3 grafikoa: Independentzia ekonomikoa²
(Datu konparatiboak EAE – Estatuak)



2.7 taula: Independentzia ekonomikoa lortu den adina *

	GUZTIRA	SEXUA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak
15 - 19	30	36	24
20 - 24	48	44	52
25 - 29	22	20	24
Guztira ehunekotan	100	100	100
Guztira absolututan	396	202	194

* Galdera hau bakarrik egin zaie beraien eta/edo beren bikotekideen diru-sarreretatik bizi direla diotenei

Dena dela, independentzia ekonomikoa diru-sarrera mailaren menpe dago neurri handian. Horrela, gazteriarri, batez beste, zenbat diru izaten duen hilean galdetu zaio (2.8 taula) eta ikus daiteke %52k 300 euro edo gutxiago izaten dutela, eta %15ek are gutxiago, ez da 60 eurotara iristen. Kontrako muturrean beste %15ek 900 euro edo gehiago izaten dituzte eta beste %15 600 eta 900 euro artean dabilta.

Dena dela, diru-sarrera maila ez da berdina gizonezkoen eta emakumezkoen artean, gizonezkoek diru-sarrera gehiago izaten baitituzte. Gauzak horrela, emakumezkoen artean 900 euro baino gehiago dutenen ehunekoa gizonezkoena baino baxuagoa da (%12 eta %18, hurrenez hurren), eta, aldi berean, 601 euro baino gutxiago dutenena altuagoa da (emakumezkoen artean %70 eta gizonezkoen artean %64).

² Grafikoa agertzen diren bi kategoriak ondoko erantzunak batuta sortu dira: "Independenteak" (beren diru-sarrera propioetatik, beren bikotekideenetatik edo eurenak eta bikotekideenak erdibana banatuta bizi dira) eta "Ez independenteak" (familiarren diru-sarreretatik edo horrekin erdibana banatuta bizi dira).

2.8 taula: Zenbat diru izaten duzu hilerro, batez beste?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LANBIDE EGOERA			
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29	Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanak**
60 euro baino gutxiago	15	15	16	44	8	1	32	1	10	4
61 eta 300 euro artean	37	36	38	47	46	18	61	12	53	4
301 eta 600 euro artean.....	14	13	16	4	16	20	4	23	20	25
601 eta 900 euro artean.....	15	14	15	2	16	23	0	28	9	34
900 euro baino gehiago	15	18	12	1	11	32	0	31	5	8
Ed/Ee	4	4	3	2	3	6	2	5	3	25
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	1.500	750	750	412	588	500	642	691	132	23

* "Lanean" kategorian kontuan hartzen dira ere aldi berean lanean eta ikasten dabiltzanak.

** Etxeko lanetan dihardutenen datuak ez dira komentatuko, oso lagun gutxi batu baitira laginean.

Adinaren arabera alde handiak daude. Logikoa denez, adina igo ahala eta lan-merkatuan sartu ahala diru-sarrera maila ere igotzen da. Horrela 15-19 urteko nerabeak eta ikasleak dira hilean 60 euro baino gutxiago neurri handienean izaten dituztenak: %44 eta %32, hurrenez hurren. Bestalde, 24 urtetik gorakoen eta lanean dabiltzanen artean gehienek (%55ek eta %59k, hurrenez hurren) hilean 600 euro baino gehiago izaten dituzte.

Orain dela lau urte 25 urte eta gehiago zutenen %20aren egoera kezkagarria aipatzen bazen, kolektibo horretan hilean 300 eurotik beherako diru-sarrerak zituztelako, gaur egungo egoera ez da askoz hobea, egoera horretan dagoen gazte kopurua %19an mantentzen baita.

2.4. FAMILIAREKIKO JARRERAK

2.4.1. Familiarekiko poztasun maila

Orain dela lau urte *Euskadiko Gazteak 2000* izeneko ikerketan ikusten zen bezala, orain ere ikusten da oso poztasun maila handia dagoela familiarekiko gazteen artean (2.9 taula): 30 urtetik beherako gazteen %97 oso edo nahikoa pozik daude duten familia bizitzarekin (%52 eta %45 hurrenez hurren), lehen izan zirenaren oso antzeko emaitzak.

2.9 taula: Zenbateraino zaude pozik gaur egun duzun familia bizitzarekin?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EGOERA FAMILIARRA		
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkongabea	Ezkondua	Bikoteki-dearekin
Oso pozik	52	49	54	53	53	49	50	66	64
Nahikoa pozik	45	47	43	44	44	47	47	33	32
Ez oso pozik	2	3	2	2	2	3	2	1	3
Batere pozik ez	0	0	0	0	0	1	0	0	1
Ed/Ee	0	0	0	1	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan ..	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan ..	1.500	750	750	412	588	500	1.342	73	79

Kasu honetan oso pozik dauden ehunekoak zertxobait altuagoak dira nesken artean (%54) mutilen artean baino (%49). Dena dela, oso edo nahikoa pozik dauden multzoa osorik hartuta ehunekoak oso antzerakoak dira kasu bietan.

Bestalde, ez da alde handirik nabaritzen adinaren arabera, ehunekoak antzerakoak baitira, dena dela 24 urte baino gehiago dauzkatenek besteak bezain pozik ez daudela ematen dute.

Azkenik, aipatzekoa da ezkonduak edo bikotekidearekin bizi direnek poztasun maila handiagoa adierazten dutela familiarekiko: ezkonduak dauden %66k eta bikotekidearekin bizi diren %64k oso pozik daudela diote (ezkongabeen artean ehuneko hori %50ekoa da).

2.4.2. Seme-alaben kopurua

Euskal gazteriaren inguru familiarra aztertzerakoan beharrezkoa da seme-alabarik ba ote duten (eta zenbat) aipatzea. Inkestatutako gazteen %4k bakarrik dituzte seme-alabak, hori, orain dela lau urteko emaitzekin konparatuz, ia puntu t'erdi gehiago da (2.10 taula).

2.10 taula: Zenbat seme-alaba dituzu?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EGOERA FAMILIARRA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkongabea	Ezkondua	Bikotekidearekin
Bat ere ez	96	99	94	100	99	90	99	46	86
Bat.....	3	1	5	0	1	8	1	42	12
Bi.....	1	0	1	0	0	2	0	10	2
Hiru	0	0	0	0	0	0	0	2	1
Guztira ehunekotan ..	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan ..	1.500	750	750	412	588	500	1.342	73	79

2000 urtean gertatu zen moduan, bitxia da alde handia topatzea generoen artean amatasuna/aitatasuna dela eta, gizon gazteek emakume gazteek baino seme-alaba gutxiago baitauzkate: emakumezkoen artean %6k eta gizonezkoen artean %1ek.

Adina beste aldagai interesgarri bat da. Argi dago seme-alabak izateko joera 25 urte-tik aurrera hedatzen dela eta ez lehenago: gazteen %10ek 25-29 urte bitartean izan dituzte seme-alabak eta %1ek eta %0k aurreko adin taldeetan. Era berean, 30 urte bete baino lehen seme-alabak izatea apur bat sarriago gertatzen da klase sozial baxuko gazteen artean (%6) klase altukoaren artean baino (%1), maizago baita ideologikoki eskuinean kokatzen diren artean (%8) ezkerrean kokatzen diren artean baino (%3).

Orain dela lau urte bezala, egoera familiarra erabakigarria da seme-alabak izateko. Horrela, bakarrik ezkongabeen %1ek diote seme-alabak dituztela, eta horien aurrean ezkonduen %54k (gainera ezkonduen artean %12k bi edo hiru seme-alaba dituztela diote). Bikotekidearekin bizi diren %15ek ere seme-alaba bat edo gehiago dituztela diote. Ondorioztatu ahal da, beraz, egoera zibila nahikoa erabakigarria dela aitasuna/amatasuna planteatzerakoan, eta neurri batean familia tradizionalaren eskemak errepikatzen jarraitzen dela.

2.4.3. Etxeko lanen banaketa

Orain dela lau urte euskal gazteriarekin eginiko ikerketak ondorioztatu zuen bikote askok (ezkonduak zein ez) etxeko lanak banatzen zituztela (%40k inguru). Orain ehuneko hori %50era igo da. Horrek esan ahal du erantzukizun partekatua eta solidaritate praktikoak aurrera egin dutela azken lau urteotan 30 urtetik beherako gazteen artean.

Dena dela, aipatzekoa da oraindik bikotekidearekin (ezkonduak zein ez) bizi diren gazteen %14ren kasuan emakumeak etxeko lan guztiak edo ia guztiak egiten dituela eta beste %28tan gehienak egiten dituela (2.11 taula). Hau da, %42 bikotetan emakumeak etxeko lan gehien edo guztiak egiten ditu eta bakarrik %3 kasutan gizonezkoak eramaten du lan horien zamarik nagusia.

Azpimarratu behar da, zentzu horretan, nola gizonezkoek eta emakumezkoek ez daukaten ikuspegi bera: bikotekidearekin bizi diren gizonezkoen %56k uste dute etxeko lanak erdibana banatzen direla eta emakumezkoen artean uste hori %48ra jaisten da. Bikotekidearekin bizi diren emakumezkoen beste %48k uste dute beraiek eramaten dutela etxeko pisurik handiena, bitartean gizonezkoen %28 bakarrik daude ados horrekin.

2.11 taula: Zenbateraino banatzen dituzu etxean egin beharreko lanak zure senar/emazte/bikotekidearekin? *

	GUZTIRA	SEXUA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak
Emakumeak egiten ditu lan horiek (ia) guztiak	14	4	18
Emakumeak egiten ditu lan horiek gehienak	28	24	30
Erdibana egiten ditugu lanak	50	56	48
Gizonak egiten ditu lan horiek gehienak	1	0	1
Gizonak egiten ditu lan horiek (ia) guztiak	2	6	0
Beste norbaitek egiten ditu lan horiek	3	2	3
Ed/Ee	3	8	0
Guztira ehunekotan	100	100	100
Guztira absolututan	153	50	103

* Galdera hau bakarrik egin zaie bikotekidearekin (ezkonduak zein ez) bizi direla diotenei.

ONDORIOAK

- 2000 urtean ikusten zen moduan, euskal gazteen hamarretik bederatzi ezkondu barik edo bikotekidearekin bizi barik heltzen da 30 urtetara. Emakumeak eta klase sozial baxuko gazteak gainontzekoak baino apur bat lehenago ezkontzen dira edo bikotekidearekin bizitzera joaten dira. Dena dela, orain ezkongabe apur bat gutxiago dago.
- Ezkongabe mantentzeaz gain, EAEko gazte gehienak familiarekin bizi dira. Dena dela, gehienek nahiko lukete gurasoen etxetik irten, edo horrela diote, behintzat.
- EAEko gazteak berandu arte gurasoen etxean jarraitzeko arrazoirik nagusienak ekonomikoak dira, batez ere. Berrito etxebizitzaren garestitasuna da oztoporik nagusia, eta horren atzetik diru-sarrera propioak izateko zailtasunak datoz. Bestalde, gurasoen etxean erosoago daudela diotenen ehunekoak 13 puntu galdu ditu 2000tik hona.
- Bakarrik gazteriaren laurden bat bizi da bere diru-sarrera propioetatik eta/edo bere bikotekidearenetatik. Gainera, gazteen baliabide ekonomikoak eskasak dira: gazteriaren erdiak baino gehiagok hilean 600 euro baino gutxiago dituzte, batez beste. Nahiz eta emakumezkoak lehenago irten gurasoen etxetik hilean diru gutxiago daukate. Adina igo ahala horrela egiten dute ere diru-sarrerek; dena dela, 24 urte baino gehiago dauzkatenen bosten batek hilean 300 euro baino gutxiago izaten ditu.
- Bestalde, inkestatuen %4k bakarrik dituzte seme-alabak (zertxobait gehiago emakumezkoek, 24 urtetik gorakoek eta, ezkondata zein ez, bikotekidearekin bizi direnek). Azken urteotan familiak aldaketak izan baditu ere, EAEko gazteek oraindik nahiago dute seme-alabak ezkontzaren barruan izatea.
- Etxeko lanak direla eta, emakumeak oraindik protagonistak dira eta lan horiek gehienak egiten dituztenak. Dena dela, lan horiek erdibana banatzen dituzten gizonen kopurua apurka-apurka gorantz doa.
- Azkenik, aipatzekoa da ia euskal gazteria osoa oso edo nahikoa pozik dagoela bere familia-egoerarekin. Bikotekidearekin (ezkondata zein ez) bizi direnak dira, batez ere, bizimodu horrekin pozago daudenak.



3

Aisialdia

3.1. SARRERA

Denboran zehar aldatuz joan dira ala aisialdirako dugun denbora kopurua (lanaldiaren murrizketa, opor egunen gehitzea, aurrejubilazioak eta abar) nola honen erabilera (kontsumorako joera). Euskal gaztedia, gainontzeko gizarte osoa lez, bere ohiturak aldatuz joan da eta orain garrantzitsua da aisialdiaren ezaugarriak eta beronen erabilera aztertzea.

Laurogei eta laurogeita hamargarren hamarkadetan aisiaren fenomenoaren zatiketa eman zen. Produktuen eskaintza biderkatu zen: kultur, turismo, kirol eta dibertimendurako ondasun eta zerbitzuak. Bezero berriak sartu ziren, hala nola pertsona nagusiak, minusbaliotasunak dituzten pertsonak edota emakumeak. Gazteen presentzia handitu zen. Informazio eta komunikazio teknologien paradigmaren ezarpen etengabeak aisiaren esparruetan lur oparoa aurkitu zuen, enplegurako meategi berri bihurtzera igaroz.

Mende berriaren hasieran elkarrizketa tirabiratsua antzematen da “alegiako” aisia eta beti beharrezko den aisia “errealaren” artean, lehena aukera gero eta zabalagoekin, eta bigarrena, gizakiarentzako onuren iturri agortezina; aisia indibidualista eta aisia solidarioaren, tokian tokiko aisia eta izaera zeharo globaleko aisiaren arteko istilu nekezetan. Alde batetik, beharrezko dirudi aisialdiaren funtzio (sortzailea, ludikoa, dibertigarria, ekologikoa, solidarioa, produktiboa, prebentiboa, terapeutikoa...) eta agerpen desberdinen (kultur, kirol, turistikoa eta dibertimenduzkoak) zentzu osoa berreskuratzea. Beste aldetik, garapen kontzeptuan, bere alderdi desberdinetatik, sakondu behar da: pertsonala, gizartekoa, komunitarioa, ekonomikoa eta jasangarria.

Honela, hurrengo atalean zehar gazteen aisialdia aztertuko da lau oinarritzko arlotan:

- ▶ Aisialdirako denbora edukitzea.
- ▶ Aisialdiko jarduerak.
- ▶ Elkarkidetzak motak.
- ▶ Internet: esperientzia eta erabilera.

3.2. AISIALDIRAKO DENBORA EDUKITZEA

Orokorrean, deigarria da euskal gaztediak astegunetan erabilgarri duen denbora librearen kopurua. Honela, ia erdiek (%46) aisialdian egunean lau ordu baino gehiago

igarotzen dituztela diote. Zentzu honetan, gizonezkoek emakumezkoek baino zertxobait denbora gehiago dute, eta 15 eta 24 urte arteko adin taldeek ere. Klase sozialaren arabera, behe mailakoak dira eguneroko zereginetatik kanpo ordu kopuru gehien (hiru, lau edo gehiago) dituztenak.

3.1 taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan? (I)

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Ertaina	Baxua
Ordubete baino gutxiago	3	3	4	2	3	5	4	3	3
Ordubete edo bi ordu	20	19	21	20	18	23	29	20	13
Hiru edo lau ordu	29	29	30	31	30	28	24	29	41
Lau ordu baino gehiago	46	48	44	46	48	43	42	46	42
Ed/Ee	1	1	2	1	1	1	1	2	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109

3.2 taula: Batez beste, zenbat denbora libre izaten duzu astegunetan? (II)

	GUZTIRA	LANBIDE ANGUSIA				EGOERA FAMILIARRA		
		Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanak**	Ezkon-gabea	Ezkondua	Bikotekidearekin
Ordubete baino gutxiago	3	2	4	1	17	2	12	10
Ordubete edo bi ordu	20	19	23	9	38	19	28	29
Hiru edo lau ordu	29	31	32	12	26	29	34	24
Lau ordu baino gehiago	46	47	40	75	17	48	25	36
Ed/Ee	1	1	1	2	2	1	1	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	642	691	132	23	1.342	73	79

* "Lanean" kategorian ikasi eta lan egiten dutela diotenak ere sartzen dira.

** Etxeko lanetan aritzen direnen datuak ez dira aztertuko laginean jasotako kopuru urriagatik.


Baina, zalantzarik gabe, langabezia dauden gazteak dira egunean zehar libre ordu kopuru gehiena dutenak (%75ek diote egunean lau ordu libre baino gehiago dituztela).

Kategoriak bitan bilduz (hiru ordu baino gutxiago eta hiru edo ordu gehiago), desberdintasunak nabarmenago agertzen dira.

Bestalde, egoera familiarraren arabera, ezkongabeen eta ezkondata edo bikotekidea dutenen egoera desberdina da, lehenengo denbora librea (%48k egunean lau ordu baino gehiago dituzte) gainontzekoena baino nahikoa altuagoa delarik (ezkondata edo bikotekidearekin bizi direnen %40 inguruk egunean atsedenerako bi ordu edo gutxiago dituzte).

2000. urtean (*Euskadiko Gazteak 2000*) jasotako datuekin alderatuz, egunean lau ordu baino gehiago libre dituen gaztediaren ehunekoak igo dela baieztatu daiteke (%39ak 2000. urtean eta %46k orain).

3.1 grafikoa: EAEko gazteek aisialdirako duten denbora, lanbide nagusiaren arabera



3.3. AISIALDIKO JARDUERAK

EAEko gaztediak bere denbora librean egiten dituen jarduera desberdinak aztertzerakoan, lehenik, egunero edo ia egunero zein jarduera egiten dituen aztertuko dugu. Hau da “eguneroko aisialdia” deitu dezakeguna.

Oro har, ikus dezakegu (3.3 taula) euskal gaztediak bere eguneroko denbora libre bereziki familiarekin egoten (%87k), telebista ikusten (%84k), musika entzuten (%78) eta telefonoz hitz egiten eta mezuak telefono edo e-mailez bidaltzen (%75ek) erabiltzen due-la. (Ia) Egunero lagunekin daudenak edo paseatu ala soilik kalean egonean daudenak ere nahikoa dira (%61 kasu bietan).

Erdiak baino gutxiago dira (ia)eguneroko aisialdi denbora egunkariak edo aldizkariak irakurtzen (%43), ordenagailuarekin denbora-pasan (%41) edo soilik atsedean hartzen, ezer ez egiten (%35) pasatzen dutenak. Gazteen laurdenaren inguruk aisia pasatzeko (ia)egunero liburuak irakurtzen ditu (%24), pixka bat gutxiagok kirola egiten dute (%21) edota tabernetara joaten dira (%16). Aztertu diren gainontzeko jarduerak EAEko gazteen %10ek baino gutxiagok egiten dituzte (ia)egunero: ziberrera joan, txateatu (%8), bideojokoekin jolastu (%5), kultur jarduera zehatzen bat egin, musika, pintura eta abar (%5), denbora-pasa dendetan ibili (%2), mendira joan (%2), kirol ikuskizunetara joan (%2), mahai jolasetan aritu (%2), joko aretoetara joan (%1), elkarteetan, borondatezko lanak egin (%1), jarduera politikoa edota sindikalak (%1). Ez dira %1era iristen (ia)egunero zinema, antzerki edo musika ikuskizunetara joaten direla diotenak, ezta diskoteketara edo jarduera erlijiosotara ere. Gainera, beste %6ak diote bestelako zaletasunak dituztela euren (ia)eguneroko aisialdia gozatzeko.

Bestalde, eta 3.3 taulan ikusi dezakegunez, jarduera batzuek bereziki asteburuetan egiten dira: gazteen %52k asteburuetan maiz tabernetara joaten direla diote, %35ek diskoteketara joaten direla, %27k lagunekin egoteko aprobetxatzen dute asteburu eta %22k diote kultur ekintzetara joaten direla, hala nola, zinema, antzerkia, kontzertuak eta abar. Gainera, asteburuetan baina noizean behin, gazteen portzentaia nabarmen bat ikuskizunetara, mendira, kirol ikustera edota denbora-pasa erosketak egitera joaten dira.

3.3 taula: Aisialdiko jarduera desberdinen maiztasuna

	ASIALDIKO JARDUEREN MAIZTASUNA						
	(la) Egunero	Asteburuetan	Noizean behin asteburuetan	Noizean behin astegunetan	Inoiz edo ia inoiz ez	Ed / Ee	Gutzira ehunekotan
Familiarekin egon.....	87	5	3	4	1	0	100
Telebista ikusi.....	84	2	1	8	4	0	100
Musika entzun.....	78	4	4	12	2	0	100
Telefonoz hitz egin eta mezuak bidali, e-maila.....	75	2	3	11	10	0	100
Lagunekin egon.....	61	27	5	5	1	0	100
Paseatu, kalean egon.....	61	12	8	9	10	0	100
Egunkariak edo aldizkariak irakurri.....	43	10	10	18	20	0	100
Ordenagailuarekin denbora-pasa aritu.....	41	4	5	19	31	0	100
Atsedean hartu, ezer ez egin.....	35	19	12	9	23	1	100
Liburuak irakurri (ikasketetakoak ez direnak)	24	3	7	25	40	0	100
Kirola egin.....	21	8	10	27	33	0	100
Tabernetara joan (poteoa).....	16	52	15	6	11	0	100
Ziberrera joan, txateatu.....	8	2	2	10	78	0	100
Bideojokoekin jolastu.....	5	2	5	11	76	0	100
Kultur jarduera zehatzak (dantza, instrumentu bat jo, margotu...)	5	2	2	7	84	1	100
Dendetan,erosketetan ibili (ez ohiko erosketak).....	2	8	36	20	34	0	100
Mendirra joan.....	2	12	30	5	52	0	100
Kirola ikustera joan.....	2	11	25	3	58	0	100
Mahai jolasak.....	2	4	9	6	79	0	100
Joko aretoetara joan.....	1	2	4	3	90	0	100
Elkarteetako eta borondatezko lanak.....	1	2	2	3	92	1	100
Jarduera politiko/sindikalak.....	1	0	1	3	94	1	100
Ikuskizunetara joan (musika, zinea, antzerkia...)	0	22	49	6	23	0	100
Diskoteketara joan.....	0	35	21	1	42	0	100
Jarduera erlijiosoak.....	0	1	1	1	96	1	100
Bestelako zaletasunak edo hobiak.....	6	11	5	8	59	12	100

Edozein modutan, ezin utzi dezakegu aipatu gabe EAeko gazteen %96k ez dutela inoiz edo ia inoiz jarduera erlijiosorik egiten euren denbora librean, %94 ez direla jarduera politiko edo sindikaletan aritzen, %92 ezta elkarteetako edo borondatezko lanetan ere, %90 ez direla joko aretoetara sartzen, %84k ez dutela dantza, musika, pintura eta abar bezalako kultura-jarduerarik egiten, %79k ez dutela mahai jokoetara jolasten, %78k ez dute txateatzen, %76k ez dute bideo jokoekin jolasten, %58 ez dira kirol ikuskizunetara joaten eta %52 ezta mendira ere. Gainera, %42 ez dira diskoteketara joaten, %40k ez dute ikasketaz kanpo libururik irakurtzen, %34 ez dira denbora-pasa erosketetara joaten, %33k ez dute kirolik egiten bere denbora librean, %31 ez dira ordenagailuarekin denbora-pasa aritzen, %23 ez dira inoiz edo ia inoiz kultur emanaldietara joaten eta %20k ez dute egunkari edo aldizkariak irakurtzen. Bestalde, %23k diote ez dela inoiz edo ia inoiz ezer egin gabe, atsedean hartzen, egoten bere aisialdian.

3.4 taula: “Bakarkako jarduerak”, sexua eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29
TELEBISTA IKUSI						
(la) Egunero.....	84	84	84	85	83	83
Asteburueta	2	2	2	3	2	2
Noizean behin asteburueta	1	2	1	2	1	2
Noizean behin asteguneta	8	8	8	5	9	10
Inoiz edo ia inoiz ez	4	4	5	6	5	3
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
MUSIKA ENTZUN						
(la) Egunero	78	78	78	87	80	68
Asteburueta	4	5	3	4	4	4
Noizean behin asteburueta	4	4	4	2	4	7
Noizean behin asteguneta	12	11	12	5	11	17
Inoiz edo ia inoiz ez	2	2	2	1	2	4
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
EGUNKARIAK EDO ALDIZKARIAK IRAKURRI						
(la) Egunero	43	44	42	30	44	52
Asteburueta	10	9	11	7	0	12
Noizean behin asteburueta	10	10	9	14	8	8
Noizean behin asteguneta	18	14	22	18	18	18
Inoiz edo ia inoiz ez	20	23	16	31	20	10
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
LIBURUAK IRAKURRI (IKASKETETAKOAK EZ)						
(la) Egunero	24	18	31	18	23	31
Asteburueta	3	3	3	3	3	4
Noizean behin asteburueta	7	7	7	9	6	7
Noizean behin asteguneta	25	20	30	26	26	24
Inoiz edo ia inoiz ez	40	51	29	45	42	35
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
KULTUR JARDUERA ZEHATZAK (DANTZA, INSTRUMENTU BAT JO, MARGOTU ...)						
(la) Egunero	5	6	5	7	4	6
Asteburueta	2	3	2	3	2	1
Noizean behin asteburueta	2	2	1	1	2	1
Noizean behin asteguneta	7	5	9	9	7	5
Inoiz edo ia inoiz ez	84	85	83	79	85	86
Ed/Ee	1	1	0	1	0	1
ATSEDEN HARTU, EZER EZ EGIN						
(la) Egunero	35	37	33	43	37	27
Asteburueta	19	20	19	20	18	20
Noizean behin asteburueta	12	11	13	10	13	14
Noizean behin asteguneta	9	9	9	7	10	11
Inoiz edo ia inoiz ez	23	22	24	19	22	28
Ed/Ee	1	1	1	1	1	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

Jarraian, egiten diren jarduerak motetan sexua eta adinaren arabera ikusi ditugun zenbait desberdintasun aipatuko ditugu, jarduerak honela sailkatuko ditugu: “bakarkako jarduerak” (musika entzun, telebista ikusi, irakurri, ezer egin gabe atsedeen hartu edo pintura, instrumentu bat jotzea eta abar bezalako kultura-jarduerak), harreman-jarduerak

(musika entzun, telebista ikusi, kalean egon eta paseatu eta mahai jolasak), “teknologia berriekin lotutako jarduerak” (telefonoz hitz egin edo mezuak bidali telefonoz edo e-maillez, ordenagailuarekin denbora-pasa aritu, ziberrera joan eta txateatu eta bideo jokoekin jolastu), “kirol jarduerak” (kirola egin, mendira eta kirol ikuskizunetara joan), “kontsumo-arekin lotutako jarduerak” (tabernetara eta diskoteketara joan, kultur ikuskizunetara joan, denbora-pasako erosketak eta joko aretoetara joan) eta, azkenik, “elkartze jarduerak” (elkarteetako edo borondatezko jarduerak, jarduera politiko sindikalak eta jarduera erlijiosoak).

Neskek mutilek baino gehiago irakurtzen dute euren denbora librean (gizonezkoen %51k diote inoiz edo ia inoiz ez dutela irakurtzen aisialdian eta beste %23k ez dutela egunkari edo aldizkaririk irakurtzen).

Adina igo ahala, egunkari, aldizkari nahiz liburuen irakurketa gehitzen da, aldi berean musika entzun, margotu, musika instrumenturen bat jo bezalako kultura-jardueren maiztasuna gutxitzen da eta baita soilik atsedean hartu, ezer egin gabe egonean daudenen ehunekoa ere.

3.5 taula: “Harreman-jarduerak”, sexua eta adin taldeen arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29
FAMILIAREKIN EGON						
(la) Egunero	87	89	85	95	91	76
Asteburuetan	5	4	5	0	4	8
Noizean behin asteburuetan	3	2	3	0	2	6
Noizean behin astegunetan	4	4	5	3	2	8
Inoiz edo ia inoiz ez	1	1	1	1	1	1
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
LAGUNEKIN EGON						
(la) Egunero	61	65	56	78	63	43
Asteburuetan	27	25	30	16	28	36
Noizean behin asteburuetan	5	4	7	3	4	9
Noizean behin astegunetan	5	4	6	3	4	8
Inoiz edo ia inoiz ez	1	1	2	0	1	3
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
PASEATU, KALEAN EGON						
(la) Egunero	61	58	65	65	64	56
Asteburuetan	12	12	13	12	11	13
Noizean behin asteburuetan	8	9	7	7	7	9
Noizean behin astegunetan	9	8	9	7	8	11
Inoiz edo ia inoiz ez	10	14	6	10	10	11
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
MAHAI JOLASAK						
(la) Egunero	2	2	1	3	2	1
Asteburuetan	4	4	4	7	3	3
Noizean behin asteburuetan	9	9	8	8	8	10
Noizean behin astegunetan	6	7	5	8	7	4
Inoiz edo ia inoiz ez	79	77	80	74	80	82
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

Jarduera sozialagoak aztertzeraz igaroz, beste pertsona batzuekin harremana esanahi dutenak, kolektiboen artean, sexua eta adinaren arabera, desberdintasunik badagoen ikusiko dugu.

(Ia) Egunero beraien lagunekin egoten direla dioten mutilak gehiago dira neskek baino, eta aldiz, neska gehiago dira euren aisialdian paseatzen, kalean igarotzen dutela diotenak.

(Ia) Egunero euren familiarekin, lagunekin edota kalean paseatzen egoten direnen artean 25 urtez azpiko gazteak gehiago dira adin hori dagoeneko beteta dutenak baino. Gainera, gazteenek (15-19 urte artekoak) oraindik eta ehuneko altuagoak dituzte (ia) egunero lagunekin egoten direnen artean, eta baita, maiztasun handiago edo txikiagoarekin, mahai jokoetara jolasten dutenen artean ere.

Ondoren teknologia berriekin lotutako jardueretan desberdintasun esanguratsurik dagoen ikusiko dugu.

3.6 taula: "Teknologia berriekin lotutako jarduerak", sexua eta adinaren arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29
TELEFONOZ HITZ EGIN ETA MEZUAK BIDALI, E-MAILA						
(Ia) Egunero	75	70	80	79	77	69
Asteburuetan	2	3	1	3	2	2
Noizean behin asteburuetan	3	3	2	4	2	2
Noizean behin astegunetan	11	12	9	7	10	14
Inoiz edo ia inoiz ez	10	11	8	7	9	12
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
ZIBERRERA JOAN, TXATEATU						
(Ia) Egunero	8	9	8	12	8	5
Asteburuetan	2	2	2	5	1	1
Noizean behin asteburuetan	2	4	1	4	1	2
Noizean behin astegunetan	10	10	10	11	11	7
Inoiz edo ia inoiz ez	78	76	80	69	78	85
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
ORDENAGAILUAREKIN DENBORA-PASA ARITU						
(Ia) Egunero	41	42	40	48	43	32
Asteburuetan	4	3	4	6	3	3
Noizean behin asteburuetan	5	5	4	5	4	4
Noizean behin astegunetan	19	21	18	19	20	19
Inoiz edo ia inoiz ez	31	29	34	22	30	42
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
BIDEOJOKOekin JOLASTU						
(Ia) Egunero	5	9	1	9	5	3
Asteburuetan	2	4	1	5	1	1
Noizean behin asteburuetan	5	6	3	7	4	4
Noizean behin astegunetan	11	17	5	17	11	6
Inoiz edo ia inoiz ez	76	63	89	61	78	86
Ed/Ee	0	0	0	0	1	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

Neskak dira (ia) egunero telefonoa gehiago erabiltzen dutenak hitz egiteko edo mezuak bidaltzeko, aldiz ordenagailuarekin denbora-pasan mutilak baino gutxiago aritzen dira, ziberrera, txateatzera gutxiago joaten dira eta halaber, bideojokoekin gutxiago jolasten dute. Teknologia berriekin lotutako jarduera guzti hauek ohikoagoak dira adina jaitsi ahala.

Kirol jarduerari dagokienez (3.7 taula), mutilek kirolean aritzeko, mendira joateko eta kirol ikuskizunetarako joera handiagoa dute; izan ere, gehiengoak dira (ia) inoiz mendira joaten ez diren neskak (%56), hala nola kirol ikuskizunetara ere (ia) inoiz joaten ez direnak (%75). Bestalde, adina jaitsi ahala, euren aisialdian (ia) egunero kirolean aritzen direnen kopurua gehitzen da. Mendira gehien joaten direnak (bereziki, noizean behin asteburuetan) 20 eta 24 urte artekoak dira. Azkenik, kirol ikuskizunetara joatea ohikoagoa da 25 urtez azpikoaren artean.

3.7 taula: "Kirol jarduerak", sexua eta adin taldearen arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29
KIROLA EGIN						
(Ia) Egunero	21	30	12	29	19	17
Asteburuetan	8	10	6	7	9	7
Noizean behin asteburuetan	10	10	11	7	12	11
Noizean behin astegunetan	27	27	28	31	28	24
Inoiz edo ia inoiz ez	33	23	43	26	32	41
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
MENDIRA JOAN						
(Ia) Egunero	2	2	2	1	2	3
Asteburuetan	12	12	11	12	12	11
Noizean behin asteburuetan	30	33	27	27	33	28
Noizean behin astegunetan	5	6	4	5	4	5
Inoiz edo ia inoiz ez	52	47	56	55	48	53
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
KIROLA IKUSTERA JOAN						
(Ia) Egunero	2	2	2	1	2	2
Asteburuetan	11	17	5	12	13	9
Noizean behin asteburuetan	25	35	16	28	26	23
Noizean behin astegunetan	3	4	2	5	3	3
Inoiz edo ia inoiz ez	58	41	75	54	55	64
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

Azpiatal berri batean bildu ditugu, era batera edo bestera, nolabaiteko kontsumoa duten jarduerak.

Generoaren araberako desberdintasun nagusienak ondorengoak dira: mutilak joko aretoetara gehiago joaten dira eta batez ere, neskek euren aisialdiko parte bat erosketak egiten pasatzeko joera dute.

3.8 taula: “Kontsumoarekin lotutako jarduerak”, sexua eta adin taldeen arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29
TABERNETARA JOAN (POTEOA)						
(la) Egunero	16	16	15	9	20	16
Asteburueta	52	52	52	53	52	50
Noizean behin asteburueta	15	14	16	14	13	18
Noizean behin asteguneta	6	5	7	5	6	7
Inoiz edo ia inoiz ez	11	12	10	19	8	9
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
DENDETAN,EROSKETETAN IBILI (EZ OHIKO EROSKETAK)						
(la) Egunero	2	1	2	1	1	3
Asteburueta	8	5	10	7	7	9
Noizean behin asteburueta	36	31	41	36	36	37
Noizean behin asteguneta	20	14	25	18	21	20
Inoiz edo ia inoiz ez	34	48	21	38	35	31
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
JOKO ARETOETARA JOAN						
(la) Egunero	1	2	1	3	1	0
Asteburueta	2	2	2	5	1	0
Noizean behin asteburueta	4	5	3	7	3	2
Noizean behin asteguneta	3	4	1	6	2	1
Inoiz edo ia inoiz ez	90	87	93	79	93	97
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
IKUSKIZUNETARA JOAN (MUSIKA, ZINEA, ANTZERKIA...)						
(la) Egunero	0	1	0	0	1	0
Asteburueta	22	20	24	24	23	19
Noizean behin asteburueta	49	48	50	46	49	52
Noizean behin asteguneta	6	7	5	4	6	7
Inoiz edo ia inoiz ez	23	25	21	26	21	22
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
DISKOTEKETARA JOAN						
(la) Egunero	0	1	0	0	0	1
Asteburueta	35	35	36	46	40	22
Noizean behin asteburueta	21	20	22	18	20	24
Noizean behin asteguneta	1	1	1	0	1	2
Inoiz edo ia inoiz ez	42	43	41	35	39	51
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

20 urtetik gora ohikoagoa da tabernetara joatea (poteoa) eta ez hain ohikoa diskoteketara edota joko aretoetara joatea. 25 urtetik gora pixka bat igotzen da denbora-pasa erosketak egitera joateko joera ere.

Azkenik, elkartzeko jarduerak kontuan hartuta ez dakusagu alde nabarmenik ez sexua-ren ezta adin taldearen arabera ere. Izatez, aztertutako kolektibo guztietan, gazteen %90tik gorak (ia) inoiz ez duela mota horretako jarduerarik egiten diote.

EAEko gaztediaren zaletasunak Europako gaztediaren jardueretatik (*Los jóvenes europeos en 2001. Resultados de un sondeo de opinión europeo*) zerbait desberdintzen direla aipatu behar da. Honela, Europa osoko gazteek maiztasun handienarekin egiten dituzten hiru

jarduera nagusiak hauek dira: lagunekin egon (%74), telebista ikusi (%69) eta musika entzun (%66). Gainera, bi gaztetatik batek dio kirola egiten duela; kulturalagoak liratekeen jarduerak, irakurtzea, zinea, antzerkia edo kontzertuak bezalakoak, europar gazteen %40 eta %45k aipatzen dituzte. Hortaz, EAeko gaztediak Europako batez bestekoak baino telebista gehiago ikusten duela, musika gehiago entzun duela eta bere lagunekin gutxiago egoten dela adierazi behar da.

3.9 taula: "Elkartze jarduerak", sexua eta adin taldeen arabera

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29
ELKARTEETAKO ETA BORONDATEZKO LANAK						
(la) Egunero	1	1	1	0	0	1
Asteburuetan	2	2	2	1	3	1
Noizean behin asteburuetan	2	1	2	2	1	2
Noizean behin astegunetan	3	3	3	3	5	3
Inoiz edo ia inoiz ez	92	92	92	93	90	92
Ed/Ee	1	1	0	0	0	1
JARDUERA POLITIKO/SINDIKALAK						
(la) Egunero	1	1	1	1	1	1
Asteburuetan	0	0	0	0	0	0
Noizean behin asteburuetan	1	1	1	1	1	1
Noizean behin astegunetan	3	3	3	1	4	3
Inoiz edo ia inoiz ez	94	95	94	96	94	94
Ed/Ee	1	1	1	1	0	1
JARDUERA ERLIJIOSOAK						
(la) Egunero	0	0	0	0	0	0
Asteburuetan	1	1	1	2	1	0
Noizean behin asteburuetan	1	1	2	2	1	1
Noizean behin astegunetan	1	1	2	2	2	1
Inoiz edo ia inoiz ez	96	96	95	94	96	97
Ed/Ee	1	1	1	1	0	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500

3.4. ELKARKIDETZA MOTAK

2000. urtean jasotako datuekin konparatuz asoziazionismoa jarraitzaileak galtzen ari dela dirudi. Elkarteren bateko kide direla dioten euskal gazteak %42,3tik aurtan %35era jaitzi dira. Noizbait elkarteren bateko kide izan direla dioten gazteen ehunekoak ere berdin behera egin du (2000. urtean %32 zen eta aurtan %25). Bestalde, hamabost puntutan igo da asoziazionismoarekin harremanik ez dutenen edo inoiz izan ez dutenen ehunekoa (%38), berauen osatzen dutelarik gazteen artean multzo nagusia (3.10 taula).

Mutilek nesken baino elkarteetan aritzeko joera handiagoa agertzen jarraitzen dute, 2000. urtean dagemento antzematen zen joera, neskek neurri handiagoan baitiote ez dutela inoiz elkarteren batekin harremanik izan (%44 %32ren aurrez aurre).

3.10 taula: Gazteen eta elkarteen arteko harremana

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Ertaina	Baxua
Kide da.....	35	43	27	43	34	31	33	33	39	54	33	37
Kide izan da.....	25	24	26	18	28	26	23	23	29	20	25	27
Laguntzailea da.....	2	1	2	1	1	3	1	2	2	2	2	1
Harremanik ez.....	38	32	44	38	37	39	44	41	30	24	39	36
Ed/Ee.....	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	117	1.265	109

Bestalde, badirudi asoziazionismoa bereziki gazteetan gazteenen fenomeno dela, izan ere, gazteak heltzen doazen neurrian elkarteren bateko kide direnen ehunekoa jais-ten baita eta kide ohi direla diotenena igotzen. Joera hau 2000. urtean ere antzeman zitekeen.

Asoziazionismoa Gipuzkoan dago hedatuen (%39 elkarteren bateko kide), aldiz 2000. urtean Araban zegoen elkarteetako kide zirenen ehunekorik altuena (zehazki %54).

3.11 taula: Gazteen eta elkarte moten arteko harremanak *

	Kide da	Kide izan da	Laguntzailea da	Inoiz ez da kide izan eta ez du lagundu	Ed / Ee	Guztira ehunekotan
Kirol-elkarteak	15	20	1	64	0	100
Kultur- edo arte elkarteak.....	5	6	1	88	0	100
Txokoak edo jolas elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak	4	4	0	91	0	100
Euskararen defentsa	3	2	3	91	0	100
Musika bandak, musika taldeak.....	3	5	0	92	0	100
Eskaut taldeak, gazte-klubak.....	3	11	0	85	0	100
Politikoak	2	1	1	97	0	100
Ikasle-elkarteak	2	5	1	92	0	100
Ongintza eta laguntzarako elkarteak (elbarritasunekin, osasunarekin, inmigranteekin zerikusia dutenak).....	2	1	1	96	0	100
Erlijosok	2	3	1	95	0	100
Sindikatuak.....	2	1	0	97	0	100
Mendi-taldeak	2	5	1	92	0	100
Ekologistak.....	1	1	1	97	0	100
Bakezaleak edo antimilitaristak.....	1	1	1	97	0	100
Elkarte profesionalak	1	0	0	98	0	100
Hirugarren munduaren garapenerako laguntza	1	2	2	94	0	100
Emakumezkoekin lotura dutenak.....	0	0	1	98	0	100
Giza eskubideak.....	0	0	1	98	0	100
Bestelako elkarteak.....	1	0	0	93	6	100

* Galdera independenteak

Klase sozialak ere eragina du gazteen asoziazionismoan. Izan ere, klase altukoak dira elkarteetan gehien aritzen direnak (%64), duela lau urte antzematen zen joerari jarraituz. Kasu honetan, erdiko klasekoak dira elkarteekin harreman gutxiena izan dutenak.

Gazteria zein motatako elkarteetan biltzen den aztertuz gero (3.11 taula), mota askotako elkarteak agertzen zaizkigu. Taulan ikusi dezakegunez, kirol-elkarteak dira gazte gehienak biltzen dituztenak, gazteen %15 horietako kide dira eta gainera, gaur egun ibiltzen ez badira ere, beste %20 noizbait horietako kide izan dira. Elkarte hauek 2000. urtearekiko bost puntu inguru galdu dituzte.

Bigarrenik, kultur- edo arte-elkarteak, gazteen %5 biltzen dituztenak, eta txokoak edo jolaserako elkarteak (txokoak, elkarteak, konpartsak, blusak, lagunarteak...) daude, gazteen %4 biltzen dituztenak.

Alabaina, elkarte batzuk gaur egun bazkide askorik ez badute ere, noizbait gazteen proportzio esanguratsua erakarri izan dute, ondoren horiek uzten joan direlarik. Hau da eskaut taldeen, gazte-kluben kasua: gaur egun, gazteen %3 biltzen dituzte baina noizbait gazteen %11 izan da horietakoren bateko kide. Beste mota batzuetako taldeak ere uzten dira, hala nola musika banda eta taldeak (%5 kide izan dira eta orain %3 kide da), ikasle-elkarteak edo mendi-taldeak (%5 aurrez eta orain %2 kasu bietan).

3.12 taula: Gaur egun elkarteren bateko kide diren gazteak, sexua eta adinaren arabera*

% Elkarteetako kide da	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29
Kirol-elkarteak.....	15	24	7	24	13	10
Kultur- edo arte elkarteak.....	5	4	5	5	5	4
Txokoak edo jolas elkarteak (lagunarteak, konpartsak, blusak...).....	4	7	2	4	5	4
Musika bandak, musika taldeak.....	3	5	2	5	3	2
Eskaut taldeak, gazte-klubak.....	3	4	3	7	2	2
Euskararen defentsa.....	3	2	3	4	2	2
Mendi-taldeak.....	2	3	1	2	2	3
Politikoak.....	2	2	1	1	2	2
Sindikatuak.....	2	2	2	0	1	4
Ikasle-elkarteak.....	2	2	2	2	3	0
Ongintza eta laguntzarako elkarteak (elbarritasunekin, osasunarekin, inmigranteekin zerikusia dutenak).....	2	1	3	2	2	2
Erljiosoa.....	2	1	2	2	2	1
Hirugarren munduaren garapenerako laguntza.....	1	1	1	1	1	2
Ekologistak.....	1	1	1	1	1	1
Bakezaleak, antimilitaristak.....	1	1	0	1	1	1
Elkarte profesionalak.....	1	2	1	0	1	2
Emakumezkoekin lotura dutenak.....	0	0	1	0	0	1
Giza eskubideak.....	0	0	1	0	0	1
Bestelako elkarteak.....	1	1	1	1	1	1

* Galdera independenteak

Sexuaren arabera aztertuz (3.12 taula), mutilek kirol-elkarteetan (mutilen %24 eta nesken %7 dira kide), txoko edo jolas elkarteetan (%7 eta %2, hurrenez hurren) eta musika


taldeetan (%5 eta %2) neskek baino gehiago parte hartzen dutela ikusten dugu. Adinaren arabera, 15 eta 19 urte arteko gazteak dira neurri handiagoan kirol-elkarteetako, gazte-klubetako, musika taldeetako edota euskararen defentsako taldeetako kideak (azken

Euskal gaztediari dagozkion datuak Estatuko gainontzeko gaztediarekin konparatzen badira (*Valores y creencias de los jóvenes 2001 – CIS*), eremu horretan ere kirol-elkarteak kide kopururik handiena biltzen dutenak direla ikus dezakegu, gazteen %12,6 horietako partaide baitira. Era berean, Europan (*Los jóvenes europeos en el 2001- Sondeo de opinión europeo*) kirol-elkarteak dira arrakastarik handiena dutenak (euskal gaztediaren eta Estatukoaren artean baino handiagoa), europar gazteen hamarretik ia hiru (%28) mota horretako elkarteetako kide baitira.

3.5. INTERNET: ESPERIENTZIA ETA ERABILERA

Gaur egun, euskal gaztediaren artean Interneten erabilpena oso hedatua dago. Hala adierazten du bakarrik gazteen %17 izatea inoiz ere sarea erabili ez duena (3.2 grafikoa). Beraz, EAEko gazteen %82k noizbait Interneten nabigatu dute. Duela lau urte jasotako datuak aztertuz gero, argi gelditu da euskal gazteen artean teknologia berrien erabilpenak izan duen igoera handia: 2000. urtean %52,9k ez zuen inoiz erabili eta aldiz, %45,7 zen noizbait erabilia zuena.

3.2 grafikoa: Interneten erabilpena




Datu hauek 2003an Estatuko gaztediari buruz jasotakoekin konparatu ezkerro (*Sondeo sobre la juventud española, 2003 – CIS*), euskal gazteen artean Interneten erabilera hedatua dagoela ikusten da, Estatuko gainontzekoen %51,1ek bakarrik baitzioen berau erabiltzen zuela.

Ia ez dugu generoaren araberako alderik aurkitu, Internet erabiltzen duten neska eta mutilen portzentajeak antzekoak dira. Alabaina, eta 2000. urtearen alderantziz, oraingotan adina alde handiak eragiten dituen aldagaia dugu. Datuen argitara (3.3 grafikoa), adin talde gazteenen erabilera handiagoa ikusten da, 25 eta 29 urte arteko gazteak dira sarea gutxien darabiltenak (nahiz eta horien artean ere gehiengoa izan).

Lurraldean arabera, Gipuzkoan noizbait Internet erabili duten gazteen ehuneko altua dago.

3.3 grafikoa: Interneten erabiltzaileak, sexua, adina eta lurraldearen arabera
(Konparazio datuak: 2000 – 2004)



2000. urtetik hona Interneten erabilera asko igotzeaz gain, gazteen artean gertaera normalizatua izatera igaro da, bi euskal gazteetatik batek azken bi urte baino lehenagotik baitarabil. Badira, gainera, esperientzia handiagoa duten internautak (%18), duela lau urte baino lehenagotik erabiltzen dutenak. Adina gehitu ahala, Interneten erabileran esperientzia gehitzen da.

3.13 taula: Zenbat denbora daramazu Internet erabiltzen?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ez dut inoiz erabili	17	18	17	12	14	25	19	20	13
6 hilabete baino gutxiago	8	8	8	10	8	7	9	9	7
6 hilabete baino gehiago eta urtebete baino gutxiago.....	7	7	8	10	8	5	10	7	7
Urtebete baino gehiago eta 2 urte baino gutxiago	16	16	17	21	17	11	14	16	17
2 urte baino gehiago eta 3 baino gutxiago	19	19	18	23	20	13	11	17	23
3 urte baino gehiago eta 4 baino gutxiago	14	15	14	12	15	15	14	14	16
4 urte baino gehiago	18	18	17	12	17	23	23	17	16
Ed/Ee.....	0	1	0	1	1	0	1	0	0
Guztira ehunekotan.....	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480

Bestalde, Internet erabiltzen dutenek 2000an baino asteroko erabilera handiagoa egiten dute. Horrela, duela lau urte Internet erabiltzen zuten gazteen %46k astean ordubete baino gutxiago erabiltzen zuten. Gaur egun, ehuneko hori %28raino jaitsi da. Era berean, nabarmendu behar da Internet astean 7 ordu baino gehiago erabiltzen dutenak %24 direla, 2000. urtean %8,7 ziren bitartean (3.14 taula).

3.14 taula: Oro har, astean zenbat ordu ematen duzu Internet erabiltzen? (I)*

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Ordubete baino gutxiago	28	27	30	27	27	31	36	27	28
Ordubetetik 7 ordura.....	47	46	49	45	50	45	44	49	46
7 ordutik 15 ordura.....	14	16	12	16	12	14	11	14	14
15 ordu baino gehiago.....	10	11	8	11	10	9	8	10	10
Ed/Ee.....	1	1	1	1	1	2	1	0	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	1.233	612	621	360	500	202	173	645	415

* Interneten erabiltzaileei bakarrik galdetu zaie.

Neskek mutilek baino zertxobait denbora gutxiago nabigatzen jarraitzen dute: mutilen %27 astean zazpi ordu baino gehiago sarean ibiltzen da eta nesken artean %20ra jaitzen da portzentaje hau. Adinaren arabera ere taldeen arteko alde esanguratsuak ikusten dira, 15 eta 19 urte arteko gazteek denbora gehien ematen dutelarik: %27k astean zazpi ordu baino gehiago igarotzen dituzte eta aldiz, 20 eta 24 urte artekoek %22 eta 25-29 urte artekoek %23. Lurraldean arabera, Bizkaian eta Gipuzkoan igarotzen dituzte ordu gehiago Interneten nabigatzen.

3.15 taula: Oro har, astean zenbat ordu ematen duzu Internet erabiltzen? (II)*

	GUZTIRA	IKASKETA MAILA				LANBIDE NAGUSIA			
		Lehen mailakoak	LH/REM/BBB/UBI	Diplomatura	Goimailakoak	Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanak**
Ordubete baino gutxiago	28	30	30	24	25	22	33	35	62
Ordubetetik 7 ordura.....	47	47	45	52	50	50	44	46	32
7 ordutik 15 ordura.....	14	13	15	11	13	17	11	11	0
15 ordu baino gehiago.....	10	9	9	12	12	10	10	9	6
Ed/Ee.....	1	1	1	1	0	1	1	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan.....	1.233	306	571	163	189	582	536	96	10

* Interneten erabiltzaileei bakarrik galdetu zaie

* "Lanean" kategorian ikasi eta lan egiten dutela diotenak ere sartzen dira.

*** Etxeko lanetan aritzen direnen datuak ez dira aztertuko laginean jasotako kopuru urriagatik.

Ikasketa mailaren arabera alde txiki batzuk ere ikusi ditzakegu, unibertsitate tituluak, goi edo erdi mailakoak, dituztenak dira sarean denborarik gehien igarotzen dutenak (euren artean Internet erabiltzen dutenetatik %12k astean 15 ordu baino gehiago). Aitzitik, lehen edo bigarren mailako ikasketak edota lanbide heziketa ikasi dutenek Internet astean ordu gutxiago erabiltzen dute (ikasketa maila honetako internauten %30ek astean ordubete baino gutxiago).

Ikasleak dira sarean astero ordu kopuru handiena igarotzen dutenak (Interneten erabiltzaileen %27k astean zazpi ordutik gora igarotzen dituzte).

EAEko gaztedia eta Internet eta informatika munduaren arteko harremanak ezagutzeko beste gai garrantzitsu bat da etxean ordenagailurik duten pertsonen ehunekoa ezagutzeari (3.16 taula).

3.16 taula: Erabil dezakezun ordenagailurik baduzu etxean?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA		
		Gizonez-koak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Ertaina	Baxua
Bai	78	78	78	86	81	68	89	78	63
Ez	21	21	21	14	18	30	11	21	33
Ed / Ee	1	1	1	0	1	2	1	1	4
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109

Taulan ikus daitekeen moduan, gaur egun euskal gaztediaren %78k etxean ordenagailua dute. Sexuaren araberrako alderik ez dago baina adinak alde garrantzitsuak ezartzen ditu. Gazteetan gazteenek euren etxeetan ordenagailu gehiago dituzte adin horretatik gorakoek baino: 15 eta 19 urte artekoen %85ek, 20 eta 24 urte artekoen %81ek eta 25 eta 29 urte artekoen %68k.

Klase sozial altukoaren artean etxean ordenagailua izatea hedatuago dago (%89) klase baxukoaren artean baino (63%).

Etxeetan Internetarako sarrera izatea ere (3.17 taula) oso zabaldu dago: etxean ordenagailurik duten euskal gazteen %76k etxetik bertatik Internetarako sarrera daukate.

3.17 taula: Internetarako konexiorik baduzu etxean? *

	GUZTIRA	ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA		
		15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Ertaina	Baxua
Bai	76	74	79	76	75	79	74	85	75	77
Ez	24	26	21	23	25	21	25	15	25	23
Ed / Ee	0	0	0	1	0	0	1	0	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.171	335	474	342	170	616	385	104	992	69

* Etxean ordenagailurik badutela diotenei bakarrik egindako galdera.

Internetarako konexio kopururik handiena dutenak 20 eta 24 urte arteko adin taldekoak dira (etxean ordenagailurik dutenen %79k). Lurraldeari dagokionez, Bizkaian daude sarerako sarrera gehienak (%79). Berrito ere, klase sozial altukoak dira euren etxeetatik Internetarako konexio gehien dutenak (etxean ordenagailurik dutenen %85, aldiz klase baxukoaren artean %77).

ONDORIOAK

- Euskal gaztediak astegunetan libre ordu kopuru handia duela dio, ordu horiek, gainera, azken lau urteetan gehitu egin dira. Gazteen %46k egunean aisialdirako lau ordu baino gehiago dituela diote. Mutilek, 20 eta 24 urte arteko adin taldekoek, ezkongabeek, klase sozial baxukoek eta bereziki, langabetuek dituzte ordu libre gehien.
- Euskal gaztediak bere denbora librea batez ere familiarekin egoten, telebista ikusten, musika entzuten, telefonoz hitz egiten edo mezuak edo e-mailak bidaltzen, lagunekin egoten, eta paseatzen edo kalean egoten pasatzen du. Asteburutan ohikoa da tabernetara joatea (poteoa), eta noizean behingo jarduerak, berriz, diskoteketara, kultur edo kirol ikuskizunetara edo mendira joatea. Jarduera politiko-sindikalak, borondatezkoak edota erlijiosoak dira euskal gazteek gutxien egiten dituztenak.
- Elkarteren bateko kide diren gazteen ehunekoa jaitsi egin da 2000. urtearekin konparatuta. Mutilak, adin talde gazteenak eta klase sozial altukoak direla diotenak asoziazionismorako joera altuena agertzen dute.
- Gazteek harremanak dituzten elkarte motei dagokienez honakoa ikusten da: kirol-elkartekak dira atxikimendu handiena jasotzen dutenak (Europa mailan edo Espainiako Estatuan gertatzen den moduan), urrutitik jarraitzen diete kultur- eta arte-elkartek eta txoko eta jolaserako-elkartek.
- Hala denbora librean kirolean aritzea nola kirol-elkarteetako kide izatea, mutilen artean nesken artean baino nahikoa zabalduago dago.
- Interneten erabilerak azken lau urteotan igoera ikusgarria izan du. Euskal gazteen %80k baino gehiagok sarean nabigatzen du. Bitxia da generoaren araberako alderik ez dagoela ikustea: mutilak zein neskek teknologia berrien erabilpenarekin bat egin dute, edozelan ere gazteenak dira mundu berri horretara azkarren sartu direnak. Gainera, lau gazte internautetatik batek zazpi ordu baino gehiago igarotzen ditu sarera konektaturik.
- Gaur egun, euskal gaztediaren hiru laurdenak baino gehiagok (%76k) etxean ordenagailua dute eta horietatik, hiru laurdenek baita Interneterako konexioa ere, honela gazteen erdia baino gehiago euren etxeetatik bertatik Internetera sartu daitekeelarik.
- Adin talde gazteenekoak (15-19 urte) dira Internet gehien erabiltzen dutela, etxean ordenagailua gehien dutela eta euren aisialdia ordenagailuarekin denbora-pasa edo txateatzen gehien igarotzen dutela diotenak, beraz Euskadin teknologia berrien etorkizuna ziurtatua dagoela dirudi.



4

Egoeraren
balorazioa

4.1. SARRERA

Gaztediari buruz hitz egiterakoan hainbat gizarte eremutatik (instituzioak, erakunde publiko eta pribatuak, eta abar) zerbait homogeen bezala definitzeko joera izaten da “en torno a determinados ejes o parámetros encuadrados en lo que se ha institucionalizado bajo la denominación de generación juvenil”.¹

Gazteen kolektiboa oso heterogeneoa den arren, badirudi badirela ezaugarri nagusi batzuek modu orokorrean gazte belaunaldi bakoitzaren nortasuna eta sentipena osatzen dutenak. Honela hitz egin ohi da hippyen belaunaldiaz, *yeye belaunaldiaz*, *68ko belaunaldiaz*, *demokraziako belaunaldiaz* eta abar.

Kalifikatzaile generiko horiei lotuta, “cada generación concreta su propia identidad atendiendo a una serie de factores constantes: los problemas que les son comunes, su situación socioeconómica, el nivel de satisfacción, la comparación con la generación paterna, etc. Alrededor de estos y de otros aspectos se conforma la visión que la propia juventud tiene de sí misma en cada momento histórico determinado”.²

“La juventud es la etapa en la cual se comienzan a tomar las primeras decisiones independientes, a practicar elecciones y a acumular los aprendizajes necesarios para llegar a ser un adulto autónomo en todos los aspectos”.³ Alabaina, eta gorago esan dugun moduan, kolektibo honek ezaugarri komunak izan ditzakeen arren honakoa da: “un grupo social muy diverso, cuyas creencias, valores, actitudes, expectativas y comportamientos difieren considerablemente, reflejando el conocimiento individual, la experiencia diversa y un infinito abanico de influencias sociales.”⁴

Atal honetan zehar euskal gaztediak egoera nola baloratzen duen aztertuko dugu, bai egoera pertsonala, bai kolektiboa, hezkuntza-sistemaren egoera eta euskal erakundeek

¹ INSTITUTO DE LA JUVENTUD (INJUVE). *Sondeo periódico de opinión y situación de la gente joven 2002-ko* “Sarrera”: Consejería Técnica de Planificación y Evaluación. Servicio de Documentación y Estudios, 2002.

² *Ibid.*

³ MINISTERIO DE SANIDAD Y CONSUMO: *Ganar salud con la juventud*: Dirección General de Salud Pública, 2003, 15.orf.

⁴ *Ibid.*

gazte gaitan daramaten lana. Gainera kezkatzen dituzten gaiak, zuzenean beraiengan eragina dutenak eta bereziki garrantzizkoak direnak zein diren aditzera emango ditugu.

4.2. GAZTEEK EGOERA NOLA IKUSTEN DUTEN

4.2.1. Egoera pertsonala

Gaur egun EAEko gazteen %70 pozik daude euren egoera pertsonalarekin, datu honen 2000. urtearekiko 5,6 punturen igoera esan nahi du. Ehunetik seik adierazten dute pozik ez daudela.


4.1 taula: Gazte zaren aldetik, nola ikusten duzu zure egoera pertsonala gaur egun?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Pozik nago	70	69	70	76	71	62	62	68	75
Ez nago pozik eta ez gaizki ere	23	23	24	21	21	28	29	24	20
Ez nago pozik	6	6	6	2	6	10	7	7	4
Ed/Ee	1	1	0	0	1	0	1	1	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	804	480

Emaitzak adinaren arabera aztertuz gero eta 2000 gertatzen zen moduan, gazteak zenbat eta helduagoak, orduan eta beherago egiten du pozik daudenen kopuruak. Aitzitik, adin talde bakoitzaren barnean pozik dauden gazteen ehunekoak gora egin du 2000. urtetik gaur artean.

Bestalde eta herrialdeka aztertuz gero, gazteak bizi diren tokiaren arabera ere zenbait alde badira: gipuzkoarrak dira euren gaur egungo egoerarekin pozen daudenak (%75), gainera poztasunean 2000. urtearekiko igoerarik altuena ere eurek adierazten dute (%68tik %75era).


4.1 grafikoa: Egoera pertsonalarekiko poztasuna klase sozialaren arabera



Klase sozialak, berriro ere, gazteek euren egoera pertsonalarekiko duten poztasun edo frustrazio maila baloratzerakoan eraginik baduela dirudi: klase altuko gazteak daude pozen egoera pertsonala dela eta (%79 pozik), eta aldiz, klase baxukoaren artean %51k adierazten dute pozik daudela.

Azkenik, eta inkestatutako gazteen lanbide nagusia kontuan izanik, langabetuak dira euren egoera pertsonalarekin poztasun maila txikiena adierazten dutenak eta bitartean ikasleen %76 euren egoera pertsonalarekin pozik daude.

4.2 grafikoa: Egoera pertsonalarekiko poztasuna lanbide nagusiaren arabera



4.2.2. EAEko gazteriaren egoera

Gazteen gehiengoak euren egoera pertsonala baloratzerakoan pozik ageri den arren, EAEko gazteriaren egoera orokorra baloratzerakoan %60k erdipurdikoa dela deritzote; %20k ona eta ia beste horrenbestek (%19) txarra dela (4.2 taula). Datu hauek apenas izan duten alderik duela lau urtetik gaur arte.

4.2 taula: Orokorrean, nolakoa da zure ustez gaur egungo gazteen egoera? (I)

	GUZTIRA	SEXUA		EZKER-ESKUIN ARDATZA				EUSKAL HERRITARRA-ESPAINIARRA ARDATZA			
		Gizon- ezkoak	Emaku- mezkoak	Ezkerra	Zentrua	Eskuina	Ed / Ee	Euskal herri- tarra	Euskal herritarra bezain espainiarra	Espai- niarra	Ed / Ee
Ona.....	20	22	18	17	28	32	22	20	21	10	22
Erdipurdikoa.....	60	59	61	60	59	54	60	57	62	70	61
Txarra.....	19	18	20	23	11	14	17	22	17	18	16
Ed/Ee.....	1	1	1	0	2	0	1	1	1	3	1
Guztira ehunekotan....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan....	1.500	750	750	719	108	46	625	777	488	77	158

Aztertutako kolektibo guztietan gehiengoaren iritzia da EAEko gazteen egoera erdipurdikoa dela. Edozelan ere, optimistenak eskuin edo zentrokoak direla diotenak dira, %32k eta %28k, hurrenez hurren, uste baitute egoera ona dela.

Ondorengo kolektibo guztietan ere iritzi nagusia da gazteen gaur egungo egoera erdipurdikoa dela (4.3 Taula). Hala ere, egoera hobekien baloratzen dutenak 15 eta 19 urte arteko gazteak dira (gainera, gazteak zenbat eta helduagoak, orduan eta balorazio positibo gutxiago eta negatibo gehiago), baita klase sozial altukoak direla diotenak ere (klase soziala jaitsi ahala, balorazio positiboak jaisten dira eta negatiboak igotzen). Bestalde, gazteen gaur egungo egoerarekin kritikoenak ezker abertzaletik gertuen daudenak dira.

4.3 taula: Orokorrean, nolakoa da zure ustez gaur egungo gazteen egoera? (II)

	GUZTIRA	ADIN TALDEAK			KLASE SOZIALA			BEGIKOTASUN POLITIKOA*										
		15-19	20-24	25-29	Altua	Ertaina	Baxua	PP	PNV	PSE-EE	IU/EB	Aralar	Ezker abertzaleko beste talde batzuk	EA	UA	Beste alderdiak	Denak	Batere ez
Ona.....	20	35	22	11	29	20	11	33	21	15	10	21	13	11	0	12	0	22
Erdipurdikoa.....	60	57	60	58	59	60	57	50	61	71	70	68	52	67	0	67	100	56
Txarra.....	19	7	17	29	11	19	30	17	18	12	20	10	35	22	100	20	0	21
Ed/Ee.....	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	0	0	0	0	0	0	0	1
Guztira ehunekotan....	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan....	1.500	412	588	500	117	1.265	109	12	123	85	97	42	117	43	1	19	1	639

* "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" jarraitzaileen datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi baitaude kategoria horietan.

4.2.3. Euskal Herriaren egoera

Gaztediak Euskal Herriaren egoera orokorraren inguruan ondorengo iritzia (4.4 taula) agertzen du: gazteen gehiengoak (%61ek) egoera erdipurdikoa dela uste dute, datu honek ez du 2000an jasotakoarekin (%63,3) funtsezko desberdintasunik agertzen. Aldaketarik nabarmenena, ordea, duela lau urte egoera ona zela ziotenak %18,4 zirela eta orain %26 direla da, herriaren egoerari buruzko ikuspegi optimistari eusten dioten 7,6 puntuko igoera esanahi duelarik horrek.

15 eta 19 urte artean dituztenek eta klase sozial altukoek Euskal Herriaren ikuspegi optimistagoa dute; adina igo eta klase soziala jaitsi ahala, optimismoa jaitsi egiten da.

Lurraldearen arabera aztertuz, ikuspegi on hau hiru probintzietan gehitu da. Araba eta Bizkaia dira 2000tik igoera handiena jaso dutenak, honela: %26 eta %28, hurrenez hurren, dira orain egoera ona dela diotenak duela lau urte %19,1 eta %17,8 ziren bitartean.

Bestalde eta ideologiaren arabera aztertuz, batez ere euskal herritarrak edo euskal herritarrak bezain espainiarrak direnak egoerarekin pozen daudenak direla dirudi; egoera ona dela diotenak, gainera, duela lau urte baino gehiago dira. Halaber, batez ere espainiarrak direla dioten artean ikuspegi ezkorra dutenen kopurua nabarmen jaitsi da (6,4 puntu 2000. urtearekiko).

Azkenik eta gazteek gertuen duten alderdi politikoaren arabera, EAJren jarraitzaileak agertzen dira batik bat Euskal Herriaren egoera ona dela uste dutenen artean, 2000. urtearekiko hamar puntuko igoerarekin. Bestalde, Euskal Herriaren egoera orokorra-ekin kritikoen azaltzen direnak EB eta Ezker abertzaleko beste talde batzuen jarraitzaileak dira.

4.4 taula: Nola ikusten duzu Euskal Herriaren egoera, orokorrean?

Ehuneko horizontalak	Ona	Erdipurdikoa*	Txarra	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira absolututan
GUZTIRA	26	61	11	2	100	1.500
LURRALDEA						
Araba	28	58	10	4	100	215
Bizkaia	26	63	10	1	100	805
Gipuzkoa	25	61	14	1	100	480
ADIN TALDEAK						
15-19	26	61	11	2	100	412
20-24	33	58	6	2	100	588
25-29	26	62	12	1	100	500
KLASE SOZIALA						
Altua	31	64	5		100	117
Ertaina	26	61	11	2	100	1.265
Baxua	15	63	19	3	100	109
EUSKAL HERRITARRA-ESPAINIARRA ARDATZA						
Espainiarra	14	69	13	4		77
Euskal herritarra bezain espainiarra	27	65	7	1	100	488
Euskal herritarra	27	58	14	1	100	777
Ed/Ee	24	64	7	5	100	158
BEGIKOTASUN POLITIKOA *						
PP	33	67	0	0	100	12
EAJ	38	55	4	3	100	123
PSE-EE	19	69	11	1	100	85
EB	14	74	12	0	100	97
Aralar	27	65	8	0	100	42
Ezker abertzaleko beste talde batzuk	15	50	35	0	100	117
EA	26	63	10	1	100	43
UA	0	0	100	0	100	1
Beste alderdiak	12	65	22	0	100	19
Denak	0	100	0	0	100	1
Batere ez	27	62	10	1	100	639


* “PP”, “UA”, “Beste alderdiak” eta “Denak” jarraitzaileen datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi baitaude kategoria horietan.

4.3. KEZKA PERTSONALAK

Gazteen %70ek beraien egoera pertsonalarekin pozik daudela dioten arren, ehuneko garrantzitsu batek uste du gaztediaren eta Euskal Herriaren egoera orokorra erdipurdikoak direla. Ondoren gazteak balorazio horiek eskaintzeko dituzten arrazoiak aztertuko ditugu, gazteek egun dituzten kezka nagusienekin ezbairik gabe harremanetan daudelako.

Ildo honetan esan dezakegu, lanak jarraitzen duela gazteen kezka nagusia izaten (4.3 grafikoa), %61ek adierazten baitute hori, 2000. urtean ere lehen tokian zen baina orduetik hiru puntu jaitsi da. 2000. urtean agertu zen joerarekin jarraituz, 20 urtez azpiko gazteak dira hortik gorakoak baino lanarekiko kezka gutxiago adierazten dutenak.

4.3 grafikoa: Zeintzuk dira gazte bezala, gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?



Herrialdearen arabera ere aldeak daude (4.5 taula): Arabako gazteak dira euren kezka nagusi bezala lana gehien aipatzen dutenak; halaber, lanagatik kezkatuago agertzen dira ezkerreko direla diotenak eta ideologikoki Aralarretik hurbilen daudenak (%66 eta %79, hurrenez hurren).

Azkenik, langabezia daudenek (%85) eta klase sozial baxukoak direla diotenek (%68) lanagatik kezka gehiago adierazten dutela ikusten dugu.

Lanaren ondoren, gazteek gehien aipatzen duten arazoa etxebizitzarena da (%59k), gai honek 2000an ere bigarren tokian zen, nahiz eta orduan nahiko aipamen gutxiago izan (%31,2). Ia inkestari erantzun dioten hamar gaztetatik seik aipatzen dute beraz; bereziki gehiago aipatzen dute 20 urte edo gehiago dituztenek edota lanean daudenek. Kasu honetan, berriro ere, ezkerrekoak eta ezker abertzaleko beste talde batzuetatik gertu daudela dioten gazteak dira kezkatuen daudenak.

2000. urtean ez bezala, hirugarren lekuan dirua azaltzen da, gazteen %14k aipatzen baitute; aldiz orduko hartan hirugarren lekuan terrorismoa azaltzen zen (gazteen %19,3k aipatua) eta orain, haatik, gazteak gehien kezkatzen dituen gaien artean bosgarren lekura pasa da. Kezka horien funtsean leudeke arestian dagoeneko aipatutako lan egonkorrik eza, lan kontratu mugagabeen falta eta independizatu ahal izateko norbere baliabideak izateko gazteek adierazi duten nahia.

Ildo honetan, diruaz mutilak gehiago kezkatzen dira neskak baino, batez ere 20 eta 24 urte artean. Bestalde, Bizkaiko gazteek beste herrialdeetakoek baino arduraz gehiago adierazi dute. Halaber, deigarria da klase sozialaren araberrako alderik ez dela ikusten arazo honetan.

2000. urtean laugarren kezka (%15,3) politika zen, aldiz orain %8raino jaitsi da kezka hori eta bere aurretik ikasketak bezalakoak azaltzen dira, gazteen %12k aipatu baititu. Gazteenak (15-19 urte) dira ikasketekiko kezkatien azaltzen direnak (%30) eta baita ikasleak beraiek ere (%17). Politika, bestalde, ezker abertzaleko beste talde batzuetatik (%29) eta EAatik (%24) gertu dauden gazteek aipatu dute gehien.

Terrorismoa gazteen %9k jo dute euren kezka pertsonal garrantzitsuenen artean. Arazo hau gehien aipatu dutenak euren pentsaeraz PPTik (%43) eta PSE-EEtik (%23) gertuen daudenak dira. Halaber, terrorismoaz kezka handiagoa adierazi dute ikasleek (%25). Euskal

herritarrak bezain espainiarrak direla diotenak gehiago aipatu dute arazo hau (%14) nortasun ardatz horren bi muturretan kokatzen direnek baino.

4.5 taula: Zeintzuk dira gazte bezala, gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak

	Lana	Etxebizitza	Dirua	Ikasketak	Terrorismoa	Politika	Drograk	Besterik
TOTAL	61	59	14	12	9	8	6	13
SEXUA								
Gizonezkoak	61	59	16	10	7	9	5	13
Emakumezkoak	61	59	13	14	11	7	7	14
ADIN TALDEAK								
15-19	34	32	15	30	6	6	12	21
20-24	67	67	17	9	10	8	3	12
25-29	73	71	12	3	12	10	5	10
LURRALDEA								
Araba	66	62	10	12	8	9	7	17
Bizkaia	62	55	17	14	10	6	5	13
Gipuzkoa	57	65	13	9	9	11	7	12
LANBIDE NAGUSIA								
Ikasten	52	45	13	17	25	9	8	7
Lanean *	65	74	16	13	3	10	10	5
Langabezian	85	56	16	11	3	10	5	7
Etxeko lanak **	65	49	30	9	5	10	3	5
KLASE SOZIALA								
Altua	66	60	14	19	11	12	12	4
Ertaina	61	60	15	14	13	10	8	6
Baxua	68	63	15	16	9	8	10	8
EZKER ESKUIN ARDATZA								
Ezkerra	66	63	11	9	12	13	4	15
Zentrua	63	59	9	14	9	3	3	17
Eskuina	54	48	10	9	13	8	10	7
Ed/Ee	54	56	20	16	7	3	8	11
EUSKAL HERRITARRA ESPAINIARRA ARDATZA								
Euskal herritarra	60	62	14	11	7	12	6	16
Euskal herritarra bezain espainiarra	65	58	13	15	14	4	5	10
Espainiarra	57	60	18	11	8	4	8	17
Ed/Ee	53	48	20	12	7	4	8	9
BEGIKOTASUN POLITIKOA ***								
PP	32	32	9	5	43	9	10	17
EAJ	61	58	13	11	11	11	9	13
PSE-EE	68	59	6	11	23	5	8	21
EB	62	64	5	8	19	15	2	20
Aralar	79	67	5	1	3	11	7	19
Ezker abertzaleko beste talde batzuk	53	70	14	6	5	29	3	24
EA	59	67	10	6	15	24	2	22
UA	100	64	0	36	36	0	0	0
Beste alderdiak	65	61	17	21	12	13	7	12
Denak	100	100	0	0	0	0	0	0
Batere ez	62	57	19	15	8	4	6	11
Ed/Ee	57	58	13	12	4	3	7	8

* "Lanean" kategorian sartzen dira baita lanean eta ikasten ari direnak.

** Etxeko lanak kategorian dauden datuak ez ditugu komentatu, laginean oso kopuru txikia baitago kategoria horretan.

*** Era berean, "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" jarraitzaileen datuak ez dira komentatu, laginean oso lagun gutxi baitaude kategoria horietan.


Azkenik, eta 2000. urtean bezala, gazteek drogen arazoa aipatu dute (gazteen %6k aipatua), kasu honetan orduan baino hiru puntu gutxiagoko aipamenarekin. Gai honen inguruan kezkatuenak 15 eta 19 urte artekoak azaltzen dira. Ideologia politikoaren arabera, euren burua eskuinean kokatzen dutenak azaltzen dira kezkatien.

EAEko gazteen kezkak Instituto de la Juventud (INJUVE)⁵ 2003an egindako iritzi azterketan jasotakoekin konparatzen baditugu, Estatu mailan ere lana/langabezia gazteen kezkarik garrantzitsuenetakoa dela dakusagu. Honek dirudi, a priori, bateko gazteak eta bestekoak kezkatzen dituen gaietan kointzidentzia bakarra; Estatu mailan, terrorismoa, drogak eta delinkuentzia baitira lana/langabeziaren ondoren gehien aipatzen diren arazok, eta aldiz, EAEko gazteek horiek gutxiago aipatzen baitituzte.

4.4. EAE-KO HEZKUNTZA-SISTEMAREN BALORAZIOA

Hezkuntza-sistemaren balorazioa egiteko orduan ezinbestekoa da gazteen iritzia jasotzea, sistema horretan inplikazio zuzena duen taldea baita. Ildo honetan, 1. atalean aipatu dugun bezala, inkesta erantzun duten gazteen erdia baino gehiago ikasten edota aldi berean ikasten eta lanean daude.

4.4 grafikoa: Zer nolako ikasketak bukatu dituzu?



Sexuaren arabera aztertuz, mutilek lanbide ikasketak (LH) egitea neskek baino nahiago dutela dakusagu. Neskek mutilek baino gehiago aukeratzen dituzte derrigorrezko ikasketen ondorengoak, hala Batxilergoa, diplomaturak edo lizentziak. Klase sozialari dagokionez, klase altukoak direla diotenek derrigorrezko hezkuntza baino goragoko ikasketak (Batxilergoa eta antzekoak, diplomatura eta lizentziak) gehiago aukeratzen dituzte eta aldiz, klase baxuko gazteek derrigorrezko hezkuntza (OHO eta DBH) eta lanbide ikasketak (LH).

⁵ INSTITUTO DE LA JUVENTUD (INJUVE): *Sondeo de opinión y situación de la gente joven. Percepción generacional, valores y actitudes, asociacionismo y participación*, Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales, 2003.

4.6 taula: Zer nolako ikasketak bukatu dituzu?

	GUZTIRA	SEXUA		KLASE SOZIALA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Altua	Ertaina	Baxua
Lehen maila	6	6	6	4	6	3
OHO edo DBH	22	24	21	10	23	24
Lanbide Heziketa (LH)	19	23	15	10	19	28
Batxilergoa, IEE, BBB, UBI	28	27	29	37	28	22
Diplomatura	12	9	15	18	12	7
Goi-mailakoak	13	11	15	22	12	15
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	117	1.265	109

EAEko datuak Estatu osorako CISEk 2001ean egindako *Valores y creencias de los jóvenes* azterketarekin erkatu ezker, Euskadin gehiago dira erdi eta goi-mailako ikasketak egiten dituzten gazteak (%25ek diplomaturak, lizentziak eta abar) Estatu mailan 2001ean horrelako ikasketak aukeratzen zituztenak baino (%15ek).

Bestalde, EAEko gazteen %72k diote euren ikasketa zentroetan jaso dutela informazio eta orientabiderik beraien lan etorkizunaren inguruan (4.7 taula). Orientazio gehien jaso dutenak gazteenak dira (15 eta 19 urte artekoen %80k eta aldiz 24 urtetik gorakoen %62k), eta baita oraintxe ikasten ari direnak ere (%80).

4.7 taula: Zure ikasketa zentroan jaso duzu informazio eta orientabiderik zure lan etorkizunerako aukera desberdinei buruz?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			LANBIDE NAGUSIA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ikasten	Lanean*	Langa-bezian	Etxeko lanak**
Bai	72	72	72	80	76	62	74	71	73	80	69	61	58
Ez	25	24	25	16	22	35	25	25	25	17	29	34	37
Ed/Ee	3	3	2	4	2	3	1	4	2	3	2	5	6
Guztira ehunekotan...	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan...	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	642	691	132	23

* "Lanean" kategorian sartzen dira baita lanean eta ikasten ari direnak.

** Etxeko lanak kategorian dauden datuak ez ditugu komentatu, laginean oso kopuru txikia baitago kategoria horretan.

Ondoren, EAEko hezkuntza-sistemari buruzko iritzia galdetu zaie gazteei (4.8 taula): erdiek baino gehixeagok (%53) nahikoa ona edo oso ona dela uste dute, 2000. urtearekiko 8,8 puntutan igo den ehunekoa, bitartean lau puntu jaitasi delarik ez ona ez txarra dela uste dutenen ehunekoa (%35) eta bost puntu nahikoa txarra edo oso txarra dela uste dutenena (%8).


Balorazioetan alde handirik ez dagoen arren, neskek, gazteetan gazteenek (15-19 urte) eta Bizkaian bizi direnek gainontzekoek baino pixka bat balorazio baikorrakoak eskaintzen dituzte.

4.8 taula: Zer iritzi duzu Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistemaz?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso ona	8	9	7	9	8	9	6	9	7
Nahikoa Ona	45	42	49	48	46	42	44	46	45
Ez ona ez txarra	35	35	34	33	35	37	40	32	37
Nahikoa txarra	5	5	4	4	5	5	3	4	6
Oso txarra	3	4	1	2	2	4	3	3	2
Ed/Ee	4	4	4	4	4	5	4	4	4
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480


Euskal herritarra-espainiarra nortasun ardatzean kokatzen diren tokiaren arabera aldeak daude: EAEko hezkuntza-sistema hobekien baloratzen dutenak batez ere euskal herritarrek sentitzen direnak dira (%56k oso edo nahikoa ona deritzote), eta aldiz zerbait okerrago baloratzen dute batez ere espainiarrek (%46ra jaisten dira oso edo nahikoa ona dela uste dutenena).

4.5 grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa bukatutako ikasketen arabera



Lortutako ikasketa mailak aztertuz gero (4.5 grafikoa), zera ikusiko dugu: goi-mailako ikasketak bukatu dituztenak besteak baino zerbait kritikoagoak direla hezkuntza-sistemarekin. Azkenik, lanbide nagusiaren arabera hezkuntza-sistemaren balorazioa aztertzerakoan, baloraziorik positiboena ikasten ari direnak direla ikus dezakegu (4.6 grafikoa). Edozelan ere eta adierazitako aldeak badauden arren, aztertutako kolektibo guztietan balorazio orokor positiboak nagusi dira.

4.6 grafikoa: Hezkuntza-sistemaren balorazioa lanbide nagusiaren arabera



4.5. EUSKAL ERAKUNDEEK GAZTEDIAREN GAIAN EGITEN DUTEN LANAREN BALORAZIOA

EAEko gazteak euskal erakunde desberdinek gazteei dagozkien gaien inguruan egiten duten lanarekin –zehazkiago udal, diputazio eta Eusko Jaurlaritzaren lanarekin–, kritiko agertzen dira (4.9 taula). Alabaina, Eusko Jaurlaritza beste erakundeak baino zertxobait hobeto baloratzen dute, 4,6 puntu Otik 10erako eskalan.

Aztertu ditugun kolektibo guztietan Eusko Jaurlaritza da hobekien baloratzen duten erakundea. Oro har, balorazioetan kolektiboen arteko aldeak funtsezkoak ez diren arren, erakunde guztientzako baloraziorik onenak honakoek adierazten dituzte: 15 eta 19 urte artekoak, klase altukoak eta ideologikoki zentroan kokatzen direnek (hauek denak dira, gainera, Eusko Jaurlaritzak gaztediaren gaien egiten duen lanari oniritzia ematen dioten bakarrak).

4.9 taula: Hainbat erakundek gaztediaren gaietan egindako lanaren balorazioa

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			KLASE SOZIALA			EZKER-ESKUIN ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Ertaina	Baxua	Ezkerra	Zentrua	Eskuina	Ed / Ee
Udala	4,2	4,1	4,3	4,7	4,2	3,9	4,4	4,1	4,3	4,6	4,2	3,8	4,0	4,5	4,3	4,4
Diputazioa	4,4	4,2	4,5	4,9	4,3	4,0	4,4	4,3	4,5	4,7	4,4	4,0	4,2	4,9	4,9	4,5
Eusko Jaurlaritza	4,6	4,4	4,7	5,1	4,4	4,3	4,8	4,4	4,7	5,0	4,6	4,2	4,4	5,1	5,1	4,7

ONDORIOAK

- EAEko hamar gaztetatik zazpi euren egoera pertsonalarekin pozik daude; 19 eta 24 urte artekoak eta klase sozial altukoak direla diotenak daude gustuen. Poztasun hau handitu egin da 2000. urtearekiko.
- Baina, batetik, EAEko gazteriaren egoera eta bestetik, Euskal Herriko egoera orokorra baloratzerakoan, gazteen erdiak baino gehiagok biak erdipurdikoak direla diote. Berriro ere, gazteenek eta klase sozial altukoek adierazi dituzte baloraziorik positiboena.
- EAEko gazteek aipatzen dituzten kezka nagusienak ondorengoak dira: lana (%61) eta etxebizitza (%59). Bi gai horiek ziren 2000an ere aipatuena, nahiz eta etxebizitza ordutik (%31,2) hona aipamenetan asko igo (%59). Atzetik, aipamen kopuru txikiagoekin, dirua, ikasketak, terrorismoa, politika eta drogak daude.
- EAEko hezkuntza-sistemari buruzko iritziari dagokionez, gazteen erdiak baino gehixeagok (%53) oso ona edo nahikoa ona dela deritzote, %35ek ez ona ez txarra dela eta soilik %8k oso edo nahikoa txarra dela.
- Bestalde, EAEko gazteriaren %72k jaso du euren ikastetxeetan informazioa eta lanbide orientazioa, gazteenek eta ikasten ari direnek jaso dutelarik informaziorik gehien.
- Gazteak kritiko agertzen dira euskal erakundeek gaztediaren gaietan egiten duten lanarekin. Eusko Jaurlaritzak lortzen du baloraziorik onena gazteen aldetik 4,6 punturekin, udalek 4,2 puntu eta diputazioek 4,4 jasotzen dituzten bitartean.



5

Jarrera politikoak

5.1. SARRERA

Idazle batzuek¹ aipatzen dute gizarte demokratikoek ondokoen moduko gertaera gogoangarriak lortu badituzte ere: ongizate-estatua, adierazpen-askatasuna, sinesmen-askatasuna, pertsonen arteko eskubideen berdintasuna, e.a., gaur egun hutsuneak ere badituztela eta horien artean herritarrek gai publiko eta kolektiboetan parte hartzeko itxuraz adierazten duten desilusia legokeela.

Jarrera hori azaldu nahian, sarritan argudiatzen diren arrazoiak ondokoak dira: ordezkatu eta ordezkarien arteko urruntasuna, erakunde eta politikoengandiko gaitzusteak, benetan axolatzen zaizkigun arazoak konpontzen ez direnaren sentsazioa, politika-munduarekiko mesfidantza eta gogo-gabezia orokorra, mundu horren aurrean ez direlako prest sentitzen eta horregatik adituen esku uzten dituzte gai horiek, e.a.

Gaur egun euskal gazteen jarrera politikoak zeintzuk diren ezagutzeko atal honetan zehar ondoko arloak aztertuko dira: gai publikoetan parte-hartzeko gogoak, beren joera ideologikoak, ezker-eskuin eta euskal herritar-espainiar ardatzetan beraien kokapena, alderdi politikoetatik sentitutako gertutasuna eta, azkenik, Europarekiko nortasun sentimendua.

5.2. PARTE-HARTZE POLITIKOA

Parte-hartzeari buruzko gazteen jarrera baloratzean (5.1 taula) ikus daiteke kontsultatutako gazteen %54k ez dutela gai publikoetan neurri handiagoan parte hartu nahi; horien aurrean %27ri gustatuko litzaieke parte-hartze hori handitzea. Bakarrik %8k diote jadanik nahikoa parte hartzen dutela. 2000ko datuekin konparatuz gero, ikus daiteke nola gustatuko ez litzaiekeen ehunekoak antzera jarraitzen duen bitartean, gehiago parte-hartzea gustuko luketenen ehunekoak ia bost puntu jaitsi dela.

¹ BOLADERAS CUCURELLA, Margarita: "La opinión pública en Habermas", en *Cuadernos de Cultura* 26, 2001.

ORTEGA, Félix: *La democracia en peligro de desencanto político* [Hitzaldia, Kantabriako Unibertsitateko udako ikastaroak, 2002].

Orain dela lau urte gertatzen zen moduan, emakumezkoak parte-hartzearen aldekoak dira (emakumezkoen %31 eta gizonezkoen %23), dena den, gogo horrek ia zazpi puntu galdu ditu 2000tik hona.

Era berean, adinari erreparatuta, gazteetan gazteen artean (15-19 urtekoak, hain zuzen ere), parte-hartzeko gogoak beherantz egin duela baieztatu daiteke, 2000 urtean gehiago parte hartu nahi zuten nerabeak %38,5 baziren, orain bakarrik %29k diotelako gauza bera, 15-19 urte bitarteko gazteen artean gogo-gabezia ia hamar puntu gehitu delarik.

Azkenik, norberaren burua euskal herritar-espainiar ardatzean kokatzen den tokiaren arabera 2000an ikusitako joera indartzen da, honela: beren burua batez ere euskal herritartzat jotzen dutenak dira beren parte-hartzea handitzea gehien nahi dutenak (horietako %31k arazo publikoetan gehiago parte hartu nahiko lukete); batez ere espainiarrak sentitzen direnen artean, aldiz, %19k nahiko lukete parte-hartzea handitzea, nahi hori hamabi puntu jaitsi da 2000tik hona. Ezker-eskuin ardatzaren arabera aztertuz, beren burua zentrotzat jotzen dutenen artean ere gogoak atzera egin duela nabari da, horien artean gai publikoetan parte-hartze handiagoa nahiko luketenak 2000ko %35,7tik %20ra jaitsi baitira 2004 urtean.

5.1 taula: Gustatuko litzaizuke gai publikoetan gehiago parte hartzea?

	Gehiago parte hartu nahiko nuke	Uste dut nahikoa parte hartzen dudala	Ez litzaizuke gustatuko	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira absolututan
GUZTIRA	27	8	54	11	100	1.500
SEXUA						
Gizonezkoak	23	9	56	11	100	750
Emakumezkoak	31	7	53	10	100	750
ADIN TALDEAK						
15-19	29	7	56	11	100	412
20-24	30	9	50	11	100	588
25-29	22	8	60	10	100	500
EZKER-ESKUIKIN ARDATZA						
Ezkerra	33	10	49	9	100	611
Zentroa	20	9	60	11	100	223
Eskuina	35	5	54	6	100	38
Ed/Ee	21	6	59	13	100	627
EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA						
Euskal herritarra	31	8	50	10	100	777
Euskal herritarra bezain espainiarra	23	7	58	11	100	488
Espainiarra	19	2	69	9	100	76
Ed/Ee	24	9	54	13	100	158

Arreta jartzeko beste aldea hauxe da: nahiz eta politika arloan gehiago parte-hartzea gustatuko ez litzaiekeen gazteen ehunekoa handiagoa izan, EAEko gazteriaren %70 Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabaki ahal izateko kontsulta bat egitearen alde dago (5.2 taula). Honek adieraz dezake gazteek, ez badute banakako parte-hartze handiagoa izan nahi ere, kontuan hartuak izan nahi dutela Euskal Herriko gaitaz erabaki behar denean.

Kasu honetan kontsulta hori egitearen aldekoenak hauexek dira: 20 urtetik gorakoak, gipuzkoarrak, beren burua ezkerrean kokatzen dutenak, batez ere euskal herritarrek sentitzen direnak eta ideologikoki Aralarretik, ezker abertzaleko beste taldeetatik, EAJtik, EAtik eta EBtik gertu sentitzen direnak.

5.2 taula: Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabaki ahal izateko kontsulta bat egitearen alde egongo zinateke?

	Bai	Ez	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira absolututan
GUZTIRA	70	9	20	100	1.500
SEXUA					
Gizonezkoak	72	9	20	100	750
Emakumezkoak	69	10	21	100	750
ADIN TALDEAK					
15-19	65	9	25	100	412
20-24	72	10	19	100	588
25-29	73	10	19	100	500
LURRALDEA					
Araba	73	15	12	100	215
Bizkaia	65	9	26	100	805
Gipuzkoa	77	8	15	100	480
EZKER-ESKUIN ARDATZA					
Ezkerra	85	5	11	100	719
Zentroa	65	20	15	100	108
Eskuina	58	33	9	100	46
Ed/Ee	55	11	33	100	625
EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA					
Euskal herritarra	85	3	11	100	777
Euskal herritarra bezain espainiarra	61	15	25	100	488
Espainiarra	42	36	22	100	77
Ed/Ee	40	10	50	100	158
BEGIKOTASUN POLITIKOA *					
PP	39	50	11	100	12
EAJ	90	8	2	100	123
PSE-EE	62	25	13	100	85
EB	87	1	12	100	97
Aralar	97	0	3	100	42
Ezker abertzaleko beste taldeak	97	0	3	100	117
EA	90	1	8	100	43
UA	36	64	0	100	1
Beste alderdiak	85	8	7	100	19
Denak	100	0	0	100	1
Bat ere ez	67	10	24	100	639

* "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi jaso direlako

5.3. JARRERA IDEOLOGIKOA


Jarrera edo kokapen ideologikoa aztertzeke asmoz, aldagai politiko arruntenetariko batzuk landuko ditugu, hau da, ezker-eskuin ardatza, euskal herritar-espainiar nortasun

sentimenduak eta alderdi politikoekiko gertutasuna. Horrekin batera euskal gazteek duten europar nortasun sentimendua ere aztertuko da.

5.3.1. Ezker-eskuin ardatza²

Euskal gazteriaren erdiak baino apur bat gutxiagok (%42k) ideologikoki ez datorrela bat ez eskuinarekin ez zentroarekin ez ezkerrekin diote. Bat ez etortze hori zortzi puntu jaitsi da 2000tik hona, eta, bai lehen bai orain, apur bat zabalduago dago emakumezkoen artean eta 15-19 urte bitarteko gazteen artean.

5.1 grafikoa: Ezker-eskuin ardatza (guztira)



Gazteen gehiengoa (%47) ezkerrean kokatzen dira argi eta garbi. Horrek 2000 urtean izandako ezkererantzako joera errepikatzen du; gainera orain, ehuneko hori hamar puntutan igo da eta, era berean, eskuinean kokatzen direnek bost puntu galdu dituzte. Aztertutako talde guztietan ezkererantzako joera igo da 2000tik hona.

5.3 taula: Eskuineko eta ezkerreko izatearen artean, nola definitzen duzu zure burua?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Oso eskuinekoa	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Eskuinekoa	2	3	2	3	2	2	1	3	2
Zentro eskuinekoa	1	1	0	0	1	1	1	0	1
Zentrokoa	7	8	7	7	7	7	7	6	9
Zentro ezkerrekoa	7	8	6	6	7	8	7	8	6
Ezkerrekoa	39	40	39	29	45	41	42	38	40
Oso ezkerrekoa	1	2	1	2	1	2	1	1	1
Ed/Ee	42	39	45	52	38	39	40	43	40
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480

Gure datuak 2003an CISek eginiko *Sondeo sobre la juventud española* ikerketaren emaitzekin konparatzen baditugu, ikus dezakegu estatuan ezkerrean kokatzen direnak are

² Ideologia ondoko kategorietan definitua daukagu: *ezkerrekoa* (zentro ezkerrekoa, ezkerrekoa edo oso ezkerrekoa), *zentroa eta eskuina* (zentro eskuinekoa, eskuinekoa, oso eskuinekoa) eta *ed/ee*.


gehiago direla (%63,3k ezkerrekotzat jotzen dute beren burua eta eskuinekotzat, aldiz, bakarrik %1,2k). Kasu honetan ere inorekin bat ez etortzea zabaldua dago, %22,4k ez dutela ardatzeko inolako muturrekin bat egiten baitiote.

5.3.2. Euskal herritar-espainiar ardatza³

Atal honetan aztertuko dugun bigarren ardatz ideologikoa euskal herritar-espainiar nortasun sentimenduari dagokiona da.

5.2 grafikoa begiratu, ikus daiteke nola EAEn inkestatutako gazteen erdia baino zertxobait gehiago batez ere euskal herritarra sentitzen diren (%52). Ehuneko horrek lau puntu galdu ditu 2000ko neurketatik hona; dena den, oso zabaldua da oraindik, bereziki batez ere espainiarra sentitzen direnekin (%6) konparatuz gero.

5.2 grafikoa: Euskal herritar-espainiar ardatza (guztira)



Kasu honetan gipuzkoarrak dira euskal herritar sentimendu handiena dutenak (5.4 taula), 2000ko joera bera mantenduz.


5.4 taula: Euskal herritarra edo espainiarra sentitzearen artean, nola jotzen duzu zure burua?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskal herritarra bakarrik	37	40	34	39	38	33	28	33	46
Euskal herritarra espainiarra baino gehiago	15	14	16	14	14	17	19	15	14
Euskal herritarra bezain espainiarra	33	31	34	30	33	34	35	34	29
Espainiarra euskal herritarra baino gehiago	3	2	3	3	3	2	3	3	2
Espainiarra bakarrik	3	1	4	2	3	3	3	3	2
Ed/Ee	11	12	9	13	8	11	13	12	7
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480

³ Kategoriak honela definituta daude: “batez ere euskal herritarra” (euskal herritarra bakarrik edo euskal herritarra espainiarra baino gehiago), “euskal herritarra bezain espainiarra”, eta “batez ere espainiarra” (espainiarra euskal herritarra baino gehiago edo espainiarra bakarrik), ed/ee.

Datu hauek CISEk 2001ean eginiko Valores y creencias de los jóvenes ikerketakoekin konparatuz, aipatzekoa da Espainia edo estatu osokoak sentitzen ziren %19,9aren aurrean ia bi halako, %37,8, beren herrikoak edo hirikoak sentitzen zirela, gero %9,4 beren probintziakoak, eta %12,6 beren autonomia-erkidegokoak. Horrek aditzera eman dezake gazteak asko identifikatzen direla euren bizi-jarduera garatzen duten lekuarekin.

5.3 grafikoa: Batez ere nongo herritarra sentitzen zara?
(Datua Espainiako Estatu osokoak dira. CIS 2001)



5.3.3. Gertueneko alderdi politikoa

5.5 taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen? (I)

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonz-koak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
PP	1	1	1	2	1	0	1	1	0
EAJ	8	9	7	8	7	11	8	9	8
PSE-EE	6	6	5	5	7	5	10	5	6
EB	6	5	8	5	7	8	10	6	5
Aralar	3	3	3	2	3	3	2	2	5
Ezker abertzaleko beste talde batzuk ..	8	8	7	6	9	7	6	7	10
EA	3	3	3	1	4	3	4	3	3
UA	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Beste alderdiak	1	1	2	1	1	2	0	1	2
Denak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bat ere ez	43	42	43	44	42	42	31	43	46
Ed/Ee	21	21	21	25	20	20	27	24	15
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480

* "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi jaso direlako

Euskal gazteei zein alderdi politiko dagoen beren pentsaeratik gertuen galdetuta (5.5 taula), %43 nabarmentzen dira, ez direlako euskal espektroko inolako alderdi politikoetatik gertu sentitzen diotelako. Alderdi politikoetatik urruntasun hori bost puntu igo da 2000tik hona. Gainera bost gaztetatik batek ez du erantzun (datu hori lau puntutan jaitsi da lehendik hona).

Dena den, gazteen pentsaeratik gertuen dauden partiduak EAJ eta ezker abertzaleko beste talde batzuk dira, kasu bietan gazteen %8k aipatzen dituzte; atzetik datoz PSE-EE eta EB, biak %6rekin. 2000ko emaitzekin konparatuz, lehenengo biek %3 galtzen dute eta hurrengo biak apur bat gehitzen dira ehunekotan.

Gipuzkoa da ezker abertzaleko taldeetatik gertuen dagoen probintzia (gazte gipuzkoarren %10) eta Araba da PSE-EEtik eta EBtik gertuen sentitzen diren gazte gehien daukana (%10 alderdi biekiko).

5.6 taula: Zein alderdi politiko dago zure pentsaeratik gertuen? (II)

	GUZTIRA	EZKER-ESKUIN ARDATZA				EUSKAL HERRITAR-ESPAINIAR ARDATZA			
		Eskuina	Zentroa	Ezkerra	Ed / Ee	Euskal herritarra	Euskal herritarra bezain espainiarra	Espainiarra	Ed / Ee
PP	1	20	0	0	1	0	1	5	1
EAJ	8	33	17	9	5	13	4	1	2
PSE-EE	6	9	9	9	1	1	13	13	1
EB	7	0	1	13	1	5	10	4	6
Aralar	3	0	1	5	1	5	0	0	1
Ezker abertzaleko beste taldeak	8	0	0	15	1	15	0	0	1
EA	3	0	2	5	1	5	1	0	0
UA	0	2	0	0	0	0	0	0	0
Beste alderdiak	1	4	1	2	0	2	0	0	1
Denak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Bat ere ez	43	22	58	33	52	37	48	55	47
Ed/Ee	21	9	11	9	39	17	22	21	41
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	45	109	719	627	776	490	76	158

* "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi jaso direlako

Eskuinean kokatzen diren gazteen artean zentroko edo ezkerrekoen artean baino gehiago dira EAJtik (%33) edo PPTik (%20) gertu sentitzen direnak. Zentrokoen artean nabarmentzen dira inolako partidurik gertu sentitzen ez direnak (%58). Eta ezkerrekoen artean gertutasuna bananduago dago alderdi ezberdinetan, baina gehiago dira (beste taldeetakoekin konparatuz gero) ezker abertzaleko taldeetatik (%15) eta EBtik (%13) gertu sentitzen direnak.

Euskal herritar-espainiar ardatzak ere alde garrantzitsuak adierazten ditu: batez ere euskal herritarrak sentitzen direnen %15 ezker abertzaleko taldeetatik gertu sentitzen dira eta beste %13 EAJtik. Beren burua euskal herritartzat bezain espainiartzat jotzen dutenen ia erdia (%48) ez dira inolako partidutik gertu sentitzen, eta sentitzen direnak batez ere PSE-EEtik (%13) eta EBtik (%10) sentitzen dira hurbil. Bestalde, batez ere espainiar nor-tasun sentimendua dutenen %55 ez dira inolako partidutik hurbil sentitzen, %13 PSE-EEtik dago gertu eta %5 PPTik.

5.3.4. Europarekiko nortasun sentimendua

2000 urtean Europaren eraikitze prozesua bizi zen bitartean, lau urte beranduago Europarekiko erreferentziak askoz arruntagoak bihurtu dira, moneta bakarra dagoeneko ezarri da eta herritarrek errealitate sozial hori gero eta barneratuago dutela eta berarekin identifikatuago daudela dirudi. Gainera, 2004ko urte hau bereziki aipagarria da, inkesta hau egin den aurreko egunetan Europar Batasuna 15 herrialdetatik 25era zabaldu baita eta ondorioz Ekialdera hedatu da. Hori dela eta europar erreferentziak nabarmenki aldatu egin dira ondorengo paradoxa agertuz: herritarrak marko horretan gizarteratuago dauden aldi berean markoa dibertsifikatu da eta gure parametro ekonomiko eta sozialeko desberdintasun handiagoak biltzen ditu.

Egoera honetan EAEko gazteen erdia baino gehiago sentitzen dira gutxi (%40) edo batere ez (%15) europarrak, nahiz eta esan behar den duela lau urtetik hona sei puntu jaitsi den batere europarrak sentitzen ez direnen ehunekoa.

Ez da alde aldirik ikusten generoa eta adinaren arabera, nahiz eta aipagarria den gizonzkoen europar sentimendu txikiagoa.

Lurraldearen araberrako aldeei dagokionez, 2000 urtean zen bezala arabarrak dira europar nortasun altuena adierazten dutenak eta gipuzkoarrak gutxien, nahiz eta azken kasu honetan ere batere europarrak ez direla diotenen ehunekoa hamar puntu baino gehiago jaitsi den 2000 urtearekiko.

Ezker-eskuin ardatza aztertuz gero, berriro ere duela lau urte bezala, europar zaleenak bere burua zentro edo eskuinean kokatzen dutenak dira.

Euskal herritar-espainiar ardatza aztertuz gero, batez ere espainiarrak direla diotenak dira europar nortasun sentimendu altuena agertzen dutenak, sentimendu hori jaisten doa gazteen euskal herritar sentimendua gehitu ahala (euskal herritarrak direla diotenen taldean soilik %30ek diote oso edo nahikoa europar sentitzen direla).

Alderdi politiko desberdinekiko gertutasunaren arabera, PSE-EEtik gertuen dauden gazteek agertzen dute europar nortasun sentimendu altuena eta ezker abertzalearen inguruan dauden gazteek, ordea, baxuena (ezker abertzaleko beste talde batzuetatik gertu dauden hamar gaztetik lau ez da batere europarra sentitzen).

5.7 taula: Zenbateraino sentitzen duzu zeure burua europar ?

	Oso	Nahikoa	Gutxi	Batere ez	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira absolututan
GUZTIRA	7	29	40	15	9	100	1.500
SEXUA							
Gizonezkoak	7	28	40	18	8	100	750
Emakumezkoak	7	31	40	12	10	100	750
ADIN TALDEAK							
15-19	7	29	39	15	9	100	412
20-24	7	28	43	13	9	100	588
25-29	8	30	37	16	10	100	500
LURRALDEA							
Araba	8	37	34	15	6	100	215
Bizkaia	6	28	39	14	12	100	805
Gipuzkoa	8	27	43	16	6	100	480
EZKER-ESKUI ARDATZA							
Ezkerra	6	31	41	17	5	100	611
Zentroa	14	40	33	8	5	100	223
Eskuina	18	39	24	7	12	100	38
Ed/Ee	6	24	40	15	15	100	627
EUSKAL HERRITAR- ESPAINIAR ARDATZA							
Euskal herritarra	4	26	44	20	6	100	777
Euskal herritarra bezain espainiarra ...	10	36	40	7	8	100	488
Espainiarra	15	44	29	8	5	100	76
Ed/Ee	8	17	26	15	34	100	158
BEGIKOTASUN POLITIKOA *							
PP	9	56	35	0	0	100	12
EAJ	11	31	40	10	7	100	123
PSE-EE	15	38	34	8	4	100	85
EB	7	48	30	8	6	100	97
Aralar	5	20	50	19	6	100	42
Ezker abertzaleko beste talde batzuk	5	15	38	40	2	100	117
EA	6	39	40	12	3	100	43
UA	0	64	36	0	0	100	1
Beste alderdiak	2	15	70	7	7	100	19
Denak	0	0	100	0	0	100	1
Batere ez	7	30	41	14	7	100	639
Ed/Ee	5	22	39	14	21	100	321

* "PP", "UA", "Beste alderdiak" eta "Denak" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, laginean oso lagun gutxi jaso direlako.

ONDORIOAK

- EAEko gazteen erdiak baino gehiagok (%54k) diote arazo publikoetan ez dutela gehiago parte-hartu nahi, gehiago parte-hartu nahiko luketen %27ren aurrean. Parte-hartzearen inguruko gogo-gabezia hau nabarmen igo da 2000 urtearekiko.
- Gai publikoetan parte-hartzeko gogo gutxitu den arren, gazteen ia hiru laurdenak Euskal Herriak bere etorkizun politikoa erabakitzeko kontsulta bat egitearen alde agertzen dira. Kasu honetan 19 urtetik gorakoak, ideologikoki ezkerretik hurbilen daudenak eta batez ere euskal herritarrek eta alderdi nazionalistetatik hurbil daudenak dira kontsulta hori egitearen aldekoenak.
- Gazteriaren %42k ez du bere burua ezker-eskuin ardatz ideologikoan inon kokatzen. Definizio eza hedatuago dago nesken eta, bereziki, 15 eta 19 urte arteko gazteen artean. Beren burua nonbait kokatzen dutenen artean, ezkererako joera (%47) askoz nabarmenagoa da zentro (%7) edo eskuinerakoa (%3) baino. 2000 urtearekin konparatuz, beren burua kokatzen ez dutenak gutxitu egin dira (altua izaten jarraitzen duen arren) eta ezkererako joera gehitu da (%12ko igoera).
- EAEko gazteen %52 batez ere euskal herritar sentitzen da, %33k diote euskal herritar bezain espainiar direla eta soilik %6k batez ere espainiarrak direla. Kasu honetan ardatzean kokatzen ez direnak %11ra jaisten dira. Gipuzkoarrak nabarmentzen dira euskal herritar nortasun sentimendu handiagoa agertzen dutelako.
- EAEko gazteriaren %43k ez du alderdi politiko batekiko ere gertutasun sentimendurik adierazten, aurreko alditik bost puntuko igoera esanahi duelarik. Hala ere, %21ek alderdi politikoren batekiko gertutasunari buruz erantzunik emateari uko egin diote. Alderdi desberdinekiko gertutasunaren ehunekoak ez dira inoiz %10etik gorakoak: EAJ eta ezker abertzaleko beste talde batzuekin identifikatzen dira gehien EAEko gazteak (%8), eta ondoren, IU (%7) eta PSE-EErekin (%6).
- Eskuinean kokatzen diren gazteen artean zentroko edo ezkerrekoen artean baino gehiago dira EAJtik (%33) edo PPTik (%20) gertu sentitzen direnak. Aldiz, ezkerrekoen artean beste taldeetan baino gehiago dira ezker abertzaletik, EBtik eta EAtik gertu daudenak. Zentrokoen artean nabarmentzen dira inolako partidurik gertu sentitzen ez dutenak. Bestalde, euskal herritar sentitzen diren gazteen ehunekorik altuenak alderdi nazionalistetatik gertu dauden artean agertzen dira; euskal herritar eta espainiar sentitzen direnen artean batez ere EBtik eta PSE-EEtik gertu daude, eta azken honetatik eta PPTik gertu espainiar sentitzen direnak ere.
- Europarekiko nortasun sentimenduak jarraitzen du hedapen txikia izaten EAEko gazteen artean (%36 oso edo nahikoa europarra), nahiz eta sei puntutan jaitsi den batere europarrak ez direla diotenen ehunekoa. Hala ere, gazte arabarrak, ideologikoki zentro edo eskuinean kokatzen direnak edota espainiar nortasun sentimendua dutenak dira Europarekin gehien identifikatzen direnak.



6

**Erljiioaren
garrantzia**

6.1. SARRERA

Juan Gonzalez-Anleok, Pedro Gonzalez Blascok, Javier Elzok eta Francisco Carmonak 2002. urtean Santa Maria Fundazioarentzako egin zuten *Jóvenes 2000 y religión* izeneko azterlanaren arabera, Estatuan 13tik 24 urtera bitarteko adina duten gazteen %12 bakarririk joaten da igandetan mezatara, eta katolikoak direla eta noizean behin erritoak betetzen dituztela dioten kopurua %33 da, ateoek, agnostikoez eta erlijioarekiko interesik ez dutenek osatzen duten kopuru bera. Gainera, elizaren ortodoxiarekin bat datozen gazteen, hau da, elizak orokorrean onartzen dituen dotrina edo praktikekin ados dauden kopurua %5era murrizten da.

Mezatara sarriago joaten direnen eta beren burua fededunagotzat dutenen artean (Elizarekin gehiago identifikatzen direlako nahiz erlijioan bizitzan orientatzeko laguntza aurkitzen dutelako) 13tik 14 urtera bitarteko gazteak daude, gehienbat neskak, maila altukoak eta botoa eskuinari ematen diotenak.

Estatu osoan egindako azterlan horrek eskaintzen duen beste datu bat da inkestari erantzun ziotenen %20 jarrera fededun batetik jarrera fedegabe batera pasatu zela eta, al-diz, kontrakoa egin zutenak %2 bakarrik zirela.

Azterlan honek erakusten duenaren arabera, Estatuko gazteen eta erlijioaren arteko harremana ez da oso itxaropentsua Elizarentzat. Lana egin duten soziologoek ustez, urruntze honen gakoa da “oso gazte gutxik aurkitzen dutela Elizan beren bizitzan orientatzeko eta beren arazoei irtenbidea emateko erlijiozko laguntza bat”¹.

Txostenak garbi uzten du erlijioak ez duela tokirik gazteen eguneroko bizitzan, gorespen bereziko uneetan eta Aita Santuaren bisitena bezalako bultzada propagandistikoetan izan ezik. Azken hamarkadetan estatuko gizarteak arian-arian jasan duen “seku-larizazio-prozesu” bizkorra da, egileen iritziz, gazteak Elizaren postulatuekin ez identifikatzearen arrazoiak. Kanpoko dinamika horri barneko hainbat “egiturazko arrazoi” gehitu zaizkio eta horiek Eliza katolikoaren zaharkitzeari eta bere mezua belaunaldi berriari

¹ GONZÁLEZ-ANLEO, Juan; GONZÁLEZ BLASCO, Pedro; ELZO, Javier eta CARMONA, Francisco: *Jóvenes 2000 y religión*, Santa Maria Fundazioa.

egokitzen jakin ez izanari lepora dakizkioke. Egokitzen-falta horrek, izan ere, atzera egitea zaila izango dela iragartzen du.

Espainiako eta Europako egoerari dagokionez, Tilburgeko (Holanda) Unibertsitateko soziologiako katedradun eta *Balioei buruzko Europako Inkesta, 2004*ren arduradun Loek Halmanek adierazi duenez, erlijioaren garrantziak behera egiten du gizartearen segurtasunak eta garapenak gora egiten duen neurrian. Horrela bada, gaur egun Espainian hamar pertsonatik zazpi usten du Elizak ez diela egungo gizarte-arazoei modu egokian erantzuten. European frantsesak eta britainiarrak dira fede gutxien dutenak eta sinestunenak, aldiz, portugaldarrak eta italiarrak dira. Holandarrak eta espainiarrak azken talde honetatik hurbil daude.²


Balioei buruzko Europako Inkestak gainera dio mezatara nolabaiteko erregulartasunez joatea aitortzen dutenak gutxi direla. Maiztasun handiena tradizio katolikoko hiru herrialdetan erregistratzen da: Portugal, Italia eta Espainia.

Estatuan eta European ikusten den egoera hau ikusirik, EAEko gazteen erlijiozkotasunari eta erlijio-praktikari buruzko datuak aurkeztuko ditugu orain.

6.2. GAZTEEN ERLIJOZKOTASUNA

Erljiozkotasuna ikuspuntu instituzionaletik aztertuz, 2000. urtean egin zen bezala, EAEko gazteak bi taldetan banatuko ditugu: fededunak eta fedegabeak. Fededunen taldea mezatara joaten diren katolikoek, mezatara joaten ez diren katolikoek eta beste erlijioetakoek osatuko lukete eta fedegabeen taldea, berriz, Jainkoarengan sinetsi arren erlijioetan sinesten ez dutenak, erlijioa interesatzen ez zaienak edo agnostikoen, eta sinesten ez dutenak edo ateoen osatuko lukete (6.1 grafikoa).

6.1 grafikoa: Erljioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?



Gaur egungo euskal gazteek erakusten duten erlijiozkotasuna %46koa da; hau da, *Euskadiko Gazteak, 2000* delako azterlanarekin alderatuta, beren burua fededuntzat duten gazteen segmentuaren murrizketa nabarmena izan da (hamahiru puntukoa).

² Datu hauek biztanleria orokorrari dagozkio.


Zehazkiago, (6.1 taula), gazteen %37k dio mezatarara ez doan katolikoa dela, ia-ia %8k mezatarara doan katolikoa dela dio, eta are gutxiago dira beste erlijio batekoak direla diotenak (%1).

Alderantziz, gazteen erlijiozkotasun-falta %52raino iristen da eta horietatik %33k sinesten ez dutenak edo ateoak direla diote, %15ek erlijioa ez zaiela interesatzen edo agnostikoak direla eta %4k Jainkoarengan sinesten du, baina erlijioetan ez.

6.1 taula: Erlijioari dagokionez, nola definitzen duzu zure burua?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Mezatarara joaten diren katolikoak.....	8	5	10	9	5	10	7	8	6
Mezatarara joaten ez diren katolikoak	37	34	39	34	38	37	39	36	37
Beste erlijioetakoak	1	1	1	1	1	1	1	1	2
FEDEDUNAK.....	46	40	50	44	44	48	47	45	45
Jainkoarengan sinesten dute, baina erlijioetan ez	4	3	6	4	4	5	5	3	6
Erljioa ez zaie interesatzen, agnostikoak	15	15	15	14	14	16	16	14	15
Ez dute sinesten, ateoak.....	33	39	28	36	35	30	30	35	33
FEDEGABEAK.....	52	57	49	54	53	51	51	52	54
Ed/Ee.....	2	3	2	2	3	2	2	3	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480

6.2 grafikoa: EAEko gazteen erlijiozkotasuna, gizarte-mailaren eta ezker/eskuin ardatzean hartutako jarrera politikoaren arabera



Erljiozkotasun-faltaren arian-ariako igoera hau nabarmenago agertzen da gizonezkoen artean (%57) eta horrek adierazten duenez, emakume fededunen kopuruak hamar puntutan gainditzen du gizonezkoena (%50 eta %40 hurrenez hurren) 2000. urtean bezala.

Bestalde, azpimarratzekoa da fededuna izan edo ez izateari dagokionez, desberdintasun garrantzitsuak antzeman direla EAEko gazteen gizarte-mailan eta jarrera politikoan. Horrela bada, bi ardatz horiek aldagai garrantzitsuak izan dira lagina segmentutan banatzeko orduan; izan ere, maila altuko gazteak (%51) maila baxukoak (%43) baino fededunagoak dira, eta beren burua eskuinean kokatzen duten gazteak ere fededunagoak dira (%65) ezkerrekoen aldean (%35).

Azkenik, adierazi beharra dago datu hauen eta estatu-mailako beste ikerketa batzuetan (6.2 taula)³ lortutako arteko konparazioak agerian jarritakoa: hau da, EAEko gazteak ez dira Espainiako Estatuko gainerako gazteak bezain fededunak. Halaber, Ikerketa Soziologikoen Zentroaren (CIS) datuek erakusten dutenez, erlijiozkotasunak gora egin zuen 2001etik 2003ra bitartean eta, aldiz, EAEn prozesuak alderantzizkoa izaten jarraitu du (gazteen erlijiozkotasuna gero eta txikiagoa da) 2000.etik 2004. urtera bitartean.

6.2 taula: Erlijioaren aurrean hartutako jarrera.

(EAEko 2000 * eta 2004 urteetako datuen konparazioa eta Espainiako Estatuko 2001 eta 2003 urteetako datuen konparazioa)

	JV'00*	CIS 01**	CIS 03**	JV'04*
Fededunak	57	62,6	68,9	46
Fedegabeak	39	35,8	30,0	52
Ed/Ee	4	1,6	1,1	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100

* Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkion datuak

** Espainiako Estatuari dagozkion datuak

6.3. ERLIJO PRAKTIKA

Erreferentzia gisa beren burua katolikotzat duten gazteak hartzen baditugu (fededuntzat hartutakoena ia guztiak baitira), ikus dezakegu gazteek egindako definizioan bertan mezetara joaten direnak apenas %18 direla, mezetara joaten ez direnen %82 nabarmenaren aurrean.

Ondoren EAEn mezetara joaten diren gazte katolikoak eta beste erlijio batzuetakoak (gazte guztien %9) hartzen baditugu eta elizara edo gurtza-zentrora zein maiztasunekin joaten diren aztertzen badugu (6.3 taula), astean behin joaten direnak (%48) gutxiagotan joaten direnak bezainbeste dira ia (%50), hau da, 2000. urtearekin alderatuta gazteak gutxiago joaten dira mezatara (orduan gutxienez astean behin joaten zirenak %56 ziren eta). Azpimarratzekoa da egunero, ia egunero edo astean behin baino gehiagotan joaten direnen talde txikia (%8).

Datu hauetatik atera daitekeen ondorioa da, beraz, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen erlijiozkotasunak behera egiteaz gain, fededunak direnak ere gero eta gutxiago joaten direla elizkizunetara.

³ Iturria: Euskadiko Gazteak 2000 eta Euskadiko Gazteak 2004 izeneko azterketetan eta Ikerketa Soziologikoe-tako Zentroak (CIS) Espainiako estatu osoan 2001ean eta 2003an jasotako datuetan (*Valores y creencias de los jóvenes, 2001; Sondeo sobre la juventud española, 2003*) oinarriturik geuk landua.

6.3 taula: Zein maiztasunez joaten zara elizara edo gurtza-zentrora? *


	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Egunero edo ia egunero	1	4	0	2	0	2	0	0	5
Astean behin baino gehiagotan	7	5	9	9	2	9	3	9	5
Astean behin	40	39	42	49	36	36	58	44	25
Astean behin baino gutxiagotan	50	50	50	40	60	52	36	46	63
Ed/Ee	1	3	0	0	3	1	3	0	3
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	129	49	79	42	33	52	18	73	39

* Mezatara joaten diren katolikoei eta beste erlijio batzuetakoei bakarrik egindako galdera.

Mezatara joaten diren gazte fededunen artean Elizara edo gurtza-zentrora maizago joaten dira oraindik 20 urte bete gabe dituztenak, bai eta arabarrak ere; izan ere Gipuzkoako gazteak dira elizkizunetara gutxien joaten direnak.

Azkenik, interesgarriak dira gizarte-mailaren eta ezker-eskuin ardatzean norberak hartutako jarrera politikoaren arabera erlijio-praktikan aurkitu diren desberdintasunak (6.2 grafikoa). Bi aldagai horiek eragin zuzena dute elizara joateko maiztasunean. Kasu honetan ikusten denez, mezatara joaten diren maila altuko gazteen artean %58 astean behin joaten da elizara edo gurtza-zentrora. Ehuneko hori 100eraino igotzen da eskuineko gazteen artean.

6.3 grafikoa. Mezatara joaten diren EAEko gazteak elizara edo gurtza-zentrora zein maiztasunez joaten diren, gizarte-mailaren eta ezker/eskuin ardatzean hartutako jarreraren arabera⁴



⁴ Efektiboak oso altuak ez direnez, hiru kategoriatan banatu dira: "Gutxienez astean behin" (egunero edo ia egunero, astean behin baino gehiagotan edo astean behin joaten direnak biltzen ditu); "Astean behin baino gutxiagotan" eta "Ed/Ee".

ONDORIOAK

- Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen erdiak baino gehiagok fedegabetzat du bere burua (Jainkoarengan sinesten dute baina erlijioetan ez, erlijioa ez zaie interesatzen edo agnostikoak dira eta ez dute sinesten edo ateoak dira). Beraz, 2000. urtean lortutako datuekin alderatuz gero, erlijiozkotasuna galdu da. Hala-ber, katolikoa ez diren beste erlijioen presentzia fededunen %1era murrizten da.
- Gainera, EAEko gazteak ez dira Espainiako Estatuko gainerako gazteak bezain fededunak. Estatu-mailan azken urteetan erlijiozkotasunak gazteen artean gora egin badu, Euskal Autonomia Erkidegoan prozesua alderantzizkoa izan da.
- Erlijio-praktikari dagokionez, beren burua katolikotzat duten bost gaztetik lau ez da mezatara joaten eta, beraz, mezatara joaten diren gazte katolikoak beren burua katolikotzat duten guztien %18 bakarrik dira.
- Mezetara joaten diren EAEko gazteen (katolikoak edo beste erlijioetakoak) artean, elizara edo gurtza-zentrora gutxienez astean behin joaten direnak gutxiago joaten direnak bezainbeste dira ia. Beraz, 2000. urtearekin alderatuta, gazteak gutxiago joaten dira mezatara.
- Ondorioz, esan daiteke EAEko gazteen erlijiozkotasuna eskasa dela, duela lau urte baino are urriagoa eta, gainera, fededunak direnak elizkizunetara lehen baino gutxiago joaten direla.
- Dena den, erlijiozkotasun handiena eta erlijio-praktika handiena ideologikoki eskuinekoak direnen artean ematen dira.



7

Gizarte balioak

7.1. SARRERA

Gizakiek pertsonaren eta gizartearen inguruko hainbat esparruri buruz duten iritzia jakin nahi denean, kontuan izan behar da egingo diren balorazioak existitzen diren balio-sistema batzuen bitartez sortzen direla.

M^a Luisa Setién¹ irakasleak, zentzu honetan, honela deskribatzen ditu balio horiek: “las concepciones de lo deseable que sirven de orientación de las ideas y de las prácticas humanas. Los valores inspiran el pensamiento y la acción, de ahí el interés de desvelar los universos valorativos presentes en toda cultura”.

*Valores sociales y drogas*² azterlanaren arabera, espainiar gehienek (%93,7) arauen balioei jarraitzen diete, zertxobait gutxiagok (%36,8) balio altruistei, %27,7ak egungoei eta %24,5ak erlijioaz bestelakoei. Gainera, gutxi batzuek bestelako balioei ere jarraitzen diete: %7,8ak abenturaren balioei, %4,9ak arrakeroen balioei, %2ak gizabidezkoak ez direnei eta %0,4ak xenofobo eta gizartearen kontrakoei. Honela, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen %83,4ak balio pragmatikoetan oinarritzen dira, helduek ahalegina, aurreztea edo diziplina bezalako balioak gaitzetsi, eta hedonismoa, etorkizunarekiko kezkarik eza eta ezer aurreratu gabe bizi izatea hobesten baitituzte. Gaur egun, “*al no ser tan importante para ellos la exigencia de seguridad enfatizan los deseos de búsqueda de beneficios.*”³

Eusebio Megías, Droga-mendekotasunean Laguntzeko Federazioko mediku psikiatra eta zuzendari teknikoaren esanetan, 15 eta 24 urte bitarteko gazteen %79,6 balio altruistak eta gizabidezko balioak errespetatzearen aldekoa da. %62,7ak berezko moralara erakusten dituzten balioak azpimarratzen ditu (abortuaren eta eutanasiaren aldeko defentsa barne), eta ehuneko beste 61,1 aldi berean bat dator egunean-egunean bizitzearen (ezer aurreztu gabe bizi izatea) aldekoekin. Bestalde, %32,9ak bakarrik dauka bere burua hedonista edo abenturazaleztat, %24,1ak gizabidezkoak ez diren balioak edo arrakeroenak

¹ SETIÉN, M^a Luisa. “Nosotros y los otros. Vivencias personales y tolerancia social”, en ELZO, Javierren (zuzendaria) *Los valores en la Comunidad Autónoma del País Vasco y Navarra* liburuan, Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, 1996, 27. or.

² MECÍAS, Eusebio eta CALDERÓN, Ignacio: *Valores sociales y drogas*, Madril: FAD, 2001.

³ *Ibid.*

hobesten ditu (norberaren interesa edo etekina lortzea, horretarako besteak kaltetu behar badira ere), eta %22,2ak autoritario edo xenofoboa izatea aitortzen du.

Ondorioz, honakoa da azterlana zuzendu dutenen iritzia: “*los valores prioritarios de la sociedad española son el orden, la seguridad y los beneficios personales*”.⁴

Kapitulu honetan zehar EAEko gazteriaren ezaugarri etiko eta moralak aztertuko dira. Horretarako, gazteen oinarrizko gizarte-portaeran eragin dezaketzen gizarte-balioak zeintzuk diren ezarriko da, bi arlo hauek ezberdinduz: gizarte-arloa eta “besteen” arloa. Gizarte-arloan honako alderdi hauek aztertuko dira: oinarrizko gizarte-balioak, gizarte-portaerak edo osasunerako ohitura kaltegarriak; eta “besteen” arloan, berriz, gazteek bestelako taldeetakoak, eurak bezalakoak edo desberdinak, nola ikusten dituzten aztertuko da, ondoko gaietan oinarrituta: auzokideekiko tolerantzian, tolerantzia ideologikoan, inmigrazioarekiko jarreran edo gauzez kalera ateratzeko beldurrean.

7.2. GIZARTE ARLOA

7.2.1. Oinarrizko gizarte-balioak

Euskadiko gazteei dibortzioaz, abortuaz eta harreman homosexualak galde egin zaie eta 7.1 taulan ikus daitekeenez gazte gehienek, hein handiago edo txikiago batean, portaera horiek guztiak onartu egiten badituzte ere, badira hainbat xehetasun garrantzitsu.

Gazteek gehien onartzen dituzten bi portaerak harreman homosexualak eta dibortzioa dira. Izan ere, harreman homosexualak gazteen %88ak guztiz onartzen ditu (beste %6ak onartu egiten ditu zenbait baldintzapean). Guztien artean gizarte-gaitzespen txikiena dibortzioak du (%2ak baino ez luke inoiz onartuko), gutxiago dira, baina, baldintzarik gabe onartzen dutenak (%71).

Beste alde batetik, Euskadiko gazteen %90 inguruk abortua eta eutanasia onartu egiten badituzte ere, gehienek (%57ak abortuaren kasuan eta %55ak eutanasiarenean) baldintzak jartzen dituzte onartzeko. Gainera, jarduera biak gaitzetsi egiten dituzte EAEko gazteen ehunetik zortzik, eta herenak (%34ak), berriz, kasu guztietan onartuko lituzke.

Oro har, alde handiak azaltzen dira generoaren arabera. Mutilek, hain zuzen ere, hein handiago batean onartzen dute abortua eta eutanasia neskek baino, bigarrenak baldintzen arabera gehiago erlatibizatzen baitute onarpena. Hau da, emakumezkoak zuhurrago azaltzen dira giza bizitzaren inguruko jarduerekin. Hala ere, kasu guztietan denean, emakumezkoek gizonezkoek baino hobeto onartzen dituzte harreman sexualak eta abortua.

Adinari dagokionez, jarduera horiekiko onarpen-mailarik handiena gazteenengan (15 eta 19 urte bitartekoak) ematen da.

Badirudi gizarte-mailak ere eraginik baduela. Erdiko mailako gazteek azaltzen dute onarpen-mailarik handiena (gainerako taldeetakoek baino portzentaje handiagok onartuko lituzke jarduera lauak kasu guztietan).

⁴ *Ibid.*

⁵ MEGÍAS Eusebio eta CALDERÓN, Ignacio: *Valores sociales y drogas, 2001*: Fundación de Ayuda a la Drogadicción.

7.1 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (I)

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			GIZARTE MAILA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonez-koak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Altua	Erdikoa	Baxua	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
HARREMAN HOMOSEXUALAK													
Beti	88	84	93	84	88	91	85	89	86	93	87	74	84
Egoera batzuetan soilik	6	8	5	7	6	6	6	6	4	4	6	11	9
Inoiz ez	4	6	2	6	4	3	6	4	6	2	5	15	6
Ed/Ee	2	3	1	3	2	1	3	1	4	2	2	0	2
DIBORTZIOA													
Beti	71	65	76	65	73	73	69	72	61	81	71	57	59
Egoera batzuetan soilik	26	30	22	29	26	24	29	25	31	17	25	37	36
Inoiz ez	2	3	1	4	1	2	1	2	5	1	3	6	3
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	0	1	3	1	1	0	2
ABORTUA													
Beti	34	37	31	32	35	34	25	35	27	43	29	14	26
Egoera batzuetan soilik	57	52	61	54	57	59	70	55	54	52	61	72	60
Inoiz ez	8	9	7	12	7	6	4	8	16	4	9	14	13
Ed/Ee	1	2	0	2	1	1	0	1	3	1	1	0	2
EUTANASIA													
Beti	34	38	31	33	34	36	25	36	28	42	28	17	28
Egoera batzuetan soilik	55	50	60	50	57	57	67	54	52	51	61	67	57
Inoiz ez	8	9	7	11	7	6	6	7	16	4	9	16	11
Ed/Ee	3	4	3	6	3	1	2	3	4	2	2	0	4
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	117	1.265	109	719	108	46	627

Oinarrizko balio horietan alde nabarmena sortzen duen baldintza ideologia politikoa da. Horrela, gizarteko jarduera horiekiko jarrera irekiena ezkerreko gazteek dute, izan ere, hamarretik lauk abortua eta eutanasia onartzen dituzte, baldintzarik gabe. Eskuinekoak dira, ordea, egoera batzuetan bakarrik onartzen dutenean, baldintza zehatz gehien jartzen dituztenak.

Erlijiotasunak alde garrantzitsuak eragiten ditu gazteriarengan, 7.2 taulan ikus daitekeenez, fedegabeak baitira harreman homosexualekiko, dibortzioarekiko, eutanasiarekiko eta abortuarekiko onarpen-mailarik handiena azaltzen dutenak. Abortuaren eta eutanasiaren kasuan aldea oso handia da, fedegabeen ia erdiek jarduera biak beti onartuko bailituzkete. Jarduera horiek gehien baldintzatzen dituztenak (abortua eta eutanasia %72an) edo inoiz onartuko ez lituzketenak (abortua %10ean eta eutanasia %9an), ordea, fededunak dira (alderatu 6. kapituluko “Erljioaren egitekoa” atalarekin).

Gai honen inguruan, euskal gazteek egun azaltzen duten jarrera duela lau urte azaldu zutenarekin (*Euskadiko Gazteak 2000*) erkatzen badugu, oro har, esan daiteke, EAeko egungo gazteen jarduera hauekiko onarpen-maila areagotu egin dela, eta gehienbat dibortzioarekikoa (7.3 taula). Dibortzioarekiko onarpen-maila areagotzearen litekeen arrazoia, genero-indarkeriaren gorakada izan daiteke.

7.2 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke? (II)

	GUZTIRA	JARRERA ERLIJIOSA	
		Fededuna	Fedegabea
HARREMAN HOMOSEXUALAK			
Beti	88	86	91
Egoera batzuetan soilik	6	7	4
Inoiz ez	4	5	3
Ed/Ee	2	2	2
DIBORTZIOA			
Beti	71	65	76
Egoera batzuetan soilik	26	30	21
Inoiz ez	2	3	1
Ed/Ee	1	1	1
ABORTUA			
Beti	34	16	49
Egoera batzuetan soilik	57	72	43
Inoiz ez	8	10	6
Ed/Ee	1	1	1
EUTANASIA			
Beti	34	16	50
Egoera batzuetan soilik	55	72	41
Inoiz ez	8	9	6
Ed/Ee	3	3	3
Guztira ehunekotan	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	677	786

7.3 taula: Jarduera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?
(2000 * eta 2004 urteetako datuen konparazioa)

	BETI		EGOERA BATZUETAN SOILIK		INOIZ EZ		Ed / Ee	
	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
Harreman homosexualak	82	88	11	6	5	4	3	2
Dibortzioa	57	71	39	26	2	2	1	1
Abortua	30	34	56	57	12	8	2	1
Eutanasia	30	34	57	55	9	8	4	3

* 2000ko datuak biribildu egin dira.

7.2.2. Gizarte-portaerak

7.2.2.1. Garraiobide ezberdinen erabilera

Alderdi interesgarria da EAEko gazteen artean garraiobide ezberdinen, publiko zein pribatuen, erabilera-maila, gazteek honen inguruan dituzten ohiturak eta azturak aztertu ahal izateko.

Garrantzia du adierazteak, 7.4 taulan ikus daitekeen bezala, Euskadiko gazteen %74ak hainbat ibilbide egunero edo ia egunero oinez egiten dituela. Bigarren lekuan

(%33) ibilgailu partikularra erabiltzen dutenak daude, eta hauen atzetik garraio-bide kolektibo ezberdinak erabiltzen dituztenak: gazteen %25 egunero hartzen du autobusa, %13 metroa eta %9 trena. Azkenik, motorra eta bizikleta azaltzen dira: gazteen %5ak erabiltzen du horietako ibilgailu bat egunero.

Datu horiek generoaren arabera aztertzen badira, suma daiteke oinez emakumeak ibiltzen direla gehienbat, baita autobus, metro eta trenez, hau da, badirudi garraio-bide kolektiboak hobesten dituztela. Gizonezkoek, ordea, gehiagok erabiltzen dute egunero autoa, motorra eta bizikleta emakumeek baino.

Adina ere segmentazio-aldagai interesgarria dirudi. 15 eta 19 urte bitarteko gazteek nahiago dute oinez, autobus, motor eta bizikletaz ibiltzea, adin horretatik gorakoek baino. 20 eta 24 urte bitartekoek gainerako guztiak baino gehiago hartzen dute metroa egunero, eta helduenek (25-29 urte) autoa hobesten dute (izan ere, autoaren erabilerak gora egiten du adinarekin batera).

Lurraldeari dagokionez, Gipuzkoan gehiago erabiltzen dute autoa eta motorra eta Bizkaian, berriz, autobusa, metroa eta trena gehiago erabiltzen dira egunero. Araban, ordea, bizikleta zale gehiago dago beste lurraldeetan baino. Ondorioz, esan daiteke, Bizkaiko gazteak direla garraio-bide kolektiboa egunero gehien erabiltzen dutenak.

7.4 taula: Garraio-bideak eta gazteak

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			GIZARTE MAILA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua
OINEZ												
(la) egunero	74	69	79	84	71	70	77	71	78	66	75	76
Astean bizpahiru egunetan	6	7	5	6	5	6	4	6	7	7	6	7
Hilean bizpahiru egunetan	1	0	1	0	1	0	0	0	1	2	0	2
Noizean behin	11	14	9	5	14	13	10	13	8	19	11	6
Inoiz ez edo ia inoiz ez	8	10	6	5	8	10	8	9	5	6	8	8
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AUTOA HARTZEA												
(la) egunero	33	38	28	13	36	47	36	28	41	30	33	42
Astean bizpahiru egunetan	15	14	16	15	14	16	12	14	17	19	15	13
Hilean bizpahiru egunetan	6	6	6	6	6	6	2	8	3	7	6	5
Noizean behin	22	21	24	29	22	17	25	26	15	21	23	22
Inoiz ez edo ia inoiz ez	24	21	26	37	22	14	26	23	23	23	24	18
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AUTOBUSA HARTZEA												
(la) egunero	25	20	29	33	27	15	20	26	23	27	25	20
Astean bizpahiru egunetan	13	12	14	17	12	12	10	15	12	11	14	11
Hilean bizpahiru egunetan	7	6	8	8	7	7	4	8	8	3	8	6
Noizean behin	25	25	24	24	24	26	26	27	20	32	24	28
Inoiz ez edo ia inoiz ez	30	36	24	19	29	40	41	23	37	26	30	34
Ed/Ee	0	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	2
METROA HARTEA												
(la) egunero	13	11	16	12	17	10	2	23	2	20	13	13
Astean bizpahiru egunetan	9	9	9	11	7	9	0	16	1	13	8	14
Hilean bizpahiru egunetan	4	4	4	5	4	3	1	6	1	2	4	4
Noizean behin	16	16	16	16	16	16	6	27	2	10	17	15
Inoiz ez edo ia inoiz ez	58	60	55	56	57	61	90	28	94	55	58	54
Ed/Ee	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0

7.4 taula: Garraioak eta gazteak (jarraipena)

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			GIZARTE MAILA		
		Gizonez-koak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua
TRENA HARTZEA												
(la) egunero	9	8	10	11	11	5	3	11	8	7	9	11
Astean bizpahiru egunetan	6	6	5	9	4	5	3	6	6	8	5	8
Hilean bizpahiru egunetan	6	5	7	8	4	6	1	7	7	1	6	5
Noizean behin	25	23	28	25	29	22	20	30	20	29	25	24
Inoiz ez edo ia inoiz ez	54	58	50	47	52	61	72	46	59	53	54	51
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	2	0	1
MOTORRA ERABILTZEA												
(la) egunero	5	7	2	7	5	3	4	2	9	9	4	4
Astean bizpahiru egunetan	2	3	1	3	1	1	1	1	3	2	2	0
Hilean bizpahiru egunetan	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	4
Noizean behin	5	6	4	6	5	4	4	5	4	11	5	2
Inoiz ez edo ia inoiz ez	88	83	92	84	88	91	90	90	82	76	89	88
Ed/Ee	0	1	0	0	1	0	0	1	0	1	0	1
BIZIKLETA ERABILTZEA												
(la) egunero	5	8	2	7	4	4	9	2	7	5	5	3
Astean bizpahiru egunetan	5	7	3	7	4	5	7	3	8	6	5	2
Hilean bizpahiru egunetan	9	10	8	10	8	9	9	7	12	13	8	10
Noizean behin	5	6	3	6	6	2	9	5	3	5	5	3
Inoiz ez edo ia inoiz ez	76	69	83	70	78	80	66	83	70	70	77	81
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	117	1.265	109

Azkenik, eta gizarte-mailari dagokionez ikusten da, goi-mailakoak direla metroa eta motoa erabiltzen dituztenak eta erdiko mailakoekin batera autobusa. Erdiko mailako eta maila baxuko gazteak dira egunero oinez ibiltzen direnak, eta maila baxukoak autoa gehien hartzen dutenak.

7.2.2.2. Jarrera gaitzesgarriak justifikatzea

Atal honetan, teorikoki arbuigarriak izanda, gizarteko zenbait portaerarekiko jarre-
nola aztertu nahi dira, hala nola: ustelkeria politikoarekikoa, noizbait legez kanpoko drogak
hartzearekikoa, alkoholaren eraginpean gidatzearekikoa, kalea zikintzearekikoa edo Oga-
sunari iruzur egitearekikoa.

Bestalde, EAEko gazteek indarkeriaren aurrean duten jarrera ere aztertu nahi izan da:
animalienganako tratu txarren, senar-emazte edo bikote barruko indarkeriaren, haurrak
jotzearen edo helburu politikoko bortizkeriaren ingurukoa.

Gazte gehienek portaera horiek guztiak gaitzetsi egiten dituzte (7.5 taula), baina ez
dute jarrera berbera portaera guztiekiko. Horrela, ustelkeria politikoa da gutxien onartzen
dena, izan ere neska-mutilen %95ak ez bailuke inoiz defendatuko. Hala ere, eskuineko
gazteen gaitzespina batezbestekoa baino zerbait txikiagoa da (%13ak egoera batzuetan
onartu egingo lituzke).

7.5 taula: Portaera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
POLITIKOEN EUREN EGOERARI ETEKINA													
ATERA NAHI IZATEA													
Beti	1	1	1	0	1	1	2	0	1	1	2	0	1
Egoera batzuetan soilik	3	3	3	4	3	2	3	3	3	3	4	13	2
Inoiz ez	95	94	95	93	95	96	93	95	95	96	94	84	94
Ed/Ee	1	2	1	2	1	1	1	2	1	0	0	3	3
ALKOHOLAREN ERAGINPEAN GIDATZEA													
Beti	0	1	0	0	0	1	1	0	0	0	0	0	0
Egoera batzuetan soilik	19	23	15	20	18	18	21	15	24	22	18	16	16
Inoiz ez	80	76	85	79	81	81	78	84	76	78	82	84	83
Ed/Ee	1	1	0	1	1	1	0	1	0	0	0	0	1
KALEA ZIKINTZEA													
Beti	1	2	0	1	1	1	1	1	0	1	1	0	1
Egoera batzuetan soilik	24	26	22	30	24	20	20	22	29	24	20	22	25
Inoiz ez	74	70	77	68	74	78	78	75	70	74	79	78	73
Ed/Ee	1	2	1	1	1	1	1	1	1	1	0	0	2
ZENBAIT UNETAN LEGEZ KANPOKO DROGAK HARTZEA													
Beti	9	13	5	7	9	9	6	10	7	11	7	0	6
Egoera batzuetan soilik	32	35	29	26	35	33	38	27	38	42	26	33	21
Inoiz ez	58	50	66	66	54	56	54	61	54	46	67	66	70
Ed/Ee	2	2	1	1	2	2	2	2	1	1	1	1	2
OGASUNARI IRUZUR EGITEA													
Beti	11	14	8	10	12	11	10	13	8	14	4	4	9
Egoera batzuetan soilik	30	32	29	24	33	33	31	27	36	38	27	34	22
Inoiz ez	55	51	59	59	52	55	54	56	53	46	69	60	63
Ed/Ee	4	3	4	7	3	2	4	4	3	3	0	2	6
Guztira ehunikotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	508	480	719	108	46	627

Horren ondoren, gehien gaitzesten den portaera alkoholaren eraginpean gidatzearena da, hain zuzen, Euskadiko %80ak ez baitu inoiz ere onartzen. Gaitzespena orokorra bada ere, mutilek errazago onartzen dute neskek baino (mutilen %24ak eta nesken %15ak onartuko luke), eta gipuzkoarrek beste lurraldeetakoek baino errazago (egunero autoa gehienbat hauek hartzen dute).

Kalea zikintzea gaitzesgarria da gazteen %74entzat. Dena den, gazteen %24 baino gehiagoren iritziz, zenbait egoeratan ulergarria izan daiteke eta %1arentzat egoera guztietan. Alderdi horretan gazteek (15-19 urte) dute jarrerarik malguena, eta baita Gipuzkoako gazteek gainerako Lurraldeetakoek baino.

Gazteen %58ak guztiz gaitzesten du une zehatz batean legez kanpoko drogak hartzea. Dena den, %32ak egoera batzuetan soilik onartzen du eta gutxi batzuk dira (%9) edozein egoeratan legez kanpoko drogak hartzearen aldekoak. Emakumeak, 20 urtetik beherakoak eta zentrokoak edo eskuinekoak direla esaten dutenak dira aztura hori gutxien onartzen dutenak.

Azkenik, gazteen %55ak gaitzesten du beti Ogasunari iruzur egitea, %30ak egoera batzuetan onartu egingo luke eta %11k beti. Denen artean zentro edo eskuineko gazteak dira portaera hori gutxien onartzen dutenak.

7.6 taula: Honako portaera bortitzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
BORTIZKERIA FISIKOA BIKOTEAN													
Beti	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Egoera batzuetan soilik	0	1	0	1	0	0	0	0	1	0	1	0	0
Inoiz ez	99	99	100	99	100	99	100	99	99	100	99	100	99
Ed/Ee	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1
ANIMALIAK JOTZEA													
Beti	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Egoera batzuetan soilik	5	6	4	3	6	4	1	5	5	6	5	10	3
Inoiz ez	95	93	96	96	93	95	98	94	94	94	95	89	96
Ed/Ee	1	1	0	0	1	1	0	1	0	0	0	1	1
HAURRAK JOTZEA													
Beti	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Egoera batzuetan soilik	5	6	5	4	5	6	1	6	6	6	7	11	4
Inoiz ez	94	94	95	96	94	93	99	93	94	94	93	89	95
Ed/Ee	0	1	0	0	0	1	0	0	0	0	0	0	1
HELBURU POLITIKOKO BORTIZKERIA													
Beti	1	1	0	1	1	0	0	1	0	1	0	0	0
Egoera batzuetan soilik	7	9	4	6	8	6	4	7	7	11	2	5	2
Inoiz ez	91	88	94	92	90	92	95	90	92	87	98	92	95
Ed/Ee	2	2	1	2	1	1	1	2	0	1	0	3	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	508	480	719	108	46	627

Beste alde batetik, EAeko gazteek indarkeriarekiko duten jarrera ere aztertu nahi da (7.6 taula), eta zenbait indarkeria motaren aurrean duten iritzia. Bikote barruko indarkeria da gehien gaitzesten dutena, izan ere, %99ak ez luke inoiz onartuko, genero, adin, lurralde edo jarrera ideologikoa edozein dela.

Gazteen %95ak ez du inoiz justifikatzen animaliak jotzea, Eskuinekoek, zentrokoek eta ezkertiarrek baino zertxobait errazago onartzen dute (%10ak bakarrik egoera batzuetan onartuko luke).

Haurrenganako indarkeria fisikoa %94ak gaitzesten du kasu guztietan, eta berriz ere, eskuinekoak dira pixka bat errazago onartzen dutenak (%11ak onartu egingo luke haurrak egoera batzuetan jotzea).

Helburu politikoak lortzeko indarkeria %91k gaitzesten du kasu guztietan, gizonezkoen eta ezkertiarren artean erabateko gaitzespen hori zertxobait txikiagoa bada ere.

Datu hauek 2000. urtean *Euskadiko Gazteak 2000* txostenean jasotakoekin konparatzen baditugu ikus daiteke, egungo gazteek duela lau urtekoek baino errazago onartzen dituztela politikoak euren egoerari etekina atera nahi izatea edo kale zikintzea bezalako jarduerak; eta legez kanpoko drogak hartzea kasu guztietan onartzen dutenen kopurua bikoiztu egin dela (7.7 taula).

7.7 taula: Portaera hauetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?
(2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)

	BETI		EGOERA BATZUETAN SOILIK		INOIZ EZ		Ed / Ee	
	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
Zenbait unetan legez kanpoko drogak hartzea	5	9	34	32	59	58	2	2
Politikoei euren egoerari etekina atera nahi izatea	3	1	7	3	88	95	3	1
Kalea zikintzea	2	1	32	24	66	74	2	1
Alkoholaren eraginpean gidatzea ..	1	0	20	19	79	80	1	1
Ogasunari iruzur egitea	11	11	30	30	54	55	5	4

* 2000ko datuak biribildu egin dira.

Indarkeriari dagokionez ere ez da aldaketa nabarmenik sumatzen, honelako jarrerak ia erabat gaitzesten baitira.

7.8 taula: Honako portaera bortizzetatik, zeintzuk onartuko zenituzke?
(2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)

	BETI		EGOERA BATZUETAN SOILIK		INOIZ EZ		Ed / Ee	
	2000	2004	2000	2004	2000	2004	2000	2004
Bortizkeria fisikoa bikoetan	0	0	1	0	99	99	0	0
Animaliak jotzea	1	0	7	5	92	95	1	1
Haurrak jotzea	0	0	8	5	91	94	1	0
Politikoei euren egoerari etekina atera nahi izatea	1	1	9	7	88	91	3	2

* 2000ko datuak biribildu egin dira.

7.2.3. Osasunerako ohitura kaltegarriak

Atal honetan, batetik, osasunari kalte egiten dioten ohiturak eta jarrerak gazteen artean hedatuta egoteari buruz gazteek duten iritzia aztertu nahi da; eta bestetik, gazteek gizabidezkoak ez diren portaerak edo osasunari kalte egiten diotenak izan dituzten jakin.

7.2.3.1. Hauen hedapenari buruzko iritzia


Atal honetan, gazteen artean osasunari kalte egiten dioten ohiturak Euskadiko gazteen artean zenbateraino dauden hedatuta jakin nahi da: ariketa fisiko gutxi egiten duten (bizitza sedentarioa), orekarik gabe elikatzen diren, arazo psikologikoak dituzten (estresa, depresioa...), babes-neurririk hartu gabe harreman sexualak izaten dituzten, edo legezko drogak (tabakoa eta alkohola) edo legez kanpokoak hartzen dituzten.

Gazteen beraien ikuspegiari jarraiki, euren bizitzan guztiz errotuta daude osasunerako kaltegarri diren gizarte-ohitura horiek guztiak (7.1 grafikoa), eta areagotu egin dira azken lau urteotan. Horietatik errotuena droga legalak hartzea da, alkohola eta tabakoa, bereziki; izan ere 15 eta 29 urte bitarteko neska-mutilen %96aren iritziz, euren ingurunean nahikoa edo oso zabaldua dago.

Gazteen %88ak dienez, legez kanpoko drogak (haxixa, kokaina, heroina, estasia...) oso zabaldua daude. Gainera, %76aren iritiz, gazteen elikadura ez da oso orekatua.

Ariketa fisiko gutxi egitea, babes-neurrik gabe sexu-harremanak izatea eta arazo psikologikoak izatea, ordea, ez da hain ohikoa (Euskadiko gazteen %68ak, %57ak eta %54ak, hurrenez hurren, gutxi edo oso gutxi zabaldua daudela uste du).

7.1. **grafikoa:** Gazteen artean ohikoak diren ohiturak
(2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000ko datuak biribildu egin dira.

EAEn, 30 urtetik beherakoak, 7.1 grafikoan ikus daitekeenez, arazo psikologikoei buruz salbu, dezente ezkorragoak dira duela lau urte baino, ohitura kaltegarri hauek zabalduago daudela pentsatzen dutenen ehunekoak gora egin baitu. Aipagarriena babes-neurrik hartu gabe sexu-harremanak izatearen portaera da, gorakada handiena izan baitu (19 puntu) eta honen ondoren legez kanpoko drogak hartzea (14 puntu) eta ariketa fisiko gutxi egitea (12 puntu).

7.9 taulan ikus daitekeenez, aztertzen ari diren ohiturak nahikoa edo oso zabaldua daudela kontuan hartuta, neskek mutilek baino ikuspegi ezkorragoa dute orekarik gabe elikatzeaz, babes-neurrik gabeko sexuaz eta arazo psikologikoez.

Bestalde, 20 urtetik gorako gazteek babes-neurrik gabeko sexu-harremanak eta arazo psikologikoak ohikoagoak direla uste dutenak gehiago dira.

Lurralde artean ere badira ezberdintasunak: Arabako gazteak ezkorragoak dira drozaleatasunaren inguruan, bai legezko zein legez kanpoko drogak hartzearen inguruan; Bizkaikoen artean zabalduago dago babes-neurrik hartu gabeko sexu-harremanak ohikoak direnaren iritzia; eta Gipuzkoan, azkenik, ariketa fisiko gutxi egitearen eta orekarik gabe elikatzearen ohikotasunaz ezkorrenak dira.

Ezker eta eskuineko gazteen jarrera ideologikoaren arabera ezberdintasunik dagoen aztertzerakoan, aipatutako ohituren aurrean suma daiteke ezkertiarrek ezkorragoak direla.

7.9 taula: Zure ustez, ohikoak al dira gazteen artean honako jarrerak edo portaerak?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
LEGEZKO DROGAK HARTZEA													
Oso ohikoa	63	62	64	61	64	63	74	61	61	65	60	61	61
Nahikoa ohikoa	33	34	32	33	34	33	22	36	33	33	34	34	33
Ez ohikoa	2	2	2	3	1	2	3	1	3	1	6	2	2
Guztiz ez ohikoa	1	1	2	2	1	1	1	1	2	0	1	3	3
Ed/Ee	1	1	0	1	1	0	0	0	1	0	0	0	1
LEGEZ KANPOKO DROGAK HARTZEA													
Oso ohikoa	37	36	37	35	38	37	48	37	32	38	27	27	38
Nahikoa ohikoa	51	52	49	48	52	51	44	53	50	53	55	56	47
Ez ohikoa	8	8	8	11	7	8	5	8	10	7	15	11	9
Guztiz ez ohikoa	3	2	4	4	2	3	2	1	6	1	4	5	5
Ed/Ee	1	1	1	2	1	1	1	1	2	1	0	0	2
OREKARIK GABEKO ELIKADURA													
Oso ohikoa	23	22	25	24	22	24	21	20	30	24	17	11	25
Nahikoa ohikoa	53	49	57	52	53	54	53	58	44	55	53	53	51
Ez ohikoa	20	25	15	20	21	19	21	19	20	18	28	28	20
Guztiz ez ohikoa	2	2	2	3	2	2	2	1	4	2	2	7	2
Ed/Ee	1	1	1	1	2	1	2	1	2	1	0	0	2
ARIKETA GUTXI EGITEA													
Oso ohikoa	18	16	20	15	20	19	17	15	24	17	17	13	20
Nahikoa ohikoa	50	51	50	50	51	50	43	54	48	53	47	56	47
Ez ohikoa	28	28	27	30	27	27	36	28	23	26	34	26	28
Guztiz ez ohikoa	3	4	2	4	2	3	3	2	4	2	2	4	3
Ed/Ee	1	2	0	1	1	1	1	1	1	1	0	0	1
BABES-NEURRIRIK GABE SEXU-HARREMANAK IZATEA													
Oso ohikoa	13	11	15	12	13	13	12	14	12	13	12	8	13
Nahikoa ohikoa	44	42	46	37	47	47	36	49	40	45	36	50	44
Ez ohikoa	33	35	31	38	32	31	43	31	32	33	47	26	31
Guztiz ez ohikoa	5	5	4	7	4	4	4	2	9	5	1	13	4
Ed/Ee	5	5	4	5	4	5	5	4	6	3	4	2	7
ARAZO PSIKOLOGIKOA													
Oso ohikoa	12	10	13	11	10	14	12	9	15	12	8	4	12
Nahikoa ohikoa	42	37	47	37	44	44	43	42	42	43	37	41	42
Ez ohikoa	39	43	36	43	40	36	37	43	34	38	51	44	39
Guztiz ez ohikoa	5	6	3	6	4	4	6	3	6	5	3	7	4
Ed/Ee	2	4	1	3	2	1	2	2	3	1	0	3	3
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	719	108	46	627

7.2.3.2. Osasungarriak edo gizabidezkoak ez diren portaerak izatea

Gainera, azken hamabi hilabeteetan gomendagarriak ez diren portaerak (trafiko-arauak ez betetzea, gehiegi edatea edo legez kanpoko drogak hartzea) izan dituzten galdetu zaie Euskadiko gazteei. 7.10 taulan ikus daitekeenez, ohikoena behar baino gehiago edatea da, gazteen %53ak onartzen baitu azken urtean gehiegi edan izana. Laurdenak (%26) trafiko-arauak ez dituela bete aitortzen du, eta beste hainbatek (%25) azken hamabi hilabeteetan legez kanpoko drogak hartu dituela.

Alderdi alderdi aztertuta suma daiteke, generoaren arabera, gizonezkoek emakumezkoek baino gehiagotan praktikatu dituztela aipatutako jarduerak; adinari dagokionez, ordea, 20 eta 24 urte bitartekoak gehiegi edan dutenak izan direla. Logikoki, 19 urtekoen artean (gidabaimena izateko adinaz) da ohikoena trafiko-arauak ez betetzea. Gipuzkoako gazteak, lehenago ikusi den bezala, autoa egunero erabiltzen duten gazteen kopuru altuena duen lurraldekoak, dira trafiko-arauak gehien hausten dituztenak. Gazte ezkertiarak dira, gainera, hiru portaera hauek azken urtean izan dituztenak gehienbat.

7.10 taula: Ondorengo jardueretatik, egin al duzu baten bat azken hamabi hilabetetan?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUIN ARDATZA				
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee	
GEHIEGI EDATEA	Bai	53	60	46	47	61	50	55	53	53	65	42	47	42
	Ez	46	39	53	52	39	50	45	46	46	35	57	56	57
	Ed / Ee	1	1	0	1	0	0	0	0	1	0	1	0	1
TRAFIKO ARAUAK BETE GABE GIDATZEA	Bai	26	37	15	7	33	34	22	23	33	32	24	23	20
	Ez	72	61	83	90	66	65	77	75	66	68	75	77	77
	Ed / Ee	2	2	2	4	1	1	1	2	1	1	1	0	3
LEGEZ KANPOKO DROGAK HARTZEA	Bai	25	32	17	22	26	27	26	24	25	32	18	16	18
	Ez	75	66	83	77	73	75	74	76	73	68	81	84	81
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	0	1	1	0	1	0	2
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	719	108	46	627	

7.3. BESTEEN ARLOA

7.3.1. Auzokideekiko tolerantzia

Euskadiko Gazteak 2000 txostenean adierazi bezala, auzokidea talde jakin bateko kidea delako baztertzea, gizarte-tolerantziarik ezaren adierazpena da. Bazterketa horri auzokideekiko tolerantziarik eza deitzen zaio (7.11 taula).

Euskadiko gazte gehienak ez dira toleranteak neonaziekiko edo mutur-muturreko eskuineko pertsonetikiko. Horrela, gazteen %56ak adierazten duenez, ez luke nahi horrelako norbait auzokide izatea.

Gazteen %42ak ijitoa auzokide izatea ez duela atsegin adierazten du. Euskadiko gazteen zati handi batek drogen menpekoak ere baztertzen ditu, 30 urtetik beherako %40ak ez baitu horien auzokide izaterik nahi.

Bestalde, Euskadiko gazteen zati batek ez ditu oraindik ere militarrik onartzen. Izan ere, %30ak, ez luke militarren auzokide izan nahi. EAeko gazteen laurdenak (%24ak ez luke hauen auzokide izan nahi) ere ez ditu prostitutak eta gigoloak onartzen.

Poliziak, kartzelan izandakoak eta mutur-muturreko ezkertiarak gutxiago baztertzen dira, EAeko bost neska-mutiletatik batek ez baitu horietako norbait auzokide izatea nahi.

Euskadiko gazteentzat onarpen handiena homosexualek eta atzerriko etorkinek dute; izan ere, hurrenez hurren, %7ak eta %12ak ez ditu onartzen auzokidetzat.

7.11 taula: Axola al dizu honelako pertsonaren bat auzokide izatea?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			GIZARTE MAILA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Altua	Erdikoa	Baxua	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
NEONAZIAK/ESKUI-ESKUINEKO PERTSONAK																
Bai	56	56	56	52	59	57	51	57	57	56	56	55	67	57	48	44
Ez	38	39	38	41	36	39	41	38	37	36	39	36	30	36	46	48
Ed/Ee	5	4	6	7	5	4	7	4	6	8	5	9	3	6	6	8
IJITOAK																
Bai	42	42	41	45	41	40	31	45	42	51	42	33	38	42	58	45
Ez	54	54	54	52	55	54	64	51	54	45	54	62	58	53	42	51
Ed/Ee	4	4	5	3	3	7	6	4	4	4	4	5	4	5	0	5
DROGEN MENPEKOAK																
Bai	40	36	44	41	39	39	34	39	43	46	40	36	37	44	55	41
Ez	55	59	52	53	56	55	58	56	52	49	55	55	58	52	45	53
Ed/Ee	5	6	5	6	4	5	7	5	5	5	5	9	5	4	0	6
MILITARRAK																
Bai	30	31	29	29	33	28	27	27	37	22	30	36	38	17	29	23
Ez	66	65	68	67	64	68	68	69	60	70	67	59	59	80	65	73
Ed/Ee	4	4	3	3	3	4	5	4	3	8	3	5	3	2	6	5
PROSTITUTAK ETA GIGOLOAK																
Bai	24	20	27	25	21	25	21	19	32	31	22	26	19	36	35	26
Ez	73	75	70	71	76	70	72	78	64	65	74	66	77	62	61	70
Ed/Ee	4	5	3	3	3	5	7	3	3	4	4	8	4	2	4	4
POLIZIAK																
Bai	22	24	20	21	24	22	19	20	28	11	23	29	29	13	22	17
Ez	75	72	77	77	73	74	76	77	69	84	75	67	69	84	78	79
Ed/Ee	3	4	2	2	3	4	5	2	3	5	3	5	2	3	0	4
KARTZELAN EGONDAKOAK																
Bai	19	17	21	24	18	16	18	17	22	20	19	19	15	23	36	22
Ez	75	77	72	71	76	76	72	77	72	72	75	74	80	70	60	71
Ed/Ee	6	6	6	4	6	9	10	5	6	8	6	7	5	8	4	7
EZKER-EZKERREKO PERTSONAK																
Bai	18	19	17	16	17	20	14	17	20	23	17	18	14	25	17	20
Ez	76	76	76	77	78	74	75	78	74	69	77	73	82	71	83	70
Ed/Ee	6	5	7	8	4	7	11	5	6	8	6	9	4	5	0	9
ETORKIN ATZERRITARRAK																
Bai	12	12	12	15	12	10	13	10	16	14	13	9	10	13	16	15
Ez	84	83	84	81	85	84	79	87	81	82	84	85	87	81	83	81
Ed/Ee	4	4	3	3	3	5	8	3	4	4	3	6	3	7	1	4
HOMOSEXUALAK																
Bai	7	8	6	9	7	5	5	6	9	7	7	6	6	6	10	9
Ez	92	91	92	90	92	93	92	92	90	92	92	91	94	93	89	89
Ed/Ee	1	2	1	1	1	2	3	1	1	1	1	3	1	1	1	2

Datu hauek generoaren arabera aztertuz gero, ondoriozta daiteke emakumeak direla drogen menpekoak eta prostitutak auzokide izateko eragozpen gehien jartzen dituztenak.


15 eta 19 urte bitarteko gazteak dira ijitoak eta kartzelan egondakoak auzokide izateko eragozpen handiena adierazten dutenak. Gehienbat 20 urtetik gorakoek ez dituzte onartzen auzokidetzat eskuin-eskuinekoak. Adinak, ordea, ez du eraginik beste taldeei buruz galdetzen denean.

Gipuzkoako gazteak dira aipatutako taldeetako kideak auzokide izateko eragozpenik handiena azaltzen dutenak, Bizkaikoekin eskun-eskuinekiko eta ijitoekiko tolerantzia ezaren mailan bat datozelarik.

Gizarte-mailak nabarmen eragiten du ezberdintasunean. Izan ere, goi-mailako gazteak dira ijitoak, drogen menpekoak, prostitutak eta mutur-muturreko ezkertiarrek auzokide izateko eragozpenik handiena azaltzen dutenak. Mailarik baxueneko gazteek, berriz, militarrek eta poliziarrek gaitzesten dituzte batez ere.

Gazteen ideologia zenbat eta eskuinekoagoa izan areagotu egiten da ijito, drogazale eta kartzelan egondakoekiko gizarte-arbuioa (eta baita, baina gutxiago, etorkin atzerritarrekiko). Eskuin eta zentzoko gazteek arbuio bera adierazten dute (ezkertiarrek baino handiagoa) prostituta eta gigoloekiko, eta zentzokoak dira mutur-muturreko ezkertiarrek gehien gaitzesten dituztenak. Bestalde, euren burua ezkertiarrek duten gazteak mutur-muturreko eskuindar, militar eta poliziarrek auzokide izateko eragozpen handiena azaltzeagatik nabarmentzen dira.

7.2 grafikoa: Auzokideekiko tolerantziarik eza
(2000* - 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000ko datuak biribildu egin dira

2000. urteko datuekin alderatzen badugu, neonazi eta mutur-muturreko eskuindar eta drogazaleekiko, eta gutxiago baina baita militar, polizia eta mutur-muturreko ezkertiarrekiko tolerantzia areagotu egin dela ikus daiteke. Hala ere, etorkin eta homosexualak zertxobait gehiago arbuiatzen dituzte (7.2 grafikoa).

7.3.2. Tolerantzia ideologikoa

Tolerantea izateko beharrezkoa da pertsona baten ideiak, sinismenak edo balioak kontuan izan gabe onartzea. 2000. urtean eman ziren emaitza berak izan dira oraingoan ere. Hau da, Euskadiko gazteen zati handi bati axola dio auzokietzat zenbait taldetako pertsonak izatea. Baina, dirudienez, ideologiak garrantzi gutxiago du. Izan ere, EAeko gazteen hamarretik batek soilik adierazi du bereak ez bezalako ideia, sinismen edo balioak dituen pertsonekin oso desgogara edo nahiko desgogara sentitzen dela. Gazteen herena ez oso desgogara sentitzen da, eta gehienak (%54) batere desgogara (7.12 taula).

7.12 taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			
		Gizonez-koak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee
Oso desgogara	1	1	2	1	2	1	1	1	2	2	1	0	1
Nahikoa desgogara	9	9	9	13	7	8	10	9	8	10	8	8	7
Ez oso desgogara	30	28	32	29	32	29	35	31	27	31	38	44	27
Batere desgogara	54	55	52	48	54	58	52	51	58	54	51	43	55
Ed/Ee	6	6	5	8	6	4	2	8	4	3	2	5	9
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	719	108	46	627

Generoa kontuan hatzen bada, emaitzak oso antzekoak dira. Baina, adina edo lurraldearen arabera aztertuz gero ezberdintasunak sumatzen dira. Honela, nerabetasunetik gertuago daudenak (15-19 urte) desgogarago daude eurenaz bestelako ideologia edo sinismen duten pertsonekin (dena den, ehuneko hau ere oso txikia da: %14). Bestalde, gipuzkoarrak zertxobait tolerantetagoak dira ezberdintasun ideologikoen gainerako lurraldeetakoak baino (%58ak batere desgogara egotea onartzen du).

Segmentazio-aldagai gisa ezkerre/eskuina ardatza erabiltzen bada hainbat ezberdintasun suma daitezke. Euren burua ezkertiarizat eta zentrokotzat dutenen arteko (%54 eta %51, hurrenez hurren) gehienak ez dira batere desgogara sentitzen bereak ez bezalako balioak eta ideiak dituen jendearekin. Eskuinekoen artean, ordea, %43ra gutxitzen da ehunekoak.

7.13 taula: Zureak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituztenekin zein mailatan sentitzen zara desgogara?
(2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)

	2000	2004
Oso desgogara	2	1
Nahikoa desgogara	8	9
Ez oso desgogara	37	30
Batere desgogara	50	54
Ed/Ee	3	6
Guztira ehunekotan	100	100
Guztira balio absolututan	1.364	1.500

* 2000ko datuak biribildu egin dira.

Oso ezberdintasun gutxi sumatzen dira *Euskadiko Gazteak 2000* txostenean jasotako emaitzen eta egungoen artean. 7.13 taulan ikus daitekeenez, 2000. urtean egun bezalaxe, Euskadiko gazteen %10 baino ez da nahikoa desgogara edo oso desgogara sentitzen be-reak ez bezalako ideiak edo sinismenak dituztenekin. Gorakada txiki bakarra “batere desgogara” sentitzen direnen artean sumatzen da, “ez oso desgogara” sentimenduak behera egin duelarik.

7.14 taula: Politikaz hitz egiteko aske sentitzen al zara?

% Horizontalak	Bai, edozeinekin	Pertsona batzuekin soilik	Ez, ia inorekin	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira balio absolututan
GUZTIRA	36	43	8	13	100	1.500
SEXUA						
Gizon	40	39	7	14	100	750
Emakumea	32	48	9	12	100	750
ADINA						
15 eta 19 urte bitartekoak	35	39	10	17	100	412
20 eta 24 urte bitartekoak	38	43	7	12	100	588
25 eta 29 urte bitartekoak	35	48	7	10	100	500
LURRALDEA						
Araba	42	39	8	11	100	215
Bizkaia	34	44	7	14	100	805
Gipuzkoa	37	43	8	12	100	480
EZKERRA/ESKUINA ARDATZA						
Ezkerra	42	49	5	5	100	719
Zentroa	39	50	6	5	100	108
Eskuina	30	50	18	3	100	46
Ed/Ee	29	36	11	24	100	627
EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA						
Euskalduna	40	43	6	11	100	777
Euskalduna eta espainiarra	33	47	10	11	100	488
Espainiarra	33	40	15	12	100	77
Ed/Ee	32	33	10	24	100	158
GERTUKOAGOA DUTEN ALDERDIA *						
PP	24	53	23	0	100	12
EAJ-PNV	39	52	6	2	100	123
PSE – EE	37	52	8	3	100	85
IU – EB	51	41	3	4	100	97
Ezkerreko beste talde batzuk	44	52	3	0	100	42
Aralar	34	55	5	7	100	117
EA	50	48	1	0	100	43
UA	0	0	100	0	100	1
Bestelakoak	30	60	10	0	100	19
Guztiak	0	100	0	0	100	1
Batere ez	36	40	9	15	100	639
Ed/Ee	27	38	9	26	100	321

* “PP”, “UA”, “Beste talde batzuk” eta “Guztiak” ez dira komentatuko inkesta egiterakoan oso erreferentzia gutxi jaso delako.

Tolerantzia ideologikoaren auzian gehiago sakonduz gero, beharrezkoa da Euskadiko gazteek arlo politikoan dagoen tolerantziarekiko zein ikuspegia duten jakitea. Horrela, politikaz eztabaidatzeko aske sentitzen diren galdetu zaie. Horietatik %36ak guztiz aske

sentitzen dela adierazten du, %43ak pertsona batzuekin soilik sentitzen direla aske, eta %8ak ia inorekin (7.14 taula). Ia datu berberak jaso ziren 2000. urtean, eta ondorioz esan daiteke askatasun-mota honen pertzepzioa ez dela kasik aldatu.

Duela lau urte bezala, neskek mutilek baino askatasun gutxiago sumatzen dute edozeinekin politikaz eztabaidatzeko. Lurraldeka aztertuz gero, berriz, arabarrek edozeinekin hitz egiteko bizkaitarrek eta gipuzkoarrek baino askatasun handiago sumatzen dutela esaten dute.


Aukera politikoa kontuan hartzen badugu esan daiteke ezkerretik eta zentrotik hurbil daudenak, euren burua euskalduntzat dutenak, eta bereziki, Ezker Batua eta Eusko Alkartasuna alderdietako kideak (talde bakarra baita non kideen erdiak politikaz edozeinekin askatasun osoz hitz egin dezakeela esaten baitu) dira askatasun gehien sumatzen dutenak.

7.3.3. Inmigratioarekiko jarrerak

7.3 grafikoan ikus daitekeenez, EAEko gazteen %68arentzat atzerriko etorkinez ari garenean, afrikarrez ari gara. Beste %45arentzat hegoamerikarrez, %15arentzat ekialdekoek eta %12arentzat, berriz, Europako Ekialdeko etorkinez. Gutxiago dira “beltzak” (%7), arabiarrek (%7) aipatzen dituztenak eta are gutxiago Europako Elkarteko hiritarrak (%5). Gainera %2ak portugaldarrak aipatzen ditu eta beste horrenbestek ijitoak.

2000. urtetik nabarmen igo da berez hegoamerikarrak aipatzen dituzten gazteen kopurua (29 puntu gehiago), eta zertxobait gutxiago Ekialdeko europarrak (sei puntu gehiago) eta arabiarrek (bost puntu gehiago). Aldi berean, oraindik ere gehienbat aipatzen badira ere, gutxiago aipatzen dira afrikarrak (bost puntu).

7.3 grafikoa: Zeinekin parekatzen dituzu Euskal Herrian bizi diren etorkinak?
(2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000ko datuak biribildu egin dira. 2000. urtean ez zegoen “EBeko beste batzuk” kategorian, guztiak “Gainerakoak” kategoriaren barne hartzen zirelako.

Euskadin bizi diren kanpoko pertsona kopuruari dagokionez, EAeko gazteen %61aren iritziz dezente dira baina ez gehiegi, hamarretatik batentzat oso gutxi dira. Dena den, euskal gazteen %24ak gehiegi direla pentsatzen du (7.15 taula).

Euskadin atzerritar gehiegi bizi dela pentsatzen dute gehienbat 15 eta 19 urte bitarteko gazteek (%28), langabezian daudenek (%28), zentrokoak direnek edo euren buruan ezkerria/eskuina ardatzean kokatzen ez dutenek (%29), bere burua espainiarizat dutenek (%37), eta horietatik batik bat Araban bizi direnek (%40).

7.15 taula: Euskadi bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia


% Horizontalak	Gehiegi	Dezente baina ez gehiegi	Gutxi	Ed/Ee	Guztira ehunekotan	Guztira balio absolututan
GUZTIRA	24	61	10	5	100	1.500
SEXUA						
Gizona	24	58	12	6	100	750
Emakumea	25	65	7	3	100	750
ADINA						
15 eta 19 urte bitartekoak	28	59	9	4	100	412
20 eta 24 urte bitartekoak	24	63	9	4	100	588
25 eta 29 urte bitartekoak	22	61	11	6	100	500
LURRALDEA						
Araba	40	52	6	2	100	215
Bizkaia	22	64	9	5	100	805
Gipuzkoa	22	61	12	6	100	480
LAN-EGOERA						
Ikasten	22	64	10	4	100	642
Lanean	26	60	10	4	100	691
Langabezian	28	52	11	9	100	132
Etxeko lanetan	23	77	0	0	100	23
EZKERRA/ESKUINA ARDATZA						
Ezkerra	18	63	13	5	100	719
Zentroa	29	55	11	4	100	108
Eskuina	22	65	10	3	100	46
Ed/Ee	31	60	5	4	100	627
EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA						
Euskalduna	25	59	11	5	100	777
Euskalduna eta espainiarra	22	65	8	5	100	488
Espainiarra	37	55	6	2	100	77
Ed/Ee	21	63	10	6	100	158

2000. urteko datuekin (*Euskadiko Gazteak 2000*) alderatzen baditugu honakoa ikus daiteke: Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla pentsatzen dutenen kopurua bikoiztu egin dela eta etorkin gutxi daudela pentsatzen duten gazteen kopurua, berriz, hiru aldiz txikiago dela. Beraz, esan beharra dago azken lau urteotan Euskadiko gazteen artean atzerritar gehiegi etorri dela pentsatzen dutenen kopurua aldatu egin dela.

Beste alde batetik aipatu behar da, Euskadiko gazteen erdia (%57) administrazioak atzerriko etorkinak etortzeari mugak jartzearen aldekoa dela; hots, lanerako baimena

dutenei soilik sartzen uztearen aldekoak. %28 ez dago ados etorkinen etorrerari mugak jartzearekin eta beste herrialdeetako langileak etortzea ahalik eta gehien erraztu behar dela adierazten dute. Azkenik, badago mugak zeharo ixtearen aldeko kopuru txiki bat ere (%4) (7.16 taula).

7.4 grafikoa: Euskadi bizi diren atzerritarren kopuruari buruzko iritzia (2000* – 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000ko datuak biribildu egin dira

Atzerritarrek Euskadin sartzea ahalik eta gehien erraztearen aldeko gehienak 20 eta 24 urte bitartekoak (%31), Bizkaian bizi direnak (%30), ezkerreko gazteak (%36) eta euren burua euskalduntzat dutenak (%34) dira.

Gehienbat zentrokoak (%66) edo eskuinekoak (%72) edo euren burua espainiartzat dutenak (%60) dira etorkinen etorrerari mugak jartzearekin eta lanerako baimena dutenei soilik sartzen uztearekin ados daudenak. Dena den, ez da ahantzi behar iritzia hau nagusi dela talde guztietan.

Azkenik, gutxi badira ere, langabezian daudenak (%8) dira etorkinen etorrerari eragozpen gehien jartzen dizkietenak.


Datuei jarraiki azpimarratu behar da, ideologia politikoak baduela eraginik EAeko gazteek bertan dauden etorkin atzerritarrekiko jarrera azaltzeko orduan, bai ezkerre/eskuina ardatzari zein euskalduna/espainiarra ardatzari gagozkiolarik. Halaber, lanbideak edo zertan diharduten ere badu zerikusirik etorkin atzerritarrek onartzeko orduan.

Duela lau urte izandako datuekin alderatuta, etorkinei mugak jarri edo lanerako baimena eskatzearen aldekoen kopurua areagotu egin da (zazpi puntu). Honela, agerian jartzen da Euskadin gero eta etorkin atzerritar gehiago bizi delako iritziak eta mugak jartzearen aldekoak gora egin dutela.

7.16 taula: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke?

% Horizontalak	Sarrera ahalik eta gehien erraztea	Lanerako kontratuta dutenei soilik uztea sartzen	Sarrera debekatzea	Ed / Ee	Guztira ehunekotan	Guztira balio absolututan
GUZTIRA	28	57	4	10	100	1.500
SEXUA						
Gizona	29	57	5	10	100	750
Emakumea	28	57	4	11	100	750
ADINA						
15 eta 19 urte bitartekoak	24	60	5	11	100	412
20 eta 24 urte bitartekoak	31	55	4	9	100	588
25 eta 29 urte bitartekoak	29	57	3	12	100	500
LURRALDEA						
Araba	24	63	5	8	100	215
Bizkaia	30	53	4	13	100	804
Gipuzkoa	28	61	4	7	100	480
LAN-EGOERA						
Ikasten	26	59	4	11	100	642
Lanean	32	55	4	10	100	691
Langabezian	27	54	8	11	100	132
Etxeko lanetan	24	60	0	16	100	23
EZKERRA/ESKUINA ARDATZA						
Ezkerra	36	52	3	8	100	719
Zentroa	23	66	5	6	100	108
Eskuina	19	72	3	6	100	46
Ed/Ee	21	60	5	14	100	627
EUSKALDUN/ESPAINIAR ARDATZA						
Euskalduna	34	52	5	10	100	777
Euskalduna eta espainiarra	21	68	2	8	100	488
Espainiarra	20	60	7	13	100	77
Ed/Ee	29	45	7	18	100	158

7.5 grafikoa: Atzerriko langile etorkinen inguruan, zer egin beharko litzateke? (2000*-2004 urteetako datuen konparazioa)



7.3.4. Gaeuz kalera ateratzeko beldurra

Euskadiko gazteen artean %14ak soilik adierazten du gaeuz herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten duela. Datu orokor horren azpian, ordea, errealitate bat dago, izan ere mutilen %6ak bakarrik adierazten baitu beldur hori, baina nesken %22ak (7.17 taula).

7.17 taula: Gaeuz herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten al zaitu?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EZKERRA/ESKUINA ARDATZA			HERRIAREN TAMAINA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Txikia	Erdikoa	Hiribur.
Bai	14	6	22	19	14	11	24	12	15	12	16	22	12	12	19
Ez	85	93	77	81	85	88	75	88	85	87	84	75	88	88	79
Ed / Ee	1	0	1	0	1	0	1	1	0	1	0	2	0	0	1
Guztira ehunekotan .	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira absolututan .	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	719	108	46	318	658	571


Adinaren araberako aldeak ere interesgarriak dira, urteetan gora egin ahala gaeuz kalera ateratzeko beldurra murriztu egiten baita.

Arabako gazteak (%24), Bizkaikoak (%12) edo Gipuzkoakoak (%15) baino gehiago beldurtzen ditu kalean ibiltzeak. Gainera beldur hori zertxobait handiagoa da hiriburuan bizi direnen artean (%19) herri txikia edo ertainetan bizi direnen artean baino.

Ideologia politikoak ere badu eragina gaeuz ibiltzeko beldurrarekin. Ohikoagoa da beldur izatea kontserbadoreen (eskuinekoak) artean (%22).

Amaitzeko, aurten jasotako datuak 2000koekin alderatuz gero, ez da alde handirik sumatzen emaitza orokorretan, baina bai, ordea, taldeen artekoetan. Zentzu honetan, alderik handiena generoan ikusten da: egun gizonezkoak gehiago beldurtzen dira duela lau urte baino, eta badirudi, aitzitik, emakumeengan berriz arindu egin dela beldurra (7.6 grafikoa). Baina aldaketarik garrantzitsuen jarraera politikoari dagokiona da. Izan ere, eskuineko ideologiatik hurbil dauden gazteek gaeuz ateratzeari dioten beldurra areagotu egin da zortzi puntutan, eta ezkertiarren artean, berriz, bi puntutan.

7.6 grafikoa: Gauez herritik edo auzotik ibiltzeak beldurtu egiten al zaitu? (2000^{*} - 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000ko datuak biribildu egin dira

ONDORIOAK

- Oro har, Euskadiko gazteek gehien onartzen dituzten gizarte jarduerak dibortzioa (azken lau urteetan nabarmen igo dena) eta harreman homosexualak dira. Gehienek abortua eta eutanasia egoera jakin batzuen baldintzapean onartzen dituzte. Eskuineko ideologia dutenak dira jarduera hauek gehien gaitzesten dituztenak.
- Euskadiko gazteek zorrotz gaitzesten dituzte indarkeria fisiko guztiak: bikote barrukoa, haurren kontrakoa, animaliak jotzea zein helburu politikoak lortzekoa (%90ak gaitzesten du erabat kasu guztietan).
- Politikoei euren egoerari etekina atera nahi izatea, alkoholaren eraginpean gidatzea, kalea zikintzea, legez kanpoko drogak hartzea edo Ogasunari iruzur egitea ere gehienek gaitzesten dute, eta gazte gehienek ez du inoiz ere justifikatzen.
- Gazte gehienek iritziz, oso errotuta dago legezko drogen (tabakoa eta alkohola) kontsumoa Euskadiko gazteen artean. Orobat, legez kanpoko drogak hartzea, orekarik gabe elikatzea, ariketa fisiko gutxi egitea eta babes-neurririk gabeko harreman sexualak ere oso zabaldua daude. Azken hauek, gainera, nabarmen egin dute gora azken lau urteotan. Aldi berean, gazteen erdiak baino gehiagok uste du arazo psikologikoak oso hedatuta daudela gazteen artean.
- Gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok onartzen du gehiegi edan izana azken urtean (eta bereziki mutilak eta 20 eta 24 urte bitartekoak). Gazteen gutxi gora-behera laurden batek onartzen du azken urtean trafiko arauak hautsi eta legez kanpoko drogak hartu izana (orain ere mutilak dira gehien onartzen dutenak).
- EAEko gazte gehienak oinez joaten dira leku batetik bestera (gazteen hiru laurdenak egunero egiten du). Ondoren autoa erabiltzen dutenak daude, eta geroago garraiobide kolektiboak (autobusa, metroa eta trenak) hartzen dutenak. Motorra eta bizikleta, ordea, gutxienez hartzen dute. Emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago erabiltzen dituzte garraiobide publikoak, eta gizonezkoek, berriz, nahiago dituzte pribatuak (autoa, motorra, bizikleta).
- EAEko gazteek neonaziak eta eskuin-eskuinekoak arbuatzen dituzten gehien (gazteen erdiak baino gehiagok ez luke horien auzokide izan nahi). Ijitoak eta drogen menpekoak nahikoa gaitzesten dituzte (gehiengoak ez arbuatu arren), eta aintzat hartzeko modukoa bada ere, arbuio txikiagoa militar, prostituta, polizia, kartzelan egondako eta mutur-muturreko ezkertiarrekiko. EAEko gazteek gutxienez gaitzesten dituzten taldeak homosexualak eta atzerriko etorkinak dira. Nabarmendu behar da, azken lau urteetan neonazi eta eskuin-eskuinekoekiko eta drogen menpekoekiko tolerantziak gora egin duela.
- Euskadiko gazte askori zenbait taldetako kideak auzokidetzat izatea axola dio; baina ez dirudi ezberdintasun ideologikoei eragiten dutenik. EAEko hamar gaztetatik batek bakarrik adierazten du bereak ez bezalako ideiak, sinismenak edo balioak dituztenekin nahikoa desgogara edo oso desgogara sentitzen dela.
- Gazteen %36ak adierazten du askatasun osoz hitz egin dezakeela politikaz eta %8ak ez duela inorekin edo ia inorekin hitz egiteko askatasuna sentitzen. Gehiengoak dira, ordea, aske, bakarrik batzuekin sentitzen direnak (%43).

.../...

.../...

- Atzerriko etorkinez ari garenean, EAEko gazte gehienentzat afrikarrez ari gara, eta ondoren hegoamerikarrez (azken hauek dezente gehiago aipatzen dira 2000. urtean baino).
- Gainera, Euskadiko gazte gehienentzat asko dira bertan bizi diren atzerritarrak, baina ez gehiegi. Hala ere, aipatu behar da azken lau urteotan Euskadin atzerritar gehiegi dagoela pentsatzen dutenen kopurua bikoiztu egin dela.
- Etorrin atzerritarrak hartzeari dagokionez, gazteen %57ak uste du bakarrik lanerako baimena dutenei utzi behar zaiela sartzan, eta %28ak, berriz, murrizketarik gabe utzi behar zaiela sartzan. Gazteen %4 baino ez da sarrera debekatzearen aldekoa.
- EAEko gazte gehienak seguru sentitzen dira hiri edo herrian. Gazteen %14 bakarrik beldurtzen du gauez kalera atzeratzeak, eta gainera, emakumezkoak gizonnezkoak baino gehiago. Azken datu hau garrantzitsua bada ere esan behar da duela lau urte baino gutxiago beldurtzen direla emakumeak.



8

Euskara

8.1. SARRERA

Euskal Herrian, alde batetik, euskara eta, bestetik, gaztelania eta frantsesa hitz egiten dira, hizkuntza horiek balio eta indar oso desberdinak dituztelarik. Halaber, egoera soziolinguistikoa oso desberdina da lurralde batetik bestera. “Baina euskarak, gainera, badi-tu beste hainbat berezitasun soziopolitiko, hala nola gutxiengo baten hizkuntza izatea eta, aldi berean, hizkuntza minorizatua izatea. Gutxiengo baten hizkuntza da hiztun-kopuru txiki batek erabiltzen duelako eta hiztun horiek, neurri handi batean, gehiengo batena den beste hizkuntza (gaztelania, eta, neurri txikiagoan, frantsesa) bateko hiztun direlako. Minorizatua da, zirkunstantzia historiko desberdinetan euskararen erabilera gutxietsita eta, kasu batzuetan, debekatuta egon zelako.”¹

Gaur egun, hiztun-kopurua handitzeko eta euskararen erabilera normalizatzeko aplikatzen diren neurri politikoak ez dira berdinak lurralde guztietan, ez ahaleginari dagokionez ezta iraupenari dagokionez ere; eta helburu hori lortzeko gizarteak duen presentzia eta burutzen dituen ekintzak ere ez dira berdinak. Euskara ofiziala da EAEn duela hogeituz urte Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea (1982) onartu zenetik. Lege horrek ezarri zituen, hain zuzen, politika-gaietan eta hizkuntzaren plangintzari dagokionean jarduteko oinarriak. Beraz, neurri ofizialak eta gizartearen laguntza izatearen edo ez izatearen ondorioz, “Euskal Autonomia Erkidegoan euskara aurrera egiten ari da nabarmen eta, aldiz, Iparraldean joera kontrakoa da hain zuzen. Nafarroako Foru Erkidegoan ez dago joera garbirik noranzko batean ezta bestean ere.”² Gainera, lurralde bakoitzean adinaren araberrako hizkuntza-gaitasuna aztertzen badugu, ikus dezakegu euskara etengabe suspertzen ari dela EAEn eta askoz ere motelago Nafarroan. Alderantziz, Iparraldean etengabea da atzerakada.

EAE aztergaitzat hartuz, 2001eko azken Inkesta Soziologikoaren arabera, 15 urtetik gorako adina duten pertsonen artean %29,4 elebiduna da (ondo edo nahiko ondo hitz

¹ ETXEBARRIA AROSTEGUI, Maitena: “Normalización del Euskera y educación bilingüe”, *Estudios de Lingüística*, 15. zenbakia: Alicanteko Unibertsitatea, 2001.

² EUSKO JAURLARITZAREN KULTURA SAILA: *Euskararen Jarraipena III. Euskal Herriko Inkesta Soziologikoa 2001. Ondorioak*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2003, 46. orria.

egiten dute euskaraz nahiz gaztelaniaz), %11,4 elebidun pasiboak dira (euskaraz ondo hitz egin ez arren, ondo edo nahiko ondo ulertzen dute). Gainerako biztanleak, alegia %59,2 elebakar erdaldunak dira (gaztelaniaz bakarrik hitz egiten dute).

EAEko hiru lurraldeetan egoera oraindik oso desberdina den arren, euskaldunen proportzioak etengabe gora egiten du adina txikitzen den neurrian. Horrela bada, 25etik 34 urtera bitarteko adina dutenen %31,6 elebiduna da eta 16tik 24 urtera bitarteko gazteen ia erdia (%48) da elebidun. Gainera, gazteen artean (16-24 urte) %20ek ondo edo nahiko ondo ulertzen du euskara eta elebakar erdaldunak heren bat baino gutxiago dira (%31). Hau, alde batetik, lehen-mailako eta bigarren mailako hezkuntzaren esparruan azken urteetan B eta D ereduak sartuz egindako lanari zor zaio eta, bestetik, bikote gazteek euskararen familia-arloko transmisioa berreskuratu izanari.

Halere, hiztun berriak euskara bereganatzen ari direla egia bada ere, egia da halaber “euskara lehen hizkuntzatzat ez duten elebidunak gero eta gehiago direla eta hauek gaztelaniaz euskaraz baino hobeto moldatzen direla”. Alde batetik, gaztelania nagusi duten elebidun hauek multzo handiena dira elebidunen artean (%45) eta, bestetik, euskara nagusi duten elebidunen ehunekoa (%28,2) gutxitu egiten da hiztunen adina txikitzen den neurrian.

Hizkuntza-gaitasunaz gain, euskararen erabileraren hedadura aztertuko dugu laburki. SEIk³ euskararen benetako erabilerari buruz kalean egindako neurketetan jasotako datuen arabera, erabilera ez da bera lurralde batean edo bestean, ezagutza ere ez baita berdina. 1989. urtean egindako lehen irakurketatik 2001.ean egindako azkeneraino, gazteen erabilera %10etik %16ra handitu da EAEn eta haurrak dira gehien erabiltzen dutenak (%24). Lurraldeen arteko desberdintasunak oso handiak dira eta bi joera erakusten dituzte. Alde batetik, Araban azken lau urteetan euskararen erabilera egonkortu egin da gazteen artean (%4) eta, beraz, belaunaldi gazteenek duten ezagutza-maila handitu izana ez da islatzen euskararen erabileraren igoeran. Bestalde, Bizkaian (%10) eta Gipuzkoan (%32) joera hazkuntzarena da, baina erritmo motel samarrean.

Datu hauek kontuan hartuta, kapitulu honetan EAEko gazteek euskararekiko duten jarrera ezagutuko dugu, honako alderdi hauen analisiaren bitartez:

- ▶ Euskararen ezagutza-maila.
- ▶ Euskararen erabilera (familiar, lagun artean eta irakurtzen).
- ▶ Herri-administrazioek euskara sustatzeari buruzko iritzia.

8.2. EUSKARAREN EZAGUTZA


8.1 taulak eskainitako datuak ikusirik, azpimarratzekoa da EAEko gazteen %62k euskara nahiko ondo edo ondo ulertzen duela, %32k zerbait ulertzen duela edo, gutxienez, hitzak ulertzen dituela eta %6k bakarrik dio ezer ulertzen ez duela.

Zertxobait gutxiago dira, baina kasu honetan ere gehiengoa (%56) 15etik 29 urtera bitarteko adina izanik euskara nahiko ondo edo ondo hitz egiteko moduan ezagutzen dutela diotenak. %36k dio zerbait esaten edo hitz batzuk esaten dakiela, eta %8k bakarrik dio ez duela batere hitz egiten.

³ SEI: <<http://www.sortu.org/>>.


Euskaraz idatziz komunikatzeko gaitasunari dagokionez, hau da, irakurtzen jakin (%58) eta idazten jakiteari (%57) dagokionez, datuak ahozko komunikazioaren antzekoak dira, 8.1. grafikoan ikus daitekeenez. 2000. urtean bezala, Euskadiko gazteek zailtasun gutxienak ahozko ulermenean dituztela antzematen da; izan ere, %62k dio euskara ondo ulertzen duela.

8.1 grafikoa: Zein da zure ezagutza-maila euskarari dagokionez?



Datu hauek 2000. urtean lortutakoekin (*Euskadiko Gazteak 2000*) konparatzen baditugu, gaur egun euskararen ezagutza handiagoa dela ikusten da, bai ahozkoari bai eta idatzizkoari dagokionez ere, eta hala igorpenean nola harreran ere (8.2 grafikoa).

8.2 grafikoa: Euskarazko hizkuntza-gaitasunak.
(2000* eta 2004 urteetako datuen konparazioa)



* 2000. urteko datuak biribildu egin dira.

Ikusten denez, gaur egun gazteenak dira (15etik 19 urtera bitarteko adina) euskararen ezagutza-maila handiena dutenak eta, 2000. urtean bezala, joera garbia da adinari dagokionez: adinak gora egiten duen neurrian, murriztu egiten dira euskararen ezagutza-mailaren ehunekoak (8.1 taula).

8.1 taula: Zein da zure ezagutza-maila euskarari dagokionez?

	GUZTIRA	ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EUSKALDUN / ERDILDUN ARDATZA				
		15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskalduna	Espainiar bezain euskalduna	Espainiarra	Ed / Ee	
ULERTZEN DU	Ez	6	4	7	7	12	7	3	3	4	31	16
	Zerbait	32	26	32	38	45	40	13	19	46	48	46
	Bai	62	70	61	55	43	53	84	78	49	21	38
HITZ EGITEN DU	Ez	8	6	8	9	16	8	5	4	7	36	17
	Zerbait	36	28	36	44	47	45	18	22	54	47	49
	Bai	56	66	56	47	37	48	77	74	38	18	35
IRAKURTZEN DU	Ez	9	7	9	10	16	8	6	5	8	38	18
	Zerbait	34	25	33	39	42	41	16	20	49	46	45
	Bai	58	68	57	51	41	50	78	75	43	17	37
IDAZTEN DU	Ez	9	7	9	11	16	9	6	5	9	38	19
	Zerbait	35	26	35	41	45	42	16	21	51	46	45
	Bai	57	67	56	48	40	48	77	74	40	16	35

* Taula honetan agertzen diren *Ez*, *Zerbait*, *Bai* kategoriak galde-sortako 51. galderaren erantzunak erantsiz landu dira eta horrela geratu: *Ez* "Ezer ez", *Zerbait* "Hitzak bakarrik, Zerbait", *Bai* "Nahiko ondo, Ondo".

Jatorrizko lurralde historikoari dagokionez, argi eta garbi geratu da Gipuzkoako pertsona gazteak direla euskararen ezagutza-maila handiena dutenak. Izan ere, %84k euskara ulertzen du eta %77-%78 inguruk nahiko ondo edo ondo hitz egin, irakurri eta idatzi dezake euskaraz. Beste muturrean Araba dago, bertan euskara ulertzen duten gazteen segmentua %43raino jaisten baita; gainera, euskaraz hitz egin, irakurri edo idazteko behar adinako gaitasuna dutenak zertxobait gutxiago dira.

Euskaldun / erdaldun ardatzari dagokionez norberak hartzen duen jarrerak ere desberdintasun garrantzitsuak ezartzen ditu EAEko gazteen artean eta oso bereizlea den segmentazio-faktore bihurtzen da. Horrela, espainiar bakarrik edo funtsean espainiar sentitzen direnen %18k bakarrik daki euskaraz hitz egiten eta, aldiz, nagusiki euskaldun sentitzen direnen artean kopuru hori %74raino igotzen da. Halere, datu interesgarri bat da beren burua euskaldun baino espainiarragotzat dutenek beren ezagutza-maila handitu dutela azken lau urteetan.

8.3. EUSKARAREN ERABILERA

8.2 taulan jasotako datuek erakusten dutenez, euskara ez dago oso hedatuta Euskadiko gazteek hitz egiteko erabiltzen duten hizkuntza gisa. Izan ere, EAEko gazte euskaldunen %27k bakarrik erabiltzen du euskara etxean normalean edo gutxienez gaztelania baino gehiago.

8.2 taula: Zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean etxean?*

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EUSKALDUN / ESPAINIAR ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskalduna	Euskaldun bezain espainiarra	Espainiarra	Ed/Ee
(la) guztia euskaraz	22	24	20	20	21	24	6	15	32	30	3	0	4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	5	6	5	5	6	5	1	4	7	6	2	0	6
Bi hizkuntzetan berdін	10	11	9	10	9	13	5	11	11	12	8	0	7
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	12	12	12	11	12	12	13	13	11	13	10	7	8
(la) guztia gaztelaniaz	51	48	53	53	51	47	74	57	39	39	77	93	76
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekatotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	833	413	420	272	323	236	80	382	371	576	189	13	55

* Galdera hau euskaraz nahiko ondo edo ondo hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Gazte euskaldunen adina handitzen den neurrian, euskararen etxeko erabilerak ere gora egiten du pixka bat.

Gaztea bizi den lurraldearen arabera, ikus daiteke Gipuzkoako gazte euskaldunek (%39k ia dena euskaraz hitz egiten du edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten du) etxean euskara Bizkaikoek (%19) baino dezente gehiago erabiltzen dutela, eta Arabakoek (%7) baino askoz ere gehiago.

Azkenik, azpimarratzekoa da batez ere euskaldun sentitzen direnek euskaldun eta espainiar sentitzen direnak baino gehiago eta batez ere espainiar sentitzen direnek baino gehiago hitz egiten dutela euskaraz etxean.

Halako desberdintasunak aurkitu arren, ez dugu ahaztu behar aztertutako multzo guztietan, euskaraz hitz egiten nahiko ondo edo ondo jakin arren, etxe barruan batez ere gaztelania erabiltzen dutela dioten gazteak gehiengoa direla.

8.3 taula: Zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean lagunekin hitz egiteko? *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EUSKALDUN / ESPAINIAR ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskalduna	Euskaldun bezain espainiarra	Espainiarra	Ed/Ee
(la) guztia euskaraz	19	16	21	20	19	16	3	11	30	26	2	0	4
Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago	8	9	7	6	10	8	1	10	8	10	3	0	7
Bi hizkuntzetan berdін	22	25	18	17	25	23	16	24	21	24	17	0	24
Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago	18	17	20	20	18	17	23	19	17	18	20	25	19
(la) guztia gaztelaniaz	33	33	34	36	29	35	56	38	23	23	58	75	47
Ed/Ee	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira ehunekatotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	833	413	420	272	323	236	80	382	371	576	189	13	55

* Galdera hau euskaraz nahiko ondo edo ondo hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Bestalde, garrantzitsua da ingurune informalago batean euskarak zein erabilera duen aztertzea, zehazki lagun artean. 8.3 taulako datuek agerian jartzen dutenez, gazte

euskaldunen %27k bakarrik erabiltzen du nagusiki euskara lagunekin komunikatzeko, eta erdiak (%51) gaztelania bakarrik erabiltzen du edo gaztelania euskara baino gehiago erabiltzen du.


Kasu honetan ikusten da euskara gehien erabiltzen dutenak 20tik 24 urtera bitarteko adina dutenak direla.

Lurralde historikoak berriro ere desberdintasunak markatzen ditu Euskadiko gazte euskaldunek familian erabiltzen duten hizkuntza aztertzean ikusitako zentzu berean. Kasu honetan, berriz ere Gipuzkoan erabiltzen da gehien euskara lagunekin mintzatzeko (%38k ia dena euskaraz edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago hitz egiten du. Arabakoak dira, oraingoan ere, euskaraz nahiko ondo edo ondo hitz egiten jakin arren lagun arteko harremanetan eta harreman afektiboetan hizkuntza hori gutxien erabiltzen dutenak (Arabako gazte euskaldunen %4k bakarrik ematen dio lehentasuna euskarari bere lagun arteko harremanetan).

Euskaldun izatearen sentimendua ere, agidanez, bat dator euskararen erabilerarekin eta, beraz, nagusiki euskaldun direla dioten gazte euskaldunak dira lagunekin euskara gehien erabiltzen dutenak (%36k gaztelania baino gehiago erabiltzen du).

Ondoko grafikoa ikus daitekeenez (8.3 grafikoa), euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen duten gazte euskaldunek neurri berean erabiltzen dute etxean nahiz lagunekin harremanak izateko orduan. Halere, gaztelania etxean lagunekin baino gehiago erabiltzen dela ere ikus daiteke. Azkenik, aipatzekoa da bi hizkuntzak neurri berean erabiltzea ohikoagoa dela lagun-taldean familia barruan baino.

8.3 grafikoa: Normalean zein hizkuntza erabiltzen duzu etxean? Eta lagunekin?*



* Galdera hau euskaraz nahiko ondo edo ondo hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Bestalde, 8.4 taulan jasotako datuek erakusten dutenez, irakurtzeko orduan euskara ez dago oso zabalduta EAeko gazteen artean. Horrela bada, euskaraz irakurtzen nahiko ondo edo ondo dakitela diotenen %13k bakarrik dio dena edo ia dena euskaraz irakurtzen duela edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen duela, familiarekin nahiz lagunekin euskaraz hitz egiten dutela zioten %27ren aurrean. Hortaz, euskara hitz egiteko irakurtzeko baino gehiago erabiltzen dela ondoriozta daiteke.

8.4 taula: Zenbat irakurtzen duzu euskaraz eta zenbat gaztelaniaz? *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			LURRALDEA			EUSKALDUN / ESPAINIAR ARDATZA			
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskalduna	Euskaldun bezain espainiarra	Espainiarra	Ed/Ee
Dena edo ia dena euskaraz	5	4	6	6	5	4	1	6	5	7	0	0	0
Euskaraz gehiago	8	8	8	10	9	5	8	6	11	11	1	0	5
Bi hizkuntzatan berdín	25	24	25	29	24	21	26	28	20	29	17	18	8
Gaztelaniaz gehiago	32	31	33	28	32	36	31	28	37	32	33	7	35
Dena edo ia dena gaztelaniaz	28	29	27	25	28	32	33	30	25	19	45	75	48
Ed/Ee	2	4	1	3	2	2	2	3	2	2	4	0	4
Guztira ehunikotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	833	413	420	272	323	236	80	382	371	576	189	13	55

* Galdera hau euskaraz nahiko ondo edo ondo hitz egiten dutela diotenei bakarrik egin zaie.

Honi gehitu behar zaizkio irakurtzeko euskara inoiz edo ia inoiz erabiltzen ez duen euskaldunen %28, eta gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen duen %32; hau da, batez ere gaztelaniaz irakurtzen duten euskaldunen kopurua %60koa da guztira.

Adin-talde desberdinak aztertuz gero, ikus daitezkeenez 15etik 24 urtera bitarteko adina duten gazteak euskara gehien ezagutzen dutenak izateaz gain (aurreko atalean ikusi bezala), irakurtzeko ere gehien erabiltzen dutenak dira.

Lurraldeak berriro ere desberdintasun handia markatzen du; Gipuzkoan euskaldun gazteek beste lurraldeetako gazteek baino gehiago irakurtzen dute euskaraz (bakarrik edo gaztelaniaz baino gehiago), bereziki Araban baino gehiago, bera baita gazteek euskara gutxien erabiltzen duten lurraldea, dela hitz egiteko, dela irakurtzeko.

Euskaldun sentitzeari dagokionez, euskaraz bakarrik edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen duten gazte euskaldunen ehunikoa %18koa da nagusiki euskaldun sentitzen direnen artean, baina irakurtzeko orduan batez ere gaztelania aukeratzen dutela diotenak %51 dira halere. Halaber, azpimarratzekoa da espainiar bakarrik edo funtsean espainiar sentitzen diren euskaldunen %18k bi hizkuntzetan (gaztelania eta euskara) berdín irakurtzen duela esatea, %100ek hitz egiteko gaztelania bakarrik edo batez ere gaztelania erabiltzen duen arren.

8.4. HERRI ADMINISTRATIOEK EUSKARA SUSTATZEARI BURUZKO IRITZIA

EAEko gazte gehienak herri-administrazioek euskara sustatzearen alde agertzen dira, hau da, 30 urtetik beherako adina duten gazteen %51k uste du euskal administrazioek esparru horretan egiten dituzten inbertsioak handitu behar lituzketela, eta %34 oraingo gastu bera esleitzearen aldekoa da. Azkenik, %4k bakarrik nahi du aurrekontu-partida horiek murriztea (8.5 taula). Iritzi hauek apenas aldatu dira 2000. urtetik.

Kasu honetan ez dirudi generoa eta adina segmentazio-aldagai direnik, ez baita desberdintasun esanguratsurik antzematen. Lurraldeak aztertuz gero, Gipuzkoan euskararen sustapenerako gastua handitzearen aldekoak pixka bat gehixeago dira.

Azkenik, esan beharra dago euskara dakitenen artean hizkuntza hori sustatzera bideratutako gastua areagotzearen alde daudenak euskara “zerbait” dakitenak edo ez dakitenak baino gehiago direla: lehenengo kasuan %65 eta azken horien kasuan, berriz, %24.

8.5 taula: Zure ustez, euskal administrazioek orain baino gehiago, gutxiago edo berdina gastatu behar lukete euskararen sustapenean? (I)

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEA			LURRALDEA			EUSKARAREN EZAGUTZA		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Ez	Zerbait	Bai
Gehiago	51	51	52	52	51	51	50	49	56	24	36	65
Berdina	34	33	35	33	34	34	36	35	31	34	45	26
Gutxiago	4	4	5	6	4	4	5	6	2	14	7	1
Ed/Ee	10	12	9	9	11	11	9	10	11	28	12	7
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	215	805	480	119	548	833

Halere, aldagai ideologikoak dira gai honetan eragin handiena dutenak (8.6 taula). Alde batetik, euskaldun bakarrik edo funtsean euskaldun sentitzen direnen %71 administrazioek euskararako duten egungo aurrekontua handitzearen alde ageri da, batez ere espainiar sentitzen diren eta iritzi bera duten %17ren aurrean.

Bestalde, ezkerrekoak direla dioten %63k euskararen sustapenean egindako inbertsioa handitzea aukeratzen dute, beren burua eskuinean edo zentroan kokatzen duten %38ren eta %36ren aurrean, hurrenez hurren.

8.6 taula: Zure ustez, euskal administrazioek orain baino gehiago, gutxiago edo berdina gastatu behar lukete euskararen sustapenean? (II)

	GUZTIRA	EUSKALDUN / ESPAINIAR ARDATZA				EZKER / ESQUIN ARDATZA			
		Euskalduna	Espainiar bezain euskalduna	Espainiarra	Ed / Ee	Ezkerra	Zentroa	Eskuin	Ed / Ee
Gehiago	51	71	30	17	36	63	36	38	42
Berdina	34	22	51	37	37	26	48	44	39
Gutxiago	4	1	5	27	7	3	9	9	4
Ed/Ee	10	5	15	19	20	7	7	10	15
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	777	488	76	158	718	108	46	627

ONDORIOAK

- 15etik 29 urtera bitarteko adina duten EAEko gazteen %56k euskara nahiko ondo edo ondo hitz egiteko moduan ezagutzen dute. %8k bakarrik dio ez duela euskaraz batere hitz egiten eta beste %36k dio zerbait dakiela edo gutxienez hitz batzuk dakizkiela. Euskaraz irakurtzeko eta idazteko gaitasuna antzekoa da (%58 eta %57, hurrenez hurren) eta ahozkoaren ulermena, berriz, zertxobait handiagoa da (%62k dio euskara nahiko ondo edo ondo ulertzen duela).
- Gazteenek (15etik 19 urtera bitartekoak), gipuzkoarrek eta euskaldun bakarrik sentitzen direnek gainerako taldeek baino proportzio handiagoan dakite euskara (ahozko euskara nahiz idatzia) eta, beraz, 2000. urtean ikusitako eskema bera errepikatzen da. Halere, adierazi beharra dago euskararen ezagutzak, maila guztietan, gora egin duela azken lau urteetan.
- EAEko gazteen erdiak baino gehiagok euskara nahiko ondo edo ondo dakien arren, euskaldunen %27k bakarrik dio familia-harremanetan eta lagun artean euskara bakarrik edo gaztelania baino gehiago erabiltzen duela. Gaztelania jarraitzen du gazteek hitz egiteko nagusiki aukeratzen duten hizkuntza izaten.
- Era berean, gazte euskaldunen %13k bakarrik dio (ia) guztia euskaraz irakurtzen duela edo euskaraz gaztelaniaz baino gehiago irakurtzen duela. Berriz ere gazteen irakurketa-ohituretan gaztelania nagusitzen dela ikusten dugu.
- Gainera, datuen arabera ondoriozta daiteke gazte euskaldunen artean ahozko euskara gehiago erabiltzen dela euskara idatzia baino.
- Euskadiko gazteen %51 herri-administrazioek euskararen sustapena areagotzearen alde dago, hau da, gehienek uste dute euskal administrazioek esparru horretan egiten dituzten inbertsioak handitu behar lituzketela. %4 bakarrik dira partida horiek murriztu behar direla pentsatzen dutenak.
- Oro har, gazteek euskararen ezagutzarekin eta erabilerarekin duten harremanean erabakigarriak dira funtsean hiru aldagai:
 - Lurraldea: Gipuzkoan euskararen ezagutza eta erabilera hedatuago daude eta, aldiz, Araba da gutxien ezagutzen eta erabiltzen duen lurraldea. Bizkaia bien artean kokatzen da.
 - Adina: gazteenek hobeto ezagutzen dute hizkuntza, baina halere ez dute euskaraz gehiago hitz egiten.
 - Identitatearen sentimendua: batez ere euskaldun sentitzen diren gazteek gainerakoek baino askoz ere gehiago ezagutzen eta erabiltzen dute euskara.



9

Sexualitatea

9.1. SARRERA

Sexualitatea funtsezko alderdi bat da norbanakoaren bizitzako etapa guztietan; baina pubertaroan eta nerabezaroan, hain zuzen ere aldi horrek berezko dituen aldaketa biologikoak gertatzen direnean, hasten da norbanakoa sexu-beharrak adierazten eta behar horietaz ohartzen. Horregatik nerabezaroan eta gaztaroan sexu-praktikak izatea normalizat eta seguru asko ohikotzat hartu behar da. Gainera, adierazi beharra dago sexu-jokaerak, logikoa denez, aldatu edo bilakatu egiten direla 15 urtetik 29 urtera bitartean.

INJUVEk Espainiako gazteei buruz egindako txostenetan informazio kuantitatibo ugari eskaini digu gazte espainiarren sexu-praktikei buruz¹ (15etik 24 urtera bitarteko gazteei dagokiena). Alde batetik, neska-mutil gazteak oso goiz hasten dira sexu-harreman osoak izatean (17,71 batez beste), eta mutilak neskak baino aktiboagoak dira (tarte horrek gero eta txikiagoa izateko joera du). Bestalde, gehienek beren sexu-harremanak bikote egonkor batekin dituztela diote (%74 mutilen artean eta %92 nesken artean) eta ia guztiek harreman heterosexualak dituztela esaten dute.

Kualitatiboagoa den ikuspegi batetik honakoa diote Eusebio Megias eta Susana Méndez gizarte-ikertzaileek: “Gazteen arteko harremanen munduan funtzional-genitala denaren ikuspegi murriztailea sexuala denaren rolak portaera horiei ematen dien funtzionalitateak eta zentzuak gainditzen dute, neurri handi batean; eta hori erabat garrantzitsua da “gazte izateko” kultura eta modua ulertzeko. Gainera, kultura-espektro horren barruan toki berezia du arriskuaren bizipenak; izan ere, badirudi sexuaren dimentsioa ezin dela ulertu beste hori, arriskua, kontuan hartzen ez bada, zehaztu eta oinarritzko bilakatzen den zentzu existentzial bat ematen baitio horrek”.² Halaber, gazteek sexualitatearekin duten harremana aztertzeak berekin dakar erlazionatutako balioek, itxaropenek eta gizarte-erreferentziek osatutako unibertso sinboliko zabal batean sartzea, eta generoen arteko harremanek nabarmen markatuta dituzte horiek guztiak.

¹ OCHAITA ALDERETE, Esperanza eta ESPINOSA BAYAL, M^a Angeles: “Las prácticas sexuales de los adolescentes y jóvenes españoles”, en *Revista Estudios de Juventud* Aldizkaria, 63 [monografía: Juventud y Sexualidad]: INJUVE, 2003ko abendua.

² MEGÍAS VALENZUELA, Eusebio eta MÉNDEZ GAGO, Susana: “Introducción”, en *Revista Estudios de Juventud* Aldizkaria, 63 [monografía: Juventud y Sexualidad]: INJUVE, 2003ko abendua.

Datu hauek ikusirik, EAEko gazteek sexualitateaz duten ikuspegia nolabait ezagutzea da kapitulu honen helburua. Horretarako, honako gai hauek aztertuko ditugu:

- ▶ Gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia.
- ▶ Gazteek sexualitatearekin identifikatzen dituzten alderdiak.
- ▶ Sexualitateari buruzko komunikazioa familia-esparruan, lagun-taldean eta irakasleekin.

9.2. SEXUALITATEAREN GARRANTZIA

Euskadiko hamar gaztetik ia bederatzik (%85) sexualitatea beraiantzat oso edo nahiko garrantzitsua dela uste du, batez ere gazte helduenen geruzan (25etik 29 urtera bitartean). (9.1 taula)

2000. urteko datuak, %24ko oso garrantzitsua zela uste zuen eta %57,3ko nahiko garrantzitsua, eta gaur egungo ehunekoak oso antzekoak dira: oso garrantzitsua dela uste dutenen kopurua %4 igo da. Era berean, garrantzirik gabeko esparrutzat hartzen zutenek (2000. urtean %3,1) gutxiengo bat izaten jarraitzen dute gaur egun ere, zehazki %1.

9.1 taula: Gaur egun zer da sexualitatea zuretzat?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EZKER-ESKUIN ARDATZA				FEDEDUNA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkerra	Zentroa	Eskuina	Ed / Ee	Bai	Ez
Oso garrantzitsua	28	30	26	17	29	36	34	26	18	22	24	31
Nahiko garrantzitsua	57	56	58	54	60	54	58	56	58	55	57	56
Garrantzi gutxikoa	13	12	13	24	9	7	6	18	20	18	15	10
Garrantzirik gabea	1	1	1	2	1	0	0	0	2	2	1	1
Ed/Ee	2	2	2	2	2	2	1	0	3	3	3	1
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	719	108	45	627	677	824

Dena den, sexualitatea oraingoan ere gehiago baloratzen dute mutilek neskek baino, oso edo nahiko garrantzitsua dela pentsatzen dutenen kopurua handiagoa izateaz gain (mutilen %86 eta nesken %84), garrantzi-maila handiago ematen dioten mutilak gehiago baitira (mutilen artean %30entzat oso garrantzitsua eta emakumeen artean %26); 2000. urtean ere hala gertatzen zen. Gainera, azpimarratu behar da azken urte hauetan neskek eta mutilek sexualitateari ematen dioten garrantzia zertxobait igo dela eta igotze hori nesken artean handiagoa izan dela; beraz, generoen arteko distantzia murriztu egin da duela lau urtekoarekin alderatzen badugu.

Adinak ere zenbait desberdintasun markatzen ditu gai honi dagokionez. Lehenago aipatu dugun bezala, pertsona heldutasunera hurbiltzen den neurrian, sexualitatea gehiago balioesten da. Hortaz, 15etik 19 urtera bitartean oso garrantzitsua edo nahiko garrantzitsua dela pentsatzen dutenak %71 badira, 20 urtetik aurrera %90eraino igotzen da ehuneko hori. Eta nerabeen segmentuan gai honi ematen zaion garrantzia urte hauetan ia aldatu ez bada ere, 19 urte baino gehiago dituztenen artean (eta are gehiago 24 urtetik gora dituztenen artean) handitu egin da sexualitateari garrantzi handia ematen dioten gazteen kopurua.

Norberak ezker-eskuin ardatzean hartzen duen jarrera soziopolitikoari dagokionez, sexualitatea garrantzitsuagoa da ardatzaren ezkerreko muturrerantz hurbiltzen garen neurrian, hau da, beren burua ezkerrekotzat dutenen %34k oso garrantzitsua dela uste du eta, aldiz, eskuinekotzat dutenen %18rentzat bakarrik da oso garrantzitsua.


Erljio-sinesmenak ere eragina du gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzian. Fededuntzat hartu ditugun gazteen artean (VI. KAPITULUAN ezarri dugun kategoriaren arabera) sexualitatea oso garrantzitsua dela pentsatzen dutenen ehunekoa (%24) fedegabetzat hartu ditugunei (%31) dagokiena baino zazpi puntu txikiagoa da.

Ondorioz, esan dezakegu, 2000. urtean nabaritzen hasi ziren joerak mantentzeaz gain, gaur egun gazteek sexualitatea duela lau urte baino garrantzitsuagozat hartzen dutela.

9.3. SEXUALITATEA ZEREKIN IDENTIFIKATZEN DUTEN

Gazteek sexualitateari ematen dioten garrantzia alde batera utzirik, sexualitate hori ulertzeko duten modua era askotakoa da (9.1 grafikoa). Gazteen %28k sexualitatea bikotearekin lotzen dute berez, eta ehuneko horrek ez du ia aldaketarik izan 2000. urtetik. %17k maitasunarekin lotzen du eta beste hainbestek (%17) ardurarekin. Ia ehuneko berberak (%16) desioarekin lotzen du, eta puntu honetan 2000. urteko erantzunekin dagoen aldea bost puntu gehiagokoa da. Azkenik, sexu-harremanarekin (%12) eta dibertsioarekin (%11) lotzen dutenak daude. Azken bi hauek ere igo egin dira duela lau urtetik hona. Beraz, 2000. urtetik hona gora egin dute sexualitatearen ikuspegi ludikoenek.

9.1 grafikoa: Sexualitatea zerekin identifikatzen duten
(Datu konparatiboak: 2000 – 2004) *



* Berezko erantzunak.

Kasu honetan berriro ere antzeman daiteke, 2000. urtean egindako azterketan bezala, gizonen eta emakumeen sexualitatea modu desberdinean ulertzen dutela. 9.2 taulan ikustenenez, batzuek zein besteek sexualitatea nagusiki bikotearekin lotzen badute ere, emakumeentzat sexualitatea maitasunarekin eta ardurarekin lotuago dago sexu-harremanarekin edo dibertsioarekin baino eta, gainera, maitasunaz eta arduraz egiten duten aipamena gizonen artean erregistratutakoak baino gehiago dira. Bestalde, gizonen alderdi horiez egiten dituzten aipamena ehunekoak antzekoak dira. Honek erakusten du, dirudienez, emakumeen sexualitatea parametro sentimentalagoekin lotzen dutela, gaixotasun sexualen edo nahi ez diren haurdunaldien aurrean babesteko garrantzia ahaztu gabe.

Adinaren arabera nabaritu diren desberdintasunei dagokienez, aipatzekoa da gaztea heldutasunera hurbiltzen den neurrian sexualitatea maitasunarekin edo desioarekin neurri handiagoan lotzen duela eta sexu-harremanarekin berriz gutxiago (2000. urtean bezala). Ez dugu ahaztu behar, halere, adin-segmentu guztietan sexualitatea gehienbat bikotearekin identifikatzen dela berriro ere.

9.2 taula: Sexualitatea zerekin identifikatzen duten *

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EZKER / ESKUIN ARDATZA				ERLIJIOZKOTASUNA	
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkerra	Zentroa	Eskuin	Ed / Ee	Bai	Ez
Bikotea	28	30	27	29	30	26	29	31	15	29	28	29
Maitasuna	17	14	20	15	17	19	16	23	27	16	19	15
Ardura	17	14	20	18	16	17	18	20	12	15	18	16
Desioa	16	15	18	13	14	22	20	15	10	13	15	18
Sexu-harremana	12	13	10	14	13	8	10	17	14	12	12	12
Dibertsioa	11	13	10	9	13	11	15	10	15	7	10	12

* Datu hauek alderdi bakoitza berez zenbat aldiz aipatu den adierazten dute ehunekotan

Gazteen ideologiaz hitz egiten badugu, sexualitatearen kontzeptua nabarmen aldatzen da ezker-eskuin ardatzean duten jarreraren arabera. Horiek horrela, beren burua ezkerrekotzat edo zentrokkotzat duten gazteek batez ere bikotearekin lotzen dute, eskuinerantz zenbat eta gehiago mugitu, orduan eta gehiago aipatzen da maitasuna; izan ere, eskuinekoek batez ere maitasunarekin lotzen dute (joera hori duela lau urte ere ikus zitekeen). Gainera, ardura gehiago aipatzen dute ezkerrekoek eta zentrokoek eskuinekoek baino, eta desioa ere gehiago aipatzen da ezkererantz jotzen dugun neurrian (hain zuzen, ezkerrekoek bikotearen ondoren gehien aipatzen duten alderdia da).

Gazteek adierazitako erlijiozkotasunak ez du eraginik sexualitatearekin gehien loturiko alderditzat bikotea aukeratzeko orduan. Aipatzekoa da, ordea, dena den fededuntzat hartu ditugunek maitasuna gehiagotan aukeratu dutela eta fededun ez direnek, berriz, desioa (duela lau urte bezala).

9.4. SEXUALITATEARI BURUZKO KOMUNIKAZIOA FAMILIAN, LAGUN ARTEAN ETA IRAKASLEEKIN

Dirudienez, sexualitatea ez da EAeko etxe askotan familian hitz egiten den gaia. Oro har, Euskadiko gazteen %40 baino gehiagok ez du hitz egin edo ez du hitz egiten gurasoekin sexualitateari loturiko inolako gaietaz, hala nola antisorgailuak, amodioa egiteko

modua, sexu-transmisioko gaixotasunak, seme-alabak sortzeko modua eta maitasun-sentimenduak. Ehuneko hori %52raino igotzen da maitasun-sentimenduei dagokienean eta %82raino amodioa egiteko moduari dagokienean (9.3 taula). Datu hauek 2000. urtean erregistratutakoekin konparatzen baditugu, maitasun-sentimenduei buruz familiarekin izandako komunikazioaren jaisiera nabarmena (hamabi puntu) da.

Hortaz, argi geratzen da EAEko gazteek familiarekin gehien komentatzen dituzten sexualitateari buruzko gaiak sexu-transmisioko gaixotasunekin (%57) eta antisorgailuekin (%56) erlazioatutakoak direla. Gainera, neskek dira familiarekin sexualitatearen alderdi guztiei buruz gehien hitz egiten dutenak; eta beraz, maitasun-sentimenduen kasuan desberdintasuna ehuneko altuetara iristen da (gurasoekin mutilen %38k hitz egiten du eta nesken kasuan, berriz, %57k).

9.3 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure gurasoekin honako gai hauetaz?

		GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EZKER-ESKUIN ARDATZA				FEDEDUNA	
			Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkerra	Zentroa	Eskuin	Ed / Ee	Bai	Ez
ANTISORGAILUAK	Bai	56	52	60	59	59	51	60	59	47	52	55	58
	Ez	43	46	40	40	40	49	39	40	53	47	45	42
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	1	1	0	1	0	1
AMODIOA EGITEKO MODUA	Bai	17	15	20	18	19	14	17	15	12	19	19	16
	Ez	82	84	80	81	80	85	83	84	88	80	81	83
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	0	1	0	1	0	1
SEXU-TRANSMISIOKO GAIXOTASUNAK	Bai	57	53	61	60	61	51	62	59	48	52	55	59
	Ez	42	45	38	39	38	48	37	41	51	47	44	40
	Ed / Ee	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1
UMEAK SORTZEKO MODUA	Bai	52	46	58	52	56	47	57	49	49	47	53	51
	Ez	47	53	42	47	43	53	43	49	51	52	47	48
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	1	1	0	1	1	1
MAITASUN-SENTIMENDUAK	Bai	47	38	57	42	51	48	49	49	47	46	51	44
	Ez	52	61	43	57	48	52	51	50	53	53	48	54
	Ed / Ee	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1
Guztira ehunekotan		100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan		1.500	750	750	412	588	500	719	108	45	628	677	824

Adinaren arabera, etxean sexuarekin loturiko gaiak buruz gutxien hitz egiten duen edo inoiz hitz egin duen taldea adinez nagusi direnena da (25etik 29 urtera bitartean), maitasun-sentimenduen kasuan izan ezik, honetan gazteenak baitira (15etik 19 urtera bitarteko adina dutenak) familiarekin sentimenduz hitz egiteko lotsa gehien erakusten dutenak.

Ezkerreko edo eskuineko izateak hainbat desberdintasun markatzen ditu. Eskuinekoak direla diotenek zentrokoek edo ezkerrekoek baino joera gutxiago dute familiarekin sexualitateari dagozkion alderdi horiez guztiez hitz egiteko.

Fededun izatea edo ez izatearen arabera ere badira desberdintasun batzuk: fededunztat hartu ditugunek pixka bat gehiago hitz egiten dute familiarekin maitasun-sentimenduei buruz.

Hemen aipatu ditugun taldeen arteko desberdintasunak 2000. urtean jada adierazita-ko berberak dira, salbuespen bakarrarekin: gai hauetaz familiarekin hitz egiteko orduan eskuineko gazteak lotsatiagoak izatea, datu hau ez baitzen ageri duela lau urte.

9.4 taulak eskaintzen dituen datuek agerian jartzen dute EAEko gazteek gai sexualei buruz lagunekin hitz egiten dutela. Gazteen %80 baino gehiagok dio gai horietako baten bati buruz lagunekin hitz egin duela. Orokorrean, elkarrizketa gehien sortzen dituzten gaiak dira antisorgailuak (%94), maitasun-sentimenduak (%92) eta sexu-transmisioko gaitasunak (%90), baina asko hitz egiten dute baita amodioa egiteko moduz (%82) eta haur bat sortzeko moduz (%80) ere.

Oraingoan ere emakumeak dira sexualitateaz gehien hitz egiten dutenak, lagunekin ere; eta batez ere maitasun-sentimenduez hitz egiten dute (gai honetan dago mutilekiko desberdintasun handiena).

Adinari dagokionez, 15etik 19 urtera bitarteko adina duten nerabeek joera gutxiago dute lagunekin sexu-transmisioko gaitasunez hitz egiteko eta, alderantziz, adin-talde hori da, 20tik 24 urtera bitarteko adina dutenekin batera, amodioa egiteko moduz lagunekin gehien hitz egiten dutenak.

9.4 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure ikasleekin honako gai hauetaz?

	GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EZKER-ESKUIN ARDATZA				FEDEDUNA		
		Gizonez-koak	Emaku-mezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkerra	Zentroa	Eskuin	Ed / Ee	Bai	Ez	
ANTISORGAILUAK	Bai	94	91	96	92	95	93	96	96	90	94	93	94
	Ez	6	9	4	7	5	7	4	4	10	6	7	6
	Ed / Ee	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
AMODIOA EGITEKO MODUA	Bai	82	81	83	83	84	78	83	88	83	80	82	82
	Ez	18	18	17	16	15	21	17	12	17	20	18	17
	Ed / Ee	0	1	0	1	0	0	1	0	0	0	0	0
SEXU-TRANSMISIOKO GAITASUNAK	Bai	90	86	94	87	92	91	92	90	78	52	89	91
	Ez	10	13	6	13	8	9	7	10	22	47	11	9
	Ed / Ee	0	1	0	0	0	0	0	0	0	1	0	0
UMEAK SORTZEKO MODUA	Bai	80	76	84	77	84	79	83	83	71	78	79	82
	Ez	19	23	15	22	16	21	17	17	27	22	21	18
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	0	1	0	2	0	1	0
MAITASUN-SENTIMENDUAK	Bai	92	88	97	92	92	91	92	93	91	92	93	91
	Ez	8	12	3	7	7	8	7	7	9	8	7	8
	Ed / Ee	0	1	0	0	0	0	0	0	0	2	0	0
Guztira ehunekotan	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan	1.500	750	750	412	588	500	719	108	45	628	677	824	

Norberak politikaren aurrean hartzen duen jarrerari dagokionez, ezkerreko eta zentroko gazteek eskuinekoek baino gehiago hitz egiten dute lagun artean antisorgailuei buruz, sexu-transmisioko gaitasunei buruz eta seme-alabak sortzeko moduari buruz.

Bestalde, gaztea fededun izateak edo ez izateak ez du desberdintasun aipagarriarik markatzen.

Azkenik, EAeko gazteek sexualitatearekin erlazionatutako gai horiei buruz irakasleekin hitz egiten duten ala ez aztertu da. 9.5 taulak erakusten duenez, Euskadiko gazteek ez dituzte nagusiki irakasleak aukeratzen sexuaz hitz egiteko. Izan ere, elkarrizketa-gai hauek gurasoekin bezain gutxi aukeratzen dituzte hezitzaileekin ere, edo kasu honetan are gutxiago maitasun-sentimenduei dagokienez, gaixotasun benereoz bigarren hauekin gehiago hitz egiten badute ere. Halaz ere, zenbait desberdintasun antzematen dira lau segmentazio-aldagai aztertzean: sexua, adina, jarrera politikoa eta erlijiozkotasuna.

9.5 taula: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure ikasleekin honako gai hauetaz?

		GUZTIRA	SEXUA		ADIN TALDEAK			EZKER-ESKUIN ARDATZA				FEDEDUNA	
			Gizonezkoak	Emakumezkoak	15-19	20-24	25-29	Ezkerra	Zentroa	Eskuin	Ed / Ee	Bai	Ez
ANTISORGAILUAK	Bai	56	54	58	73	54	45	59	63	61	52	56	57
	Ez	43	45	41	26	45	54	41	36	39	47	44	42
	Ed / Ee	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1
AMODIOA EGITEKO MODUA	Bai	20	19	20	25	17	17	19	20	31	19	19	20
	Ez	80	80	80	74	82	82	80	79	69	80	80	79
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	1	1	0	1	1	1
SEXU-TRANSMISIOKO GAIXOTASUNAK	Bai	63	59	67	79	61	52	65	71	69	58	63	63
	Ez	37	40	33	21	39	47	34	29	31	41	37	36
	Ed / Ee	1	1	0	1	1	1	1	1	0	1	1	1
UMEAK SORTZEKO MODUA	Bai	51	45	56	60	51	43	53	57	60	46	48	53
	Ez	49	54	44	39	49	56	46	42	40	53	51	47
	Ed / Ee	1	1	0	1	0	1	1	1	0	1	1	1
MAITASUN-SENTIMENDUAK	Bai	16	15	17	18	15	16	16	19	16	16	18	15
	Ez	83	84	82	81	85	84	84	80	84	83	82	84
	Ed / Ee	1	1	0	1	0	1	1	1	0	1	0	1
Guztira ehunekotan		100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100	100
Guztira balio absolututan		1.500	750	750	412	588	500	719	108	45	628	677	824

Oraingoan ere emakumeak dira irakasleekin sexualitatearekin erlazionatutako gaiei buruz gehien hitz egiten dutenak (gizonekiko dituzten desberdintasun nabarmenak sexu-transmisioko gaixotasunei eta haurren sorkuntzari dagozkienak dira); gizonak berriz lotsatiago agertzen dira.


Adinak ere funtsezko desberdintasun bat markatzen du; izan ere, adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta urriagoak dira hezitzaileekin izandako elkarrizketak (maitasun-sentimenduei buruzkoak izan ezik, hauek gutxi baitira adin-geruza guztietan). Joera honek badu azalpena: zenbat eta adin handiagoa orduan eta ikasle-kopuru txikiagoa eta, ondorioz, irakaslearekiko harreman urriagoak.

Ezker-eskuin ardatzeko jarrera politikoaren arabera, beren burua ezkerrekotzat dutenen artean uzurtasun handixeagoa antzematen da gai hauei buruz beren hezitzaileekin hitz egiteko orduan.

Azkenik, ez da desberdintasun handirik ikusten gazteen erlijiozkotasunaren arabera. Aipatzekoa iruditzen zaigun datu bakarra da gazte fededunen uzurtasuna handixeagoa dela haur bat sortzeko moduari buruz irakasleekin hitz egiteko orduan.

Laburbilduz, berriro ere azpimarratu behar dugu EAeko gazteek, sexualitateari loturiko gaietara buruz hitz egiteko orduan, nahiago dutela lagun artean egin (9.2 grafikoa).

9.2 grafikoa: Hitz egiten al duzu edo hitz egin al duzu inoiz zure gurasoekin, lagunekin edo irakasleekin honako gai hauekiz?



ONDORIOAK

- EAEko hamar gaztetik ia bederatzik sexualitatea beraientzat nahiko garrantzitsua edo oso garrantzitsua dela uste du, bereziki helduenen adin-geruzan (25etik 29 urtera bitarteko adina dutenak). Sexua garrantzirik gabeko esparru bat dela pentsatzen jarraitzen dutenak gutxiengo bat izaten jarraitzen dute.
- Sexualitatea gehien baloratzen dutenak dira, funtsean, mutilak (neskak baino gehixeago), 25etik 29 urtera bitarteko adin-geruza, beren burua politikoki ezkerretik hurbil kokatzen dutenak eta fedegabe direla esaten dutenak.
- EAEko gazteek sexualitatea batez ere bikotearekin lotzen dute (%28), eta lotura horrek lehentasuna du gazteen segmentu guztietan, eskuinekoak direla dioten artean salbu, hauek maitasunarekin gehiago lotzen baitute.
- Gazteek, gainera, neurri txikiagoan bada ere, maitasunarekin (%17), ardurarekin (%17), desioarekin (%16), eta gutxixeago sexu-harremanekin (%12) eta dibertsioarekin (%11) lotzen dute sexua. Sexualitatearen alderdi ludikoenak, hau da, desioa, sexu-harremana edo dibertsioa duela lau urte baino gehiago aipatu dira.
- Emakumeek gizonen baino gehiago lotzen dute sexua parametro sentimentalekin eta, betiere, sexu-transmisioko gaixotasunen edo nahi ez diren haurdunaldien arriskua kontuan hartuta. Gaztea heldutasunera hurbiltzen doan neurrian, sexualitatea gehiago lotzen da maitasunarekin eta desioarekin, eta ez horrenbeste sexu-harremanarekin berarekin. Jarrera politikoak ere desberdintasunak markatzen ditu sexualitatea ulertzeko orduan: ezkerrekoak diren pertsonen gehiago lotzen dute desioarekin eta eskuinekoak, aldiz, maitasuna dute gehiago gogoan.
- EAEko gazteek nagusiki lagunak aukeratzen dituzte sexualitatearekin loturiko gaien buruz hitz egiteko. Oraindik ere, Euskadiko hamar familietatik lautan ez da sexualitateaz hitz egiten; dirudienek gaia tabu da. Era honetako elkarrizketetan irakasleek gurasoek baino gutxiago hartzen dute parte, batez ere maitasun-sentimenduez hitz egitean, eta zertxobait gehiago sexu-transmisioko gaixotasunaz hitz egitean.
- Orokorrean, beste pertsona batzuekin (gurasoak, irakasleak edo lagunak) gehien hitz egiten dutenak emakumeak dira, desberdintasun handiena batez ere maitasun-sentimenduez hitz egitean ematen da, eta 20tik 24 urtera bitarteko adina dutenak dira gehien hitz egiten dutenak (halere, oraindik 20 urte bete gabe dituztenek eta, beraz, gehienbat ikasten ari direnak, gai hauek irakasleekin gehien hitz egiten dituztenak dira).



10
Ondorioak

Egungo euskal gazteriaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzeko asmoz, hainbat arlo aztertu dira azterlan honetan, hala nola: lan-mundua, familia, aisia eta astialdia, jarrera politikoak, erlijioa, sexualitatea, etab. Honekin batera, konparazioak egin dira estatu zein Europako datuekin, EAEko gazteriak, bestelako herrialdeetakoekin konparatuz, dituen joerak ezagutzeko helburuarekin.

Azken kapitulu honen helburua, lehenago bildutako ondorioen laburpen edo sintesia egitea izan da, 2004an euskal gazteriaren nortasuna bereizten duten alderdi nagusiak argitzeko.

- ▶ Azken lau urteotan Euskadiko gazteen artean langabeziak behera egin badu ere, gazteek betetzen dituzten lanpostuak duela lau urte baino aldakorragoak dira, eta gehienbat oraindik ere emakumeenak. Dena den, gizonezkoen lan-baldintzek okerrera egin dutela ikusten da. Ondorioz, erraz uler daiteke EAEko gazteen erdiak, ahal izanez gero, lanpostua aldatu nahi izatea. Egoera kezka-garri honen aurrean, ez dute autoenplegua lan-merkaturatzeko edo beren lan-egoera hobetzeko kontuan hartzen.
- ▶ Euskadiko gazte gehienek emantzipatzeko nahia azaltzen badute ere, oso gustura daude duten familia-egoerarekin. Hala ere, hori betetzeko hainbat eragozpen garrantzitsu (batik bat, ekonomikoak) daude: etxebizitza gero eta garestiagoa izatea eta norik bere kabuz dirua eskuratu ezina. Honela, EAEko gazte gehienak familiarekin bizi dira eta hogeita hamar urte bete ostean ezkontzen dira.
- ▶ Emakumeak etxeko lanetan protagonista izaten jarraitzen badu ere (EAEko gazteen etxe ia erdietan (%42) emakumeak egiten ditu etxeko lan guztiak edo gehienak), funtsezkoa da adieraztea, lan honetan gero eta gizon gehiagok esku hartzen duela.
- ▶ Egunean hainbat aisia-ordu badutela (2000.ean baino gehiago) esaten dute gazteek, eta denbora hori ondokoei ematen diote: familiarekin egoteari, telebista ikusteari, musika entzuteari, telefonoz hitz egin zen telefono-mezuak eta mezu elektronikoak bidaltzeari, lagunekin egoteari, edo kalean egon edo, besterik gabe, paseatzeari. Asteburuetan, ordea, taberna, disko-teka edo mendira joaten dira (maiztasuna alde batera utzita). Hala ere, guxienak jarduten dira boluntario edo jarduera politiko edo sindikal bezalako

elkartze-jardueretan. Gainera, antzeman da, 15 eta 19 urte bitarteko nerabeek astialdirako nahiago dituzten jarduerak teknologia berriekin zerikusi dutela: telefono mugikorrak, ordenagailuak, bideo-kontsolak...

- ▶ Elkarre zaletasuna gutxitu egin da azken lau urteotan. Gizonezkoek, nerabeek eta gizarte-maila altukoek dute gustukoena. Elkarre-motari dagokionez, kirol-elkarre dituzte jarraitzaile gehien, eta hauen atzetik, nahiko aldearekin, kultura- edo arte-elkarre eta txoko edo jolas-elkarre.
- ▶ Internet erabiltzen duten gazteen kopurua izugarri areagotu da azken urteetan: hamar euskal gaztetatik zortzik erabili du. Horrez gain, EAEko gazteen hiru laurdenak baino gehiagok dauka etxean ordenagailua eta erdiak baino gehiagok etxetik bertatik sartzen dira Interneten. Oro har, 15 eta 19 urte bitarteko gazteek erabiltzen dute gehien ordenagailua.
- ▶ EAEko gazte gehienak gustura daude egoera pertsonalarekin, baina EAEko gazteen egoera, eta EAEkoa oro har, erdipurdikoa dela esaten dute. Lana eta etxebizitza (azken hau 2000tik nabarmen areagotu delarik) dira Euskadiko gazteak gehien kezkatzen dituzten arazoak.
- ▶ Euskal erakundeek gazteria-arloan egindakoaren balorazioari dagokionez, Eusko Jaurlaritza azaltzen da garaile –ia nahiko bat–, eta honen atzetik aldundiak eta udalak, baina, hiruetatik batek ere ez du bostekoa lortzen. Galdetutako gazteen erdiak nahiko edo oso ontzat ematen du euskal hezkuntza-sistema, txartzat edo oso txartzat gutxienek jotzen dutelarik.
- ▶ Euskadiko gazteen erdiak baino gehiagok ez dute gai publikoetan parte hartzerik nahi eta, gainera, interes falta horrek gora egin du azken lau urteotan (bost puntu gehiago 2000. urtean baino). Hala ere, euskal gazteen ia hiru laurdena Euskal Herriko etorkizun politikoa erabaki zezakeen kontsulta egitearen alde azaltzen da.
- ▶ Ideologiari dagokionez, EAEko hamar gaztetatik lauk ez du ezker edo eskuinaren artean aukeratu nahi, nahiz eta aukeratzten dutenen artean gehienak ezkertiarak izan (%47). Joera honek, gainera, gora egin du 2000. urtetik.
- ▶ Euskaldun/espainiar ardatzari dagokionez, EAEko gazteen erdiak baino gehiagok adierazi du euskalduntzat duela bere burua, eta %6ak baino ez du adierazi espainiar sentitzen dela batez ere. Bestalde, Europarekiko nortasun-sentimendua nahiko baxua izaten jarraitzen du EAEko gazteen artean, gehienek europar-sentimendurik ez izatea edo txikia izatea adierazten baitu.
- ▶ Halaber, gazteen %40 baino gehiago ez da euskal panorama politikoan dauden alderdi batenganako ere hurbiltasunik sentitzen, eta hurbiltzekotan ere, porzentaje horrek ez du inola %10a gainditzen.
- ▶ Oso fededun gutxi dago euskal gazteen artean (%8ak bakarrik onartzen du katoliko praktikante izatea, %37ak praktikatzten ez duen katolikoa eta %1ak beste erlijio batekoa), duela lau urte baino gutxiago eta Estatuko gazteen artean baino dezentz gutxiago. Bere burua fedegabetzat duen gazte-kopuruak gora egin duela ikusteaz gain (%52ak Jainkoarengan sinisten du baina ez erlijioetan, edo interesik gabekoak edo agnostikoak eta fedegabeak dira), gutxi parte hartzen dute erlijio-ospakizunetan –Eliz edo gurtzeko zentroetara joatea– praktikan teak diren artean.

- ▶ Gizarte-jarduerei dagokienez, EAeko gazteak oso tolerantzak dira homosexualitate eta dibortzioarekiko. Abortua eta eutanasia gehienek onartzen dituzte, baina justifikatuko dituzten egoera jakin batzuen baldintzapean. EAeko gazteek ez dituzte honakoak onartzen: duten egoerari probetxua atera nahi dioten politikoak, alkoholaren eraginpean gidatzea, kalea zikintzea. Ondorengo hauek ere ez dituzte onartzen, nahiz eta aurrekoak baino gazte gutxiagok errefusatu: legez kanpoko drogak kontsumitzea edo Ogasunari iruzur egitea. Indarkeria fisikoa zorrotz errefusatzen dute euskal gazteek: bikote barruko indarkeria, haur edo animalien aurkakoa zein helburu politikoekin erabilitakoa.
- ▶ Gazte gehienek iritziz, oso hedatuta dago legezko drogen kontsumoa Euskadiko gazteen artean. Orobat, legez kanpoko drogak hartzea, orekarik gabe elikatzea eta ariketa fisiko gutxi egitea ere oso edo dezente hedatuta daudela. Gutxiago izan arren, babes-neurrik gabe sexu-harremanak izatea (2000.ean baino dezente gehiago) eta arazo psikologikoak ere Euskadiko gazteen artean oso edo nahikoa zabaldua daudela uste dute gehienek.
- ▶ Legezko drogen (alkohola eta tabakoa) kontsumoak oso errotuta jarraitzen du Euskadiko gazteen artean: gazteen erdiak baino gehiagok azken urtean gehiegi edan izana onartzen du eta laurdenak legez kanpoko drogak hartu izana eta trafiko-arauak errespetatu gabe gidatu izana.
- ▶ EAeko gazteek talde hauek arbuizatzen dituzte gehien: neonaziak edo eskuin-muturrekoak, eta ondoren ijitoak eta drogen menpekoak. Dezentea izan arren, arbuioa txikiagoa da militar, prostituta eta poliziekiko, eta txikiena, etorkin eta homosexualiekiko. Aipatu behar da lau urteotan neonazi eta droga-zaleekiko tolerantziak gora egin duela.
- ▶ Euskadiko gazten hamarretik batek soilik adierazi du bereak ez bezalako ideia edo sinesmen dituzten pertsonekin oso desgogara edo nahiko desgogara sentitzen dela. Gainera, EAeko ehun gaztetatik lauk adierazten du bakarrak batzuekin hitz egin dezakeela askatasun osoz politikaz, eta gutxiengoak baino ez du adierazten inorekin edo ia inorekin ez duela askatasun osoz hitz egiten.
- ▶ Atzerriko etorkinez ari garenean, EAeko gazteentzat bereziki afrikarrez edo hegoamerikarrez ari gara. Euskadin bizi diren kanpoko pertsona kopuruari dagokionez, EAeko gazte gehienek iritziz dezente dira baina ez gehiegi; hala ere, azken urteotan bikoiztu egin da gehiegi direla uste dutenen kopurua. Atzerriko etorkinak hartzeari dagokionez, EAeko gazte gehienak zenbait kontrol ezartzearen alde daude, eta pentsatzen dute lan-baimena dutenei soilik utzi behar zaiela sartzeko. Gazteen ia herenak uste du murrizketarik gabe utzi behar zaiela sartzeko. Oro har, Euskadin duela lau urte baino tolerantzia txikiagoa sumatzen da inmigrazioarekiko.
- ▶ EAeko gazte gehienak seguru sentitzen dira hiri edo herrian. Gehienak gauzez kaletik ibiltzeak beldurtzen ez baditu ere, neska gehiago beldurtzen da.
- ▶ Euskadiko gazte gehienak leku batetik bestera oinez joaten dira eta gutxiago batzuk autoz, eta are gutxiago garraio publikoan (autobusa, metroa eta tren). Gutxiak erabili ohi du motorra edo bizikleta.
- ▶ 2000. urtetik, EAeko gazteen euskararen ezagutza-maila areagotu egin da esparru guztietan: gazteen erdiak baino gehiagok nahiko ongi edo ongi hitz egiten du euskaraz. Irakurri eta idazteko gai direnen ehuneko oso antzekoa da

eta ahozko ulermenari dagokio ehunekorik handiena. Dena den, senitartean, lagunekin edo bikotean gaztelania erabiltzeko joera da nagusi gazteen artean.

- ▶ EAEko gazte gehienak daude euskararen sustapen publikoaren alde: %51k uste du inbertsio gehiago egin beharko liratekeela arlo horretan, eta %4a baino ez dago inbertsio horiek murriztearen alde.
- ▶ Euskadiko gazteek euskararekiko duten jarrera ezagutzeko, hiru alderdi nagusi aztertu behar dira: lurraldea, adina eta, batik bat, euskaldun/espainiar ardatzean jarrera hartzea. Gipuzkoako gazteak, gazteenak eta euren burua euskalduntzat dutenak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Gainera, azken hauek eta gipuzkoarrak dira gehien erabili (etxean, lagunekin eta irakurtzeko) eta herri-administrazioek sustatu egin behar dutela pentsatzen dutenak.
- ▶ Sexualitatea nahiko edo oso garrantzitsua da EAEko gazteentzat. Mutilek zertxobait gehiago balioesten dute neskek baino; halaber, helduenek (25-29 urte bitartekoak), euren burua ezkertiarizat definitzen dutenek eta fedegabeek ere.
- ▶ Gazte guztiek ez dute berdin interpretatzen sexualitatea. Heren bati baino zertxobait gutxiagori sexualitateak bikotea ekartzen dio burura, ia antzeko ehunekoari maitasuna, neurriak hartzeko beharra eta desioa eta gutxiago batzuri koittoa eta dibertsioa. Neskek maitasunarekin eta neurriak hartzeko behararekin (sexu-transmisiozko gaixotasunak, nahi gabeko haurdunaldiak...) lotzen dute gehienbat sexua eta mutilek, berriz, neskek baino gehiago aipatu dute dibertsioa. Zenbat eta helduagoak, orduan eta lotura handiagoa maitasunarekiko eta desioarekiko eta orduan eta txikiagoa sexu-egintzarekiko (koiittoa, orgasmoa, amodio egitea). Gainera, ideologia politikoak eta fedea eragin nabarmena dute sexualitateari buruzko ikuspegian: ezkerreko gazteentzat sexualitatea desioarekin du gehienbat zerikusia eta fededun diren eskuineko gazteentzat, aldiz, maitasunarekin.
- ▶ Euskadin 15 eta 29 urte bitarteko gazteak batez ere lagunekin hitz egiten dute sexualitateaz. Oraindik ere EAEko hamar etxetatik lautan ez da sexualitateaz mintzatzen, horietan sexualitatea tabua dela dirudi. Hala ere, irakasleekin gutxiago hitz egiten dute sexuaz gurasoekin baino.
- ▶ Oro har, emakumeak eta 20 eta 24 urte bitartekoak dira sexuaz gehien hitz egiten dutenak, bai guraso, irakasle edo lagunekin.



11
Metodologia

11.1. LAGINA

Erabili diren lagina eta galde-sorta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko Gazteria Zuzendaritzak eta Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak diseinatu dituzte.

Landa-lanerako erabili den laginketa geruzatu egin da: lurralde bakoitzean proportzioskoa ez den esleipenarekin (402 inkesta Araban, 600 Bizkaian eta 498 Gipuzkoan) eta hauteskundeetako atalen eredu soziologikoetan proportziosko esleipenarekin. Ondoren datuak hiru Lurraldeetako benetako biztanle-kopuruaren arabera haztatu dira. Elkarrizketatuen azken aukeraketa sexu- eta adin-kuoten arabera egin da eta honako hau izan da emaitza:

► **Sexua:**

- Gizonak: 750.
- Emakumeak: 750.

► **Adina:**

- 15 – 19 urte: 413.
- 20 – 24 urte: 588.
- 25 – 30 urte: 500.

11.2. LANDA LANA

11.2.1. Landa-lana

Landa-lana Ikertalde taldeak burutu du 2004ko ekainean.

11.2.2. Landa-lanaren kontrola

Landa-lana behar bezala egingo zela bermatzeko, horren arduradunak, Ikertaldek, eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoko Kabineteak berak honako kontrolak ezarri dituzte:

- ▶ *Galde-sortaren gainbegira:* galde-sortako galderak aztertu dira akatsik badagoen ikusteko; erantzun gabe uzteko aukera edo “ez daki / ez du erantzun” aukera gehiegi dagoen ikusteko; baztertzeko galderak egin diren edo erantzunetan kontraesan argiak dauden ikusteko.
- ▶ *Kontrol fisikoa:* Era honetako kontrola bi motatakoa izan da:

 - Telefono bidezkoa: elkarrizketa adierazitako moduan, lekuan eta datan egin dela egiaztatzeko. Zenbait galdera egiten dira hausaz, bereziki 1.motako arauetan kontraesanak eragin dituztenean. Gainera, galdera batzuk benetan egin direla egiaztatzen da. Kasu honetan egindako elkarrizketen %30 kontrolatu da telefonoz.
 - Bikoitzekoa: aurrekoa bezalakoa da, baina beste inkestazaile bat bidaltzen da inkestatuaren etxera. Lehenengo inkestazaileak telefono-zenbakirik adierazi ez badu edo ezarritako ibilbidea ez duela bete susmatzen bada egiten da bereziki.

Galde-sortaren gainbegiraren eta kontrol fisikoaren arabera, enpresak baliogabetu egiten ditu behar hainbateko kalitaterik bermatzen ez duten inkestak, eta horien ordez beste batzuk hartzen ditu (atal beraren barruan). Salbuespen gisa, ibilbide bateko inkesten %20 baino gehiago baliogabetzen badira, berriro ere ibilbide osoa egin behar da.
- ▶ *Kontrol informatikoa:* Inkestetako datuen arazketa egiten da. horretarako, ibilbide eta kuota bakoitzeko inkesta-kopuruaren eta inkestak egin diren lekua-
ren (lurraldea, herria, barrutia, sekzioa) kontrol logikoa egiten da, eta aldagai barruko ezaugarriak eta aldagai arteko iraunkortasun-araua betetzen den ala ez ere kontrolatzen da. Halaber, lurralde bakoitzeko inkesten eta lurraldeko datu orokorren artean sei aldagai demografikotan (sexua, adina, ikasketamaila, lan-egoera, jatorria eta euskalduntze-maila) alde handirik baden ere aztertzen da (EUSTATen urtekarietako erreferentzien arabera).

11.3. EMAITZEN AZTERKETA

Emaitzak aztertzeaz eta txostena idazteaz Prospekzio Soziologikoko Kabinetea eta Gestiker enpresa arduratu dira. Hauek gaiaren araberrako atal desberdinak ezarri dituzte azterketako datuetan oinarrituta.

Atal bakoitzean hainbat adierazle soziologiko aztertu dira. Lehendabizi, azterketa orokorra egin da, 15 eta 29 urte bitarteko gazte guztien emaitza orokorretan oinarrituta; eta ondoren, taldeka aztertu dira, hainbat segmentazio-faktoreren arabera edo aldagaien arabera portaera desberdinak dituzten taldeak sortzen baitira.

Gainera, adierazle horietako bati buruzko daturik baldin badago, konparatu egiten dira orain nahiz iraganean nazioartean egin diren beste azterketa batzuekin.

11.3.1. Adierazle soziologikoak

Azterketa bederatzi atal handitan banatuta dago, eta atal bakoitzak gai bat aztertzen du. Atal bakoitza honako honako adierazle soziologiko bati dagokio:

- ▶ *Lan-mundua:*
 - Lan-egoera.
 - Lanaren egonkortasuna.
 - Lanaldi-mota.
 - Baldintza ekonomikoak.
 - Autoenplegua.
 - Mugikortasuna lanean.
- ▶ *Familia:*
 - Familiaren egoera.
 - Independentzia ekonomikoa.
 - Etxetik joateko adin egokiena.
 - Etxetik joateko zailtasunak.
 - Familian zenbateraino dagoen pozik.
 - Familiaren eginbeharrak.
 - Seme-alaben kopurua.
 - Etxeko lanen banaketa.
- ▶ *Aisialdia eta astialdia:*
 - Aisialdirako zenbat denbora duen.
 - Aisialdiko jarduerak.
 - Elkartegintza.
 - Interneten inguruko esperientzia eta erabilera.
- ▶ *Egoeraren balioespena:*
 - Norberaren egoera nola ikusten duten.
 - Euskadiko gazteen egoera nola ikusten duten.
 - Euskal Herriko egoera nola ikusten duten.
 - Norberaren kezkak.
 - Hezkuntza-sistemaren balioespena.
- ▶ *Jarrera politikoak:*
 - Udalak, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak gazteria-arloan egindako lana.
 - Politikan parte hartzeko nahia.
 - Norbera ezker/eskuin ardatzean kokatzea.
 - Norbera euskaldun/espainiar ardatzean kokatzea.
 - Europarra sentitzea.
- ▶ *Erljioaren garrantzia:*
 - Erljiozkotasuna.
 - Erljio-praktika.
- ▶ *Gizarte-balioak:*
 - Oinarrizko gizarte-balioak.
 - Gizarte-portaerak.
 - Osasunerako aztura kaltegarriak.
 - Auzokideekiko tolerantzia.
 - Tolerantzia ideologikoa.
 - Etorkinekiko jarrerak.
 - Gaeuz kalera ateratzeko beldurra.

- ▶ *Euskara:*
 - Euskararen ezagutza.
 - Euskararen benetako erabilera.
 - Euskararen erabilera ideala.
 - Herri-administrazioek euskara sustatzeari buruzko iritzia.
- ▶ *Gazteak eta sexualitatea:*
 - Sexualitatearen garrantzia.
 - Sexualitatea zerekin identifikatzen duten.
 - Sexualitateari buruzko komunikazioa familian, eskolan, etab.

11.3.2. Segmentazio-faktoreak

Segmentazio-faktore arruntenak honako hauek dira:

- ▶ Sexua: gizona, emakumea.
- ▶ Adin-taldea: 15 eta 19 urte bitartekoak, 20 eta 24 urte bitartekoak eta 25 eta 29 urte bitartekoak.
- ▶ Udalerriaren tamaina: txikia, ertaina, hiriburua.
- ▶ Lurraldea: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa.
- ▶ Gizarte-maila: altua, erdikoa, baxua.
- ▶ Jaioterria: EAEn edo EAetik kanpo.
- ▶ Ezker/eskuin ardatza: ezkerra (ezkerra, zentro ezkerra edo ezker-ezkerra), zentroa, eskuina (zentro eskuina, eskuina edo eskuin-eskuina).
- ▶ Euskal herritarra/espainiar ardatza: euskal herritarra (euskal herritarra bakarrik edo euskal herritarra espainiarra baino gehiago), biak berdin (euskal herritarra bezain espainiarra), espainiarra (espainiarra euskal herritarra baino gehiago).
- ▶ Euskararen ezagutza: zerbait (hitz batzuk edo zerbait), bai (nahiko ondo edo ongi daki).
- ▶ Ikasketa-maila: lehen mailakoak, LH/REM/BBB/UBI (lanbideak, batxilergoa, REM, BBB edo UBI), Diplomatura (erdi-mailakoak, goi-mailakoak), Goi-mailakoak (lizentziatura, doktoregoa, graduondoa).
- ▶ Lan-egoera: ikasten du, lan egiten du, langabea da (langabezian dago eta lehenago lan egin du edo lehen enpleguaren bila dabil), etxeko lanak.
- ▶ Familia-egoera: ezkongabea, ezkondua, bikotearekin, beste egoera batzuk.
- ▶ Hurbilen sentitzen duen alderdi politikoa: PP, EAJ/PNV, PSE/EE, IU/EB, Aralar, ezker abertzaleko beste talde batzuk, EA, UA, beste batzuk, batere ez.

11.3.3. Galderak birkodetzea

Galde-sortako zenbait galdera birkodetu egin dira irekiak zirelako:

37. GALDERA:	
Gazte zaren aldetik, zein dira gehien kezkatzen zaituzten hiru arazoak?	
01	LANA Langabezia, lan ezegonkorra, laneko segurtasun eza.
02	ETXEBIZITZA Etxebizitza garestiak, etxebizitza falta
03	TERRORISMOA Indarkeria, atentatuak, ETA, bakerik ez izatea.
04	POLITIKA Egoera politikoa, Euskadiren eta Espainiaren arteko harremanak, independentzia, presoen egoera.
05	IKASKETAK Azterketak, ez gaintitzea, ikasi nahi ez izatea
06	DIRUA Dirurik ez izatea, sari txikia izatea
07	DROGAK
08	ALKOHOLA
09	ADISKIDETASUNA
10	EKOLOGIA Ingurumena, kutsadura
11	OSASUNA Gaixotasunak, HIESa
12	EUSKARA Euskararen egoera, lan egiteko behar izatea
13	FAMILIA Familia-harremanak
14	ETORKIZUNA Ziurgabetasuna
15	POBREZIA Hirugarren munduko egoera
16	BIKOTEA Maitasuna
17	BESTELAKOAK

56. GALDERA: EAEn bizi diren atzerriko etorkinez hitz egiten denean zein etortzen zaizkizu bat-batean burura?	
01	AFRIKARRAK Mairuak, marokoarrak
02	HEGOAMERIKARRAK Kolonbiarrak, kubarrak, brasildarrak, dominikarrak
03	IJITUAK
04	EKIALDEKO EUROPA Jugoslaviarrak, bosniarrak, albaniarrak, errusiarrak
05	BELTZAK
06	EKIALDETARRAK Txinarrak, japoniarrak, asiarrak
07	ARABIARRAK Turkiarrak
08	PORTUGALDARRAK
09	EUOPAR BATASUNENKOKO BESTE BATZUK Ingelesak, frantsesak
10	BESTE BATZUK Espainiatik kanpokoak, EAetik kanpokoak

62. GALDERA: Sexu hitza aipatzen badizut, Zein bi hitz, adjektibo edo espresio bururatzen zaizkizu?	
01	BIKOTEA Gizona/emakumea, senargaia/emaztegaia, mutila/neska, harremana, ezkontza
02	NEURRIAK HARTZEA Antisorgailuak, preserbatiboak, HIESa
03	MAITASUNA Maitasuna, goxotasuna, afektua
04	DESIOA Erakarpina, pasioa, plazerra, morboa.
05	SEXU HARREMANA Amodioa egitea, sexua, larrua jotzea, koitoa, orgasmoa, ohea, ñaka egitea
06	DIBERTSIOA Festa, gozatzea, poza, alaitasuna.
07	UGALKETA Seme-alabak, haurdunaldia
08	NATURALA Natura, normala, beharrezkoa, askatasuna
09	OSASUNGARRIA Ona, osasuntsua, polita, atsegina, edertasuna, zoriona, guaia
10	KOMUNIKAZIOA Adiskidetasuna, laguntasuna, bizikidetzeta, intimitatea, egonkortasuna, ligatzea
11	GAZTETASUNA
12	GIZA GORPUTZAREN ATALAK Zakila, titiak, bagina
13	BESTELAKOAK



Eranskina
Erabilitako
galdesorta



EAE-KO GAZTERIARI IRITZI INKESTA 2004ko EKAINA

ELKARRIZKETA ZB	(1)	(2)	(3)	(4)	INKESTATZAILE ZB	(5)	(6)	(7)			
LURRALDEA	(8)	UDALA	(9)	(10)	(11)	BARRUTIA	(12)	(13)	ATALA	(14)	(15)

(INKESTATZAILE: EGIN INKESTA ZAUDEN ETXEAN ERROLDATUTA DAGOEN JENDEARI BAKARRIK. BALDINTZAK HORRETARAKO EGOKIAK BADIRA EGIN EZAZU INKESTA EUSKARAZ)

EGUNON / ARRATSALDEON. EUSKO JAURLARITZAREN TZAT INKESTA BAT EGITEN ARI GARA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GAZTEEI BURUZ. GALDERA BATZUEI ERANTZUNGO ZENIEKE? INKESTA EUSKARAZ ALA ERDARAZ EGITEA NAHIAGO DUZU?

<p>01.G- SEXUA: (16)</p> <p>- GIZONEZKOA 1</p> <p>- EMAKUMEZKOA 2</p> <p>02.G- ADINA: (17) (18)</p> <div style="text-align: center; margin: 5px 0;"> <table style="border: 1px solid black; width: 40px; height: 20px; display: inline-table;"></table> <table style="border: 1px solid black; width: 40px; height: 20px; display: inline-table;"></table> </div> <p>ETA HELBIDE HONETAN ZAUDE ENPADRONATUTA? (EZ KODIFIKATU, INKESTA JARRAITZEKO EDO EZ DA)</p> <p>03.G- ZEIN LURRALDETAN JAI O ZINEN? ETA, NON JAI O ZEN ZURE AITA? ETA ZURE AMA?</p> <table style="width: 100%; border-collapse: collapse; margin-top: 5px;"> <thead> <tr> <th></th> <th style="text-align: center;">BERA (19)</th> <th style="text-align: center;">AITA (20)</th> <th style="text-align: center;">AMA (21)</th> </tr> </thead> <tbody> <tr><td>- ARABA</td><td style="text-align: center;">1</td><td style="text-align: center;">1</td><td style="text-align: center;">1</td></tr> <tr><td>- BIZKAIA</td><td style="text-align: center;">2</td><td style="text-align: center;">2</td><td style="text-align: center;">2</td></tr> <tr><td>- GIPUZKOA</td><td style="text-align: center;">3</td><td style="text-align: center;">3</td><td style="text-align: center;">3</td></tr> <tr><td>- NAFARROA</td><td style="text-align: center;">4</td><td style="text-align: center;">4</td><td style="text-align: center;">4</td></tr> <tr><td>- ESTATUKO BESTE LURRALDE BATEAN ...</td><td style="text-align: center;">5</td><td style="text-align: center;">5</td><td style="text-align: center;">5</td></tr> <tr><td>- ATZERRIAN</td><td style="text-align: center;">6</td><td style="text-align: center;">6</td><td style="text-align: center;">6</td></tr> <tr><td>- ED/EE</td><td style="text-align: center;">7</td><td style="text-align: center;">7</td><td style="text-align: center;">7</td></tr> </tbody> </table>		BERA (19)	AITA (20)	AMA (21)	- ARABA	1	1	1	- BIZKAIA	2	2	2	- GIPUZKOA	3	3	3	- NAFARROA	4	4	4	- ESTATUKO BESTE LURRALDE BATEAN ...	5	5	5	- ATZERRIAN	6	6	6	- ED/EE	7	7	7	<p>04.G- ZEIN KLASE SOZIALETAN KOKATZEN DUZU ZURE BURUA? (22)</p> <p>- GOI MAILAN 1</p> <p>- ERDI-GOI MAILAN 2</p> <p>- ERDI MAILAN 3</p> <p>- ERDI-BEHE MAILAN 4</p> <p>- BEHE MAILAN 5</p> <p>- ED/EE 6</p> <p>05.G- ONDOKO ZEIN EGOERATAN ZAUDE GAUR EGUN? (23)</p> <p>- IKASLEA ZARA (06 G-N JARRAITU) 1</p> <p>- LAN EGITEN DUZU (07 G-N JARRAITU) 2</p> <p>- IKASI ETA LAN EGITEN DUZU (07 G-N JARRAITU) 3</p> <p>- LANGABETUA ZARA (06 G-N JARRAITU) 4</p> <p>- ETXKO LANETAN (06 G-N JARRAITU) 5</p> <p>- BESTE EGOERA BATEAN (06 G-N JARRAITU) 6</p> <p>06.G- LEHENAGO LANIK EGIN DUZU? (24)</p> <p>- Bai (07 G-N JARRAITU) 1</p> <p>- Ez (14 G-N JARRAITU) 2</p> <p>- ED/EE (14 G-N JARRAITU) 3</p> <p>- GAINERAKOAK (LANEAN ARI DA GAUR EGUN) 4</p>																																						
	BERA (19)	AITA (20)	AMA (21)																																																																				
- ARABA	1	1	1																																																																				
- BIZKAIA	2	2	2																																																																				
- GIPUZKOA	3	3	3																																																																				
- NAFARROA	4	4	4																																																																				
- ESTATUKO BESTE LURRALDE BATEAN ...	5	5	5																																																																				
- ATZERRIAN	6	6	6																																																																				
- ED/EE	7	7	7																																																																				
<p>(BAKARRIK GAUR EGUN LANEAN ARI DIRENENTZAT EDO LEHENAGO LAN EGIN DUTENENTZAT. 2 EDO 3 05. G-N EDO 1 06.G-N)</p>																																																																							
